

Heziketarako "ezinbesteko" ikusten
dute naturarekin harremana | 8



Adif hasi da Aramaioko
lur-jausia konpontzen | 24



Mondra, Bergara eta Urola, azkenera
arte borrokan mailaz igotzeko | 27

Txupin-hotsak abiaraziko ditu festak

Bergarako jaiak dira Debagoieneko herrietako lehenak | 14



Bitorianatxo, Blanca Narbaiza, Maite Agirre eta Gorka Rementeria, Bergarako udaletxeko balkoian.

AMAIJA TXINTXURRETA

SINADURAK

	JOXEMARI MUXIKA 6	
	ANE GOROSABEL 10	
	ANDONI GARTZIA 19	
	MIKEL IRIZAR 40	

Arrasate, Bidezko Merkataritzaren Lagun

Izendapen hori duen EAEko bosgarren hiria da | 9



ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Ixa Rodriguez: boxeoa emakumeen artean zabaltzen
- Josu Erkoreka sailburuari elkarriketa

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialak
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialak

www.mondragon.edu/gmh
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Ate irekiak

maiatzak 21 (larunbata) 11:00

GOI
MAILAKO
HEZIKETA
ZIKLOAK

2016-2017
www.mondragon.edu/gmh





Eguazteneko hitzaldia, Aretxabaleta Lanbide Eskolan. | MIRARI ALTUBE

Euskararen eta osasungintzaren arteko loturak aztertu dituzte

"Osakidetzan euskara indartzeko konpromisoa hartuta daukagu"

ENEKO AZURMENDI | ARETXABALETA Euskarak osasunbidean duen egoeraz eta azken urteotan Lanbide Heziketan izan duen garapenaz aritu ziren eguaztenean Aretxabaleta Lanbide Eskolan. Jardunaldian honako hauek hartu zuten parte: Jose Mari Armentiak, Osakidetza giza baliabideetako zuzendariak; Xabier Arauzok, Osakidetza

Euskara zerbitzuburuak; Kepa Altubek, Laneki-Jakinbai.eus-eko kudeatzaileak; eta Rikardo Lamadridek, Lanekiko presidente eta Aretxabaleta Lanbide Eskolako zuzendariak. Osakidetza euskararen erabilera areagotzeko konpromisoa hartuta daukatela adierazi du Jose Mari Armentiak, bertako giza baliabideetako zuzendariak.



JOSE MARI ARMENTIA
OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDE ZUZENDARIA

"Legealdi honen hasieran gure konpromisoa garbia izan zen. 2013ko abenduan bigarren euskara plana onartu genuen. Badakigu Osakidetza atzerapen puntu batekin gaudela euskara arloan, baina azken lau urte hauetan bultzakada eman diogula uste dut. Asko daukagu egiteko oraindik, baina guztien laguntza behar dugu, elkarlanean jardun. Horretarako, garrantzitsua da euskara elkarrekin eta formakuntza eskaintzen duten eskolekin aliantzak sortzea."



XABIER ARAUZO
OSAKIDETZAKO EUSKARA ZERBITZUBURUA

"Osakidetza, etorkizun hurbilean, profesional elebidunak nahi ditugu. Horretarako, proiektu bat daukagu, osasun arloko ikasketak burutzen dituzten ikasleak euskara menperatzeak daukan garrantziaz jabetzeko. Etorkizunean osasun arloan lan egiteko euskara jakitea eskatuko dela jakin behar dute ikasleek. Horretarako, euskarazko formakuntza oso garrantzitsua da, bertatik irtengo direlako etorkizuneko profesionalak".



KEPA ALTUBE
LANEKI-JAKINBAI.EUS-EKO KUDEATZAILEA

"Euskararen arloan gauza asko geratzen zaizkio egiteko Lanbide Heziketari, bai eskaintza, bai matrikulazioetan eta baita material aldetik ere. Guk material arloa jorratzen dugu eta urtero 60 bat material berri ateratzen ditugu. Hala ere, oraindik material dezente geratzen zaigu euskaraz klaseak eman ahal izateko. Luzerako proiektua da, eskaria handia da eta. Orain B eredu sartuta, espero dugu A eredu gutxitzea eta B eta D ereduak goranzko bidea hartzea".

'Puntaik Punta' jaialdia Leintz Gatzagan

Ekainaren 10ean, 11n eta 12an ospatuko dute

ENEKO AZURMENDI | LEINTZ GATZAGA Mundumiraren ordezkotako jaialdia izango da Leintz Gatzagan ospatuko duten *Puntaik Punta*, Debagoieneko bidezidorren jaialdia ere deiturikoa.

Debagoieneko Mankomunitateko turismo sailak sustatutako ekimena da, hain zuzen ere, bailarako turismoa eta mendizaletasuna bultzatzeko helburuarekin jaio dena, Joanes Mendizabal Leintz Gatzagako kultura zinegotziak azaldu duenez. Izan ere, Debagoieneko turismo baliabideen artean, mendi eta inguru naturalak "oso aktibo garrantzitsuak" dira. Horregatik, hauek "ezaguturazi eta balioan jartzea" da jaialdi honen helburua, Mendizabalen esanetan.

Bestalde, zinegotziak gaineratu du eskualdean badagoela ondo errotutako mendizaletasuna. "Euskal Mendizale Federazioa Elgetan sortu zen eta goi mailako zenbait mendizale eta eskalatzaile ere bailarakoak ditugu", adierazi du.

Lehenengo edizioa, esan bezala, Leintz Gatzagan ospatuko da, eta urtero Debagoieneko herri batek lekukoa hartzea da asmoa. "Datorren urtekoa Bergaran izan daiteke, bertako mendi taldearen 50. urteurrenarekin bat egiten duelako, baina oraindik ez dago ezer ziurtatuta", dio Joserra Zubizarretak, Mankomunitateko Garapen Ekonomikoko batzordeburuak.

Leintz Gatzaga moduko herri batendako, zalantzarik gabe, erronka garrantzitsua da. "Herri txikia izanik, erronka gogorra da guretzat, baina, aldi berean, ilusioz eta gogoz hartu dugu eta aukera polita da gure herria, basoak eta ezkutuko bazterrak ezagutzera emateko", onartu du Mendizabalek.

Antolakuntza buru-belarri ari dira lanean. "Martxo erdialdean hasi ginen lehen bilarekin eta astero elkartzen gara egitaraua eta antolaketa lantzeko. Bilera irekiak dira eta edonork parte har dezake", dio zinegotziak. Oraingoz, 20 pertsona inguru ari dira antolakuntza,

ESANAK



"Erronka handia da guretzat, baina ilusioz gaude"

JOANNES MENDIZABAL | KULTURA ZINEGOTZIA

baina datozen egun eta asteetan jende gehiago batzen joatea espero dute, "lan handia" dago eta egiteko.

Lehen aldia izanik, nabarmendu du ez daudela ziur jaialdiak hartuko duen dimentsioarekin, baina bertaratzen direnak "asebeteta eta gustura" geldituko direla uste du Mendizabalek. "Landa ingurune paregabean bizi gara eta altxor ezkutu asko gordetzen dituzte gure baso eta mendiek", azaldu du, baikor.

Ekintzaz betetako asteburua

Esan bezala, ekainaren 10eko, 11ko eta 12ko asteburuan ospatuko dute, eta hainbat ekintza eta emanaldi egongo dira.

Hitzaldiak, azoka, tailerrak, diaporamak, mota desberdinetako mendi-martxak, kontzertuak, eta abar prestatu dituzte.

Kontzertuei dagokienez, nabarmentzekoak dira Bad Sound System, Los Zopilotes Txirraus eta Malick Reggae Band taldeak.

Eskalada jardunaldiak ere egingo dituzte, kalean, *street boulder* deritzona egiten.

Bestalde, rappela, tirolina eta beste hainbat ekintza gozatzeko aukera ere izango dute gazteek.



Apirilean egin zuten batzarretako bat. | IMANOL SORIANO

**COPRECI** **COPRECI, K. ELK.**

2016ko OHIKO BATZAR OROKORRERAKO DEIA

Kontseilu Errektorearen erabakiz, Elkarrearen Ohiko Batzar Orokorrera deitzen da. Batzarra, Aretxabaletako Kiroldegian, egingo da 2016ko maiatzaren 27an, arratsaldeko 15:30ean lehen deia eta, kasua balitz, bigarren, 16:00etan, egun eta toki berean, hurrengo eguneko gai zerrendaren arabera:

GAI ZERRENDIA

1. Aktak onartzeari buruzko informea eta akordioa.
2. Memoria irakurtzea eta onartzea.
 - 2.1. 2015eko Gestioari buruzko akordioa.
3. 2015eko Urteko Kontuen azterketa.
4. 2015eko Emaizten banaketa.
5. Erregimen ekonomikoari buruzko estatutu xedapenak.
6. 2/2016 Araua, Kooperatiba bazkideen Aurrerakin maila ezartzeari buruzkoa.
7. 3/2016 Araua, Kooperatiba bazkideen Emaizten Banaketari buruzkoa.
8. Mondragon Componentes eta Fagor Taldeari buruzko txostenak.
9. Kontseilu Errektorearen jakinarazpenak.
10. Kanpoko Auditoreak izendatzea.
11. Zaintza Batzordeko kideak berritzea.
12. Fagor eta Mondragon Componenteseko Batzar Orokorretarako ordezkariak hautatzea.
13. Galderak eta eskaerak

Kontseilu Errektoreko Lehendakaria
Aretxabaleta, 2016ko maiatzaren 13an

Herri-komunikabideak, eraldaketa sozialerako

Jardunaldi eta hizlari interesgarriak Arrasaten, Oñatin eta Aretxabaletan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Elkarheztzen eta Mugarik Gabe ekimenek, Goiena Komunikazio Taldearekin batera, *Komunikatuz Eraldatu-Herriak euren komunikazioaren jabe* izeneko jardunaldiak antolatu dituzte maiatzaren 17tik 26ra. Jardunaldiak helburu argia dute: "Mass-media delakoek sustatutako pentsamendu baka-rraren aurrean, herri-komunikabideen bitarteko komunikazioa ezinbesteko tresna da eraldaketa soziala, tokian tokiko kultura eta hizkuntzak eta beste jendarte eredu bat bultzatzeko".

Gai hori jorratzeko, Arrasaten, Oñatin eta Aretxabaletan hitzaldiak, solasaldiak eta dokumentalak antolatu dituzte, Euskal Herriko, Mexikoko, Argentinako eta Boliviako komunikatzaileen eta kazetarien parte hartzearekin.

Indigenen errealtatea gertutik

Jardunaldietako ekintza guztiak 19:00etan izango dira. Maiatzaren 17an, *Eutsi edo hil, herri indigenen salaketa, ikuspuntu eta proposamenak* izeneko dokumentala ikusi ahal da Aretxabaletako Arkupen; ondoren, berbaldia izango dute komunikatzaile indi-

genekin. Maiatzaren 18an, *Komunikazio alternatiboa eta herri komunikabideak eraldaketa sozialerako* izenburu izango duen mahai-ingurua egingo dute bertako zein Latinoamerikako komunikatzaileen parte hartzearekin, euskaraz zein gazteleraz. Arrasateko Kulturaten izango da.

Egitaraua borobiltzeko, herri indigenek egindako *Malla Malla Pewenche*, *memoria y resistencia mapuche* eta *Soy colla* izeneko dokumentalak ikusi ahal da maiatzaren 24an Arrasateko Kulturaten eta maiatzaren 26an Oñatiko zinema aretoan. Sarrera doakoa izango da jardunaldieta-ko ekintza guztietarako.

Kanpoko eta bertako ahotsak

Jardunaldietan goi mailako hizlariak izango dira aurten ere. Kanpotik datozenen artean daude Bashe Numen, Ivan Sanjines eta Mariano Estrada. Lehena, Argentinako *Asociación comunitaria indígena de comunicación* elkarte-ko kidea da; Chacoko komunitate indigenen antolake- ta, autogestioa, garapena eta partaidetza sustatzea dute helburu komunikazioaren bitartez. San-



Ivan Sanjines.



Mariano Estrada.



Bashe Nuhem.



Ane Irazabal.



Arantza Santesteban.



Fakun Aznarez.



Estitxu Eizagirre. | ARGAZKIAK: GOIENA

jines, Boliviako *Fundación para el desarrollo de la comunicación intercultural* fundazioko zuzendaria eta fundatzailea da. Hirugarrena, Mexikoko Tzeltzal herriko Mariano Estrada da; herri indigenen zinemarako eta komunikaziorako CLACPI antolakun-

deko koordinatzaile orokorra da. Euskal Herriko komunikatzaileei erreparatuz, batez ere Ekialde Hurbilean lan egiten duen Ane Irazabal *freelance* kazetaria, Arantza Santesteban historialaria eta komunikazio zein genero kon- tuetan aditua *-Komunikazio pare- kiderantz. Kazetarietzako esku-*

liburua izeneko liburuaren egi- lea- eta Estitxu Eizagirre *Argia* aldizkari-ko zuzendaria izango dira. Hizlari horiez gain, aspal- ditik Euskal Herrian bizi den Fakun Aznarez kazetari argen- tinarrak ere hartuko du parte.

400 kilometro bizikletaz, AHTaren Angiozarko lotuneraino

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

"Gizartean txertatuta dago eus- kara babestu beharra eta Korri- ka denok lagundu beharra; bada, nahiko genuke ingurumenarekin ere kontzientzia antzekoa sortu eragitea". Helburu hori oinarri duen Txirrinka txandakako bizi- kleta martxak lortu ditu nahikoa parte-hartzaile maiatzaren 20tik 22ra, Hego Euskal Herriko lau probintziak zeharkatuz 400 bat kilometroko bizikleta martxa gauzatzeko, Angiozarreraino. "Ziurtatuta dugu hiruzpalau lagun puntu bakoitzean izango direla kilometro bakoitza hartzeko", adierazi du Mila Elortzak, AHT Gelditu! Elkarlaneko ordezkariak. Eta gaineratu du Korrikak beza- la, Txirrinkak ere bere lekukoa izango duela -argazkian-, berezi askoa, ze lau zatitan banatu eta zutabe bakoitzak Debagoienerai- no ekarriko du zati bana, harik eta maiatzaren 22an Angiozarren



Lekukoa, Jon Tomek egindakoa. | TXIRRINKA

lekukoa osatu arte. "Zati bakoitza da hazi bat ernetzen balego moduan, eta hazi guztiak hemen Angiozarren lotuko ditugu. Ingu- rumenaren aldeko lekukoa da", dio Elortzak.

Angiozar, 'Y'-aren muino

Izan ere, Txirrinka "AHTaren eta proiektu txikitzaileen kontrako borroka" dela azpimarratu du hark. "Helburua da jendearengan eragi- tea, ikusarazteko ze gizarte eredu ari garen modelatzen; ez gabiltza pentsatzen etorkizuneko pertso- nengan; ari gara haiek inongo baliabiderik gabe lagatzen, eta hori oso larria da. Urteotan azpiegitura erraldoien plangintza eta eraikun- tza amorratua izan da: AHTa, *frac- king*-a, Garoña, errauskailua, goi tentsioko lineak... Proiektu horiek gauzatzeko baliabide naturalak zein ekonomikoak izan dira eus- karri eta ingurua, berriz, honda- kindegi. Txirrinka bukatzeko Angiozar aukeratu da, *Euskal Y*-a izenez ezagutzen delako Euskal Herriko AHTaren ibilbidea, eta *Y* elkartzen den muinoa da Angiozar. Obrak orain hasi dira, zundaketak egiten, baina beste ezer eraikitzen hasi barik dagoen lekua da".



ULMA C y E, S. Coop.

Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA • D E I A L D I A

Eguna: 2016ko maiatzaren 20a

Ordura: 8:30ean lehen deialdia eta 9:00etan bigarrena

Tokia: Zubikoa kiroldegiko frontoia - Oñati (Gipuzkoa)

GAIZERRENDIA

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea batzar honetako akta onartzeko
2. 2015eko ekitaldiko gestio soziala aztertzea, eta, onartzea hala badagokio, eta 2016ko gestio plana eta 2016-2018ko Plan Estrategikoa berrestea
3. ULMA Taldeari buruzko txostena
4. 2015eko ekitaldiko urteko kontuak aztertzea, eta, onartzea hala badagokio
5. Auditorea berrautatzea
6. 2015eko ekitaldiari dagokion kapitalaren ordainketa.
7. 2015eko ekitaldiko emaitzak banatzea
8. ULMA Taldeko POGU III eta Kooperatibaren Barne Araudiko 42 artikulua aldatzea, dagokionean, egoera berezietan interesak sortzeari dagokionez
9. MONDRAGON INVERSIONES, S. Coop.en desinbertsioa
10. Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako eta Interes Publikoko beste helburu batzuetarako Contribuzioa aplikatzea (IPDK)
11. Bazkide berrien kapitalera ekarpenak
12. Menpeko Ekarpen Finantzarioen jaulkipena
13. Zaintza Batzordeko kideak berritzea
14. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea
15. Hurrengo Batzarra egiteko toki
16. Ahalmenak eskuordetzea
17. Galde-eskeak

OHARRAK: Bazkideei gogorarazten zaie ULMA C y E, S. Coop.eko (aurreantzean, "Kooperatiba") sozietatearen egoitzan eskuragarri dituztela urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuen kanpo ikuskaritza txostena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan ditzaten. Era berean, bazkideei jakinarazten zaie Kooperatibaren egoitzan eskuragarri dituztela (I) proposatutako Barne Araudiaren eta POGU IIIaren aldaketan testu osoak eta doan emateko edo bidaltzeko eska ditzaketela; eta (II) "Etorkizuneko MONDRAGON" ponentziari MONDRAGONeko Kongresu Arauen onspen-proposamenaren testua, 2016ko martxoaren 18an MONDRAGONeko kooperatiba elkartuei jakinarazitako idazkerarekin. Hau guztia, jakinaren gainean izateko Kooperatibaren Batzar Nagusiaren 9. puntuko erabaki proposamena onartzeko orduan. Azkenik, bazkideei jakinarazten zaie Kooperatibaren egoitzan eskuragarri dituztela ere, eratzea proposatzen den Bigarren mailako kooperatibaren estatutu sozialak, jakinaren gainean izateko Kooperatibaren Batzar Nagusiaren 9. puntuko erabaki proposamena onartzeko orduan.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2016ko maiatzaren 3a

Pedro Luis Uriarte | Ekonomian eta Zuzenbidean lizentziaduna

"Euskal Herritarren %51k ez dakite ezta zer den ere kontzertu ekonomikoa"

Uriarteren ustez, herritarra gai izan beharko litzateke kontzertu ekonomikoa defendatzeko

MIREN ARREGI | BERGARA

Goienagusi elkarteak eta Bergarako udalak antolatuta etorri da Pedro Luis Uriarte Bergarara. Ekonomian eta Zuzenbidean lizentziaduna, esparru desberdinetan jorratu du bere ibilbide profesionala: industrian, finantzetan, aholkularitzan.... Ekonomia eta Ogasun sailburu izan zen Jaur-laritzako lehenengo gobernuan eta *El Concierto Económico vasco: Una visión personal* liburu arrakastatsua argitaratu zuen iaz; ondoren etorri zaizkio han eta hemen hitzaldiak emateko eskærak.

Liburua argitaratu zenetik gelditu ere ez zara egin.

Ematen dudan hemezortzigarren hitzaldia da gaurkoa.

Zu zeu aritu zinen 1981eko kontzertu ekonomikoren hitzarmenaren negoziazioetan.

Ni herritar soil bat naiz. Ez naiz alderdi politiko batekoa edo bestekoa, eta kasualitate baten ondorioz bilakatu nintzen 1980an Ekonomia eta Ogasun sailburu. 1981ean hitzartu zen zortzigarren aldiz kontzertu ekonomikoa eta bertako pasarte asko nik neuk idatzitakoak dira. Hau da, ni naiz izaki horren aita. Nire lana beteta, politika utzi nuen 1984an.

Zure esperientzia idaztea erabaki zenuen orduan.

Sinposio akademiko baten



Pedro Luis Uriarte. | M.A

"Osasuna, hezkuntza... hori guztia da kontzertu ekonomikoa"

barruan, katedradun batzuei hitzaldi bat emateko deitu zidaten behin, eta ikusi nuen inor ez zela lo gelditu, gustura egon zirela nire esperientzia entzuten. Autoan Bilborantz nindoala bururatu zitzaidan liburu bat idaztea. Nire esperientzia idaztea. Hasiera baten 200 orriko liburu bat izan behar zena 3.000 orriko liburu bilakatu

zen eta irakurri dutenek diote kontzertu ekonomikoa inoiz idatzi den lan garrantzitsuena eta osatuena dela.

Erraz irakurtzeko modukoa da, gainera.

Anekdotak asko ditu, txisteak... Erantzukizun bat hartu dut. Kontzertu ekonomikoa ezagutaraztea da nire asmoa. Euskal herritarren %51k ez dakite ezta zer den ere. Egoera tamalgarria iruditzen zait. **Nola azaltzen duzu, erraz, zer den kontzertu ekonomikoa?**

Foru sistema tradizional bat da, eta erregulatzen ditu zerga eta finantza harremanak Euskadiren eta Estatuaren artean.

Eta zergatik da garrantzitsua?

Kontzertu ekonomikorekin bitartez iristen zaizulako zuri iristen zaizun guztia: osasuna, hezkuntza, errepideak, Ertzaintza... Hori guztia da kontzertu ekonomikoa. **Zure helburua da herritarra gaitatea kontzertua defendatzeko.**

Kontzertuarekin kritiko direnei zer erantzun jakin beharko luke herritar orok. Izan ere, hau ez da paradisu fiskal bat.

Eta zer erantzun Euskadi paradisu fiskala dela diotenei?

Paradisu fiskaletan, Panamako paperetan ikusi dugun moduan, pertsona aberatsak daude. Hau izango litzatekeelako munduko paradisu fiskal bakarra non presio fiskala Espainiakoa baino altuagoa izango litzatekeen. Hau da, Madrilen biziko banintz, askoz ere zerga gutxiago ordainduko nituzke. Pertsona aberats batek Euskadin Madrilen baino %20 gehiago ordaindu dezake urteko diru sartzeengatik. Madrilen ez da existitzen ondarearen gaineko zergarik, eta hemen bai; elkartearen gaineko zerga hemen %28koa da eta Madrilen %25ekoa. Horiek eta beste arrazoi mordoak dago haur paradisu fiskala ez dela arrazoitzeko.



Azterketari planto egingo diotela esateko agerraldia . | XABI GOROSTIDI

Lomcek ezarritako azterketari ezetz esan diote

Debagoieneko hamabi ikastetxek egin dute bat, eta Hezkuntza Bilgunea sortzeko asmoa agertu

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

Lomce legeak ezarritako Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako azterketari planto egitea erabaki dute Debagoieneko hamabi ikastetxek. Hala jakinarazi du joan den egubakoitzean horren gainean hausnartzeko elkartu zen taldeak: "Garbi dugu hirugarren mailako azterketa hau Lomcek ezarritakoa dela, eta hemengo Hezkuntza Sailak lege horren atzekipean jarri duela frogatzen hori", dio Iker Elexpuruk, Aretxabaletako Kurtzebarri eskolako irakasleak, eta gaineratu du: "Debagoieneko eskola publiko, ikastola eta gainerakoen jarra oso garbia da; hala, Hezkuntza Plataformen Topaguneak eta beste hainbat mugimenduk planto egiteko hartu duten erabakiarekin bat egin dugu".

Azterketa hori noiz egin ikastetxe bakoitzaren esku dago, baina maiatzean izan behar da, derrigorrean.

Hezkuntza Bilgunea

Hezkuntzarekin lotutako kanpo erasoak gizarteratzeko asmoarekin, etorkizunean ikastetxeen arteko ekimen bateratuak egitea da asmoa. Horren harira, Debagoieneko Hezkuntza Bilgunea sortzea proposatu dute era kohesionatuagoan erantzuteko: "Helburua da hezkuntza gaiak lantzea bilgune horretan, eta kanpoko inposizioen bat datorrenean horri aurre egiteko ekintzak zehaztea. Garrantzitsua da hezkuntza komunitate osoa izatea honen parte erabakiak hartzeko eta ikastetxeak babesteko", jakinarazi du Elexpuruk.



ULMA Manutención, S. Coop.

Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA • D E I A L D I A

Eguna: 2016ko maiatzaren 23a
Ordua: 14:30ean lehen deialdia eta 15:00etan bigarrena
Tokia: MU Enpresagintzako auditoriuma – Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERRENDIA

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea batzar honetako akta onartzeko
2. 2015eko ekitaldiko gestio soziala aztertzea, eta, onartzea hala badagokio, eta 2016ko gestio plana berrestea hala badagokio
3. ULMA Taldeari buruzko txostena
4. 2015eko ekitaldiko urteko kontuak aztertzea, eta, onartzea hala badagokio
5. Auditorea berrautatzea
6. Kapitalaren ordainketa. 2015eko ekitaldiari dagozkion interesen sortzapena
7. 2015eko ekitaldiko emaitzak banatzea
8. POGU III eta Kooperatibaren Barne Araudiko 42 artikulua aldatzea, dagokionean, egoera berezietan interesak sortzeari dagokionez
9. MONDRAGON INVERSIONES, S. Coop.en desinbertsioa
10. Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako eta Interes Publikoko beste helburu batzuetarako Kontribuzioa aplikatzea (IPDK)
11. Bazkide berrien kapitalera ekarpenak
12. Menpeko Ekarpen Finantzarioen jaulkipena
13. Kontseilu Errektoreko kideak berritzea
14. Zaintza Batzordeko kideak berritzea
15. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea
16. Ahalmenak eskuordetzea
17. Galde-eskeak

OHARRAK: Bazkideei gogorarazten zaie ULMA Manutención, S. Coop.eko (aurrelantzean, "Kooperatiba") sozietatearen egoitzan eskuragarri dituztela urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuen kanpo ikuskaritzak egindako txostena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan ditzaten. Era berean, bazkideei jakinarazten zaie Kooperatibaren egoitzan eskuragarri dituztela (I) proposatutako Barne Araudiaren eta POGU IIIaren aldaketan testu osoak eta doan emateko edo bidaltzeko eska ditzaketela; eta (II) "Etorkizuneko MONDRAGON" ponentziari MONDRAGONeko Kongresu Arauen onespenez proposamenaren testua, 2016ko martxoaren 18an MONDRAGONeko kooperatiba elkartuei jakinarazitako idazkerarekin. Hau guztia, jakinarenean gainean izateko Kooperatibaren Batzar Nagusiaren 9. puntuko erabaki proposamena onartzeko orduan. Azkenik, bazkideei jakinarazten zaie Kooperatibaren egoitzan eskuragarri dituztela ere, eratzea proposatzen den Bigarren mailako kooperatibaren estatutu sozialak, jakinarenean gainean izateko Kooperatibaren Batzar Nagusiaren 9. puntuko erabaki proposamena onartzeko orduan.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2016ko maiatzaren 5a



ULMA Packaging, S. Coop.

Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA • D E I A L D I A

Eguna: 2016ko maiatzaren 19a
Ordua: 14:30ean lehen deialdia eta 15:00etan bigarrena
Tokia: Zubikoa kiroldegiko frontoia – Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERRENDIA

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea batzar honetako akta onartzeko
2. 2015eko ekitaldiko gestio soziala aztertzea, eta, onartzea hala badagokio, eta 2016ko gestio plana berrestea hala badagokio
3. ULMA Taldeari buruzko txostena
4. 2015eko ekitaldiko urteko kontuak aztertzea, eta, onartzea hala badagokio
5. Auditorea berrautatzea
6. Kapitalaren ordainketa. 2015eko ekitaldiari dagozkion interesen sortzapena
7. 2015eko ekitaldiko emaitzak banatzea
8. POGU III eta Kooperatibaren Barne Araudiko 42 artikulua aldatzea, dagokionean, egoera berezietan interesak sortzeari dagokionez
9. MONDRAGON INVERSIONES, S. Coop.en desinbertsioa
10. Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako eta Interes Publikoko beste helburu batzuetarako Kontribuzioa aplikatzea (IPDK)
11. Bazkide berrien kapitalera ekarpenak
12. Menpeko Ekarpen Finantzarioen jaulkipena
13. Zaintza Batzordeko kideak berritzea
14. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea
15. Ahalmenak eskuordetzea
16. Galde-eskeak

OHARRAK: Bazkideei gogorarazten zaie ULMA Packaging, S. Coop.eko (aurrelantzean, "Kooperatiba") sozietatearen egoitzan eskuragarri dituztela urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuen kanpo ikuskaritzak egindako txostena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan ditzaten. Era berean, bazkideei jakinarazten zaie Kooperatibaren egoitzan eskuragarri dituztela (I) proposatutako Barne Araudiaren eta POGU IIIaren aldaketan testu osoak eta doan emateko edo bidaltzeko eska ditzaketela; eta (II) "Etorkizuneko MONDRAGON" ponentziari MONDRAGONeko Kongresu Arauen onespenez proposamenaren testua, 2016ko martxoaren 18an MONDRAGONeko kooperatiba elkartuei jakinarazitako idazkerarekin. Hau guztia, jakinarenean gainean izateko Kooperatibaren Batzar Nagusiaren 9. puntuko erabaki proposamena onartzeko orduan. Azkenik, bazkideei jakinarazten zaie Kooperatibaren egoitzan eskuragarri dituztela ere, eratzea proposatzen den Bigarren mailako kooperatibaren estatutu sozialak, jakinarenean gainean izateko Kooperatibaren Batzar Nagusiaren 9. puntuko erabaki proposamena onartzeko orduan.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2016ko maiatzaren 3a

Javier Sotili elkarriketa datorren 'Puntua' aldizkarian

M.A. | DEBAGOIENA

Mondragon Korporazioko presidente Javier Sotil elkarriketatuta du Goienak, agintaldiari agur esan aurretik. Maiatzaren 20an argitaratuko den *Puntua* aldizkarian jasoko dituzte haren gogoeak eta bizipenak.

Hainbat ardura izan ondoren 2014ko azaroan presidente kargua hartu zuen bergararrak agintaldiko azken hilabeteak bizi ditu. Hala ere, oraindik badu erronkarik: uztaileko kongresu orokorra. Han aurkeztuko dute, hain zuzen ere, Sotilek berak garatu eta bultzatu duen Mondragon 2020 ponentzia.

Hori eta beste gai mordoak izango ditu berbetarako gai hurrengo *Puntua*-n; besteak beste, kooperatiben lehiakortasuna, Fagorren krisiak utzitako ikasgaiak eta enpleguak izan duen betiko izaeraren bukaera.

Abian da 'Hamaiketako jasangarria' ekimena berrerabilpenaren alde

Debagoieneko Mankomunitateak ogitartekoak sartzeko zorroak banatu dizkie 2.500 ikasleri

E.AZURMENDI / M.ALTUBE | ELGETA
Berrerabilpena sustatzeko helburuarekin, *Hamaiketako jasangarria* ekimena jarri du abian Debagoieneko Mankomunitateak, eta Elgetan aurkeztu zuen martitzenean. Han elkartu ziren Iraitz Lazkano, Elgetako alkatea, eta Lander Arregi, Mankomunitateko Hondakinen Kudeaketa Batzordeko lehendakaria, eta eskolako ikasleei ogitartekoendako zorro berrerabilgarriak banatu zizkieten.

Ikastetxe guztiak

"Gaztetatik bultzatu gura ditugu berrerabilpenari eta birziklatzeari lotutako balioak. Horretarako, urtero hainbat kanpaina egiten dira, eta aurten zorrotxoak oparitu ditugu", jakinarazi du Arregik. Hiru eta hamabi urte bitarteko ikasleei bideratutako kanpaina da, eta Debagoieneko ikastetxe guztiek hartuko dute parte; guztira, 2.500 ikaslek.

21 urtez jarraian egiten duten kanpaina baten barruan kokatutako ekimena da Elgetan aurkeztutakoa. "1994. urtean egin zen lehen aldiz zaborra eta hondakinak murrizteko kanpaina, eta, ordutik, urtero egiten da. Hain zuzen, *Hamaiketako jasangarria* urteroko horren barruan dago kokatuta", azaldu du Maddi Altunak, Mankomunitateko Ingurumen Zerbitzuko ardura-dun teknikoak.

Elgetan egiten dabilzan Aste Berdearen bueltan aurkeztu dute ekimena: "Ahalik eta hondakin gutxien sortzeko eta sortzen dena berrerabili edo birziklatzeko helburuarekin kanpaina oso bat egin dugu. Horretarako, hainbat gai landu ditugu konpostaren, ongarriztearen eta nekazaritza ekologikoaren gainekoak, esaterako", argitu zuen alkatea. Eta garrantzitsutzat jo zuen gazteei hondakinen kudeaketaren gaineko ikuspegi integral bat ematea.



Elgetako alkate Iraitz Lazkano ogitarteko zorroak banatzen umeei. | GOIENA

Ekainaren 25era arte egin ahal izango da errentaren aitorpena

MIREN ARREGI | DEBAGOIENA

Ekainaren 25ean amaituko da errentaren aitorpen kanpaina eta dagoeneko ia 175.000 autolikidazio proposamen onartu dira; bidalitakoen %70. Horietatik ia 33.000 egin dira euskaraz eta gai nontzekoak gaztelaniaz. Errenta mekanizatuari dagokionez –Ogasuneko bulegoetan egiten da hori, Ogasuneko langileen laguntzaz–, 33.000 aitorpen aurkeztu dira dagoeneko eta Internet bidez egin dira 16.000 aitorpen inguru.

Aurtengo ekinaldian, Foru Ogasun eta finantza departamentuak lurraldeko zergadunei 299 milioi euro itzultzea aurreikusten du, eta, estimazio beraren ara-

bera, 173 milioi euro bilduko ditu. Kanpainaren saldoa, beraz, -125 milioi eurokoa izango da, 2014ko kanpainaren saldoa bost milioi euro hobetuta. Aitorpenen %75 Ogasunak zergadunei itzultzea izango dela espero da, eta gainerako %25a ordaintzera.

Aberastasunaren eta fortuna handien gaineko zergari dagokionez, 2,7 milioi gehiago jasotzea aurreikusten da, hau da, 61,7 milioi euroko diru bilketa. Araudian izan diren berritasunen ondorioz ekonomia jarduerari lotutako elementuak eta enpresetako partaidetzak salbuetsita gelditu dira, tarifa berriak daude eta ondasun higiezinaren balioa aldatu da.

Doinu dantzagarriak Kilometroetarako

M.A. | BERGARA

Demasa abestiak girotuko ditu Bergarako Kilometroak 2016. Eguaztenean aurkeztu zituzten hori eta bideoklipa Donostian, eta harrera bikaina izan zuten.

Bergarako Emon taldeak egin du abestiaren musika; hitzak, berriz, Maddi Iñarrak idatzi ditu. Bideoklipa Andoni Goitiren zuzendaritzapean egin da –Goiena Komunikazio Tal-

dea-, Artaman Komunikazioaren eta Orpex-en laguntzarekin.

"*Demasa* hitzak berak indar handia dauka, eta musikak eta letrak ere indarra transmititu beharra zeukaten. Horregatik, abesti oso bizia egin dugu, intentsitate handikoa", jakinarazi du Emon taldeko Aritz Alustizak. Hitzak idatzi dituen Iñarrak gaineratu du: "Adierazi nahi izan dut euskaldunok, komunitate txikia izanagatik, demasak garela, gure hizkuntza demasa dela".

Abestia Spotify, Itunes eta Youtube plataformetan entzungai dago eta www.kilometroak.eus-etik deskarga daiteke. Zuzenean, lehen aldiz, ostera, maiatzaren 20an Bergarako Udal Pilotalekuan, 22:00etan, entzun ahal izango da.



Abestiaren egileak eta ikastolako hainbat ordezkari Donostian. | KILOMETROAK 2016

PREST

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

GOIERRI · MAIATZAK 19
OSTEGUNA, 17:30 / Aula Magna

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZA · MAIATZAK 14
LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

ARETXABALETAKO · MAIATZAK 14
LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA
Basque Culinary Center

DONOSTIA · MAIATZAK 21
LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI!

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

Nerea Laburu
Gastronomia eta sukaldaritza arteak, 3.maila.

#erronkarakoprest

ZABALIK

JOXEMARI MUXIKA
goiena.eus/komunitatea/



Ekin diezaiokegu?

A dos al zaude gure gizarteko desberdintasunekin? Batzuen soldatak beste batzuenen halako bi, hiru edo hamaika izatearekin? Batzuek hileko jasotzen dutena ozta-ozta 1.000 euro diren artean, beste batzuen soldatak X-tik gorakoak –zuk jarri zenbakia– izatearekin? Eta zer esan lanik edo diru sarrerarik ez dutenez? Hauek lan adinekoen %9 gainditzen dute, Hego Euskal Herrian 119.000 pertsona inguru.

Eta gizartea justuago bihurtzeko eraldatzea zure esku dagoe-la esango balizute? Ba, hala da. Ezberdintasunari buelta eman eta elkartasunez jokatu duen eredu eraikitzeko, komunitatea osatzen duten pertsonen arteko elkartasunera hurbilduko gaituen egitura ezartzeko gaitasuna dugu.

Eraldaketak goitik edo behe-tik egin daitezke, baina goitik behera egindako eraldaketak *statu quo*-a kontserbatu edo zabaltzeko egiten dira, kapitalaren agenda bultzatzeko –gerrak, TTIP, etab–. Gaur egungo sistemaren jokamolde hau aldatu beharra dago, eta, horretarako, behetik indar egin beste aukerarik ez dugu.

Eta nolakoa litzateke nahi dugun gizarte eredu? Hau ezta-baidarako gaia da. Etekinen banaketa elkartasun eta berdintasun handiagoz egin beharko litzateke, erabakiak hartzerakoan ondorioak jasango dituen orok iritzia eta botoa emateko aukera izan beharko luke, enpresako erabakiak honen etorkizunerako hobe beharrez hartzea, eta ez bakarrik kapitalaren interesei men eginetz... Kapitalaren eskuetatik eta logiketatik kanpo dagoen gizarte ekonomia alternatiboa ehuntzen joatea litzateke helburua.

Behetik sustatutako eraldaketa ekimenen artean pertsonen elkarteak dira oinarri, *pertsona bat*, *boto bat* sistema dutenak. 2015eko udan Bilbon ospatu zen Alternatiben Herrian ekitaldian hainbat adibide erakutsi ziren; Euskal Herriko hezkuntza, industria, kontsumo, energia... ekimenak.

Beraz, posible da, ekin diezaiogun.

USTEAK USTE

JOKIN BEREZIARTUA | jbereziartua@goiena.eus

Kaka, baloi baten bueltan

Apirilaren 30ean UDAREN eta Bergararen arteko derbia tokatu zitzaidan. Jokaldirik erabakigarriena, 1-2koa ekarri zuen penaltia, ez nuen grabatu, Aretxabaletako gizon baten eta Bergarako gazte baten arteko beroaldi batek gutxigatik ez zuelako borrokaldi baten amaitu. Kameraren parean izan zen, eta segundo pare bateko *shock* hark –ezin nuen sinistu– eragotzi zidan penaltia –edo liskarra– grabatzea. *Harmailatik* saioan penaltia ezin erakutsi, eta, beraz, amorrua. Eta bestelakoa, baina amorrua harmailetako giroan zegoena ere... Penagarria norberaren *kakak* baloi baten bueltan ateratzeko ohitura. Bihar (17:30) amaituko dute liga Mondrak eta Bergarak. Nire porra? Lehiarik sanoeneko irabazlea igo dadila!

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | goiena.eus/komunitatea/



HANDIK ETA HEMENDIK

Zer gertatuko litzateke hilekoa emakumeek izan beharrean gizonek balute?

Onintza Irureta Azkune
http://goo.gl/iMigKu

Ez litzateke lotsakizun, ezkutatu beharrekoa, eta higienarako osagaiak ez lirateke hain garesti. Harrotzekoa litzateke orain bazterrekoa dena, bai aberatsen, bai txiroen artean.

Begien bistakoa denarekin has gaitezen: gizakiaren historian emakume orok izan du edo dauka hilekoa. Hilero odola jariatzen du baginaren bidez (haurdun dagoenean salbu). Prozesu hau jatea, edatea edo lo egitea bezain naturala da, eta polita ere bai: ez dago hilekoa arrotz zaion arrazarik. Gehienok ordea, nekez hitz egiten dugu hortaz.

Horrela hasi du Newsweek aldizkari estatubatuarrek hilekoari buruzko erreportaje luzea. Adar askotatik heldu dio gaiari, baina funtsean planetaren erdiak bizi duen gertaera zokoratua, ahaztua eta tabu bihurtua dela azpimarratu

du, bai herrialde garatu eta aberatsetan, baita txiro eta garatu gabeetan ere.

Eskuragarri? Edozein kaletan autoa aparkatu dezakezu eta ordaintzera derrigortzen bazaituzte txartelarekin ere ordaintzen uzten dizuten makinak dituzu AEBetako kaleetan (erreportajeko ia erreferentzia guztiak AEBetakoak dira). Aldiz, zenbat komun publikotan aurki daitezke tanpoiak eta konpresak?

Osasuntsuak dira? Kalera atera eta hainbat emakumeri galdetu diete ea badakiten erabiltzen dituzten tanpoiak zertaz eginak dauden. Izan ere, sarri kritikatu da osasunarentzat kaltegarri izan daitezkeen osagai kimikoak dituztela. Odol isuria egokiago biltzeko eta osasunarentzat kaltegarriak izango ez diren osagaiak aurkitzeko ikerketa gutxi egiten dela salatzen du erreportajeak.

Luxuzko produktua: 2015ean AEBetan 3,1 milioi dolar gastatu zituzten emakumeek tanpoiak, konpresak eta oihaltxoak erosten. AEBetako 50 estatuetatik 40tan zergapean dira produktuok. Hilekoa gai izar bihurtu zen bolada batez kazetari batek Obama presidenteari horixe bera

galdetu zionean, alegia, zergatik ordaindu behar zituzten emakumeek produktuok luxuzkoak balira bezala. Obamaren erantzuna: ideiarik ere ez zeukala, ziurrenik zergak ezartzeko legeak gizonek egingo zituztela.

Gai baztertua, ahaztua, aspergarria: zer gertatuko litzateke emakumeek beharrean gizonek izango balute hilekoa? 1978an erantzun zion galdera horri Gloria Steinem feministak: inbidia eragiten duen eta harrotzeko modukoa den ekintza maskulinoa litzateke: "Harro erakutsiko lukete zenbat irauten dien eta zenbat isurtzen duten".

Eta herrialde ez hain aberatsetan? UNICEFen arabera, munduan 500 milioi emakume ez du baliabide nahikorik odol isuria kudeatzeko. Oso zaila dute garbi mantentzen, baliabide merkeak eskuratzen, eta era berean osagai osasuntsuak erabiltzen. [...] Oso ohikoa da Afrikako hainbat tokitan adibidez, hilekoa duten garaian eskolara ez joatea, besteak beste, ez dutelako bitartekorik isuria egoki kudeatzeko.

Newsweek-eko erreportajearen arabera, hilekoa munduko giza eskubide ahaztuena da.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Eredaktore burua Ubane Madera
Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Itxaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Imanol Soriano, Aitor Lagoma, Oxel Arrieta.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.com

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 00
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.850 ale
Difusioa: 18.857 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritza
diruz lagundutako
aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Ene bordatxotik

Txipi Ormaetxea

Otxandio

Anbotoko magaletik, nire agurrik eta eskerrik beroenak igaro berri den maiatzaren 3an Gasteizko Oihaneder euskararen etxera hurreratu zineten guztioi.

Zuek egindako txera eta eskainitako berotasuna ez ditut berehalakoan ahaztuko. Ekitaldia gertukoa, goxoa, hunkigarria izan zen niretako, alimaleko oparia, bizian eta hilean ez ahazteko modukoa. Emandako berba betetze-bidean, hasia naiz omenezko liburuko artikuluak irakurtzen, eta ez dut etsiko den-denak irakurri arte; atsegin eta plazer handiz, gainera.

Honek denak pertsona hobea egingo nauen esperantzan, har ezazue guzti-guztiok (izan zinetenok eta ezin izan zenutenok) ene besarkadarik maitekorrena.

Belatz handia tirokatuta Oñatin

Izaskun Urisabel, Jon Ugarte, Joxe Ruiz, Idoia Bollar
(Oñatiko Naturzaliak)
Oñati

Orain dela bi aste, belatz handi bat agertu zen zaurituta Oñatiko San Martin hariztiaren inguruan. Horrelako kasuetan ohiko denez, Igeldoko Arrano etxera eraman zuten, aztertu eta, ahal izanez gero, osatu eta ondoren askatzeko asmoz. Zoritxarrez, laster hil zen, gorputzean perdigoi ugari baitzituen, egun gutxi batzuk lehenago jasotako tiro baten ondorioz.

Azpmarratu behar da, batetik, ez dela ehiza garaia, eta, bestetik, belatz handia (*Falco peregrinus*) espezie babestua dela –bakana edo arraro moduan jasota EAEko Babestutako Espezieen Zerrendan–. Beraz, itxura guztiz, intentzio osoz botatako tiroa izan da. Eskopeta ehiza garaian bakarrik erabil daiteke, udazken eta negu partean, eta espezie ehizagarriak botatzeko bakarrik –usoa, oilagorra, birigarroa...–. Baina norbaitek ez zuen askorik maite belatz hau eta tiroz botatzea erabaki du; bejondeiola!

Oñatiko Naturzaliok, beste oñatiar asko bezala, San Martin, Murgia eta Berezao aldetik paseatzen ibiltzen gara eta askotan ikusi izan dugu belatzen bat edo bi inguru horietan hegazka eta oihuka. Gauza ederra da belatz handia ehizan ikustea; hegazti azkarrena dela esan ohi da, ia 400 km/h abiadura hartzen baitu. Faltan botako

GUTUNAK

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Oñalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

dugu hilda agertu den belatz eme hau. Ale ederra zen, tamaina politekoa eta ohikoa ez den bular laranja kolorekoa.

Oñatiko mendietan belatz handi bikote bakarren batzuek umatzen dute urtero-urtero. Aizkorri-Aratz Parke Naturalean, bai Araba aldean, bai Gipuzkoan ikus edo entzun daitezke bikote batzuk, batez ere orain, umatze garaian. Dagoeneko belatz txitak jaio dira eta gurasoak jo eta ke ari dira ehizan txitei jaten emateko. Eme hau hilda, bere bikotekidea ahaleginduko da txitak aurrera ateratzen –2-4 txita, oro har–. Oraindik garai hotza da eta arrak ezingo ditu berotu txitak, ehizan aritu beharko baita.

Belatz handiak, batez ere, usoak, birigarroak eta txoritxoak ehizatzen ditu. Eta herri eta hirietan ere ikusten da bertako hegaztien atzetik. Ehiztari aparta izan arren, askotan huts egiten du bere saiakeretan. Txitei jaten emateaz gain, hauei ehizatzen erakutsi behar die. Ez du lan makala! Zaila izango da kumaldia aurrera ateratzea eta litekeena da kume guztiak hiltzea.

Azkenik, esan, Babestutako Espezie bat akabatzea delitua izan daitekeela, eta, zentzu horretan, 2014an Donostian belatz handi bat tirokatu zuen gizon bat zigortua izan dela. Oñatiko kasuan, ez da erraza izango tirogilea aurkitzea, nahiz eta basozain zein ertzainak saiatuko diren. Ikas dezagun zer dugun gure etxe inguruan!

Bitartean heldu eskutik

Maialen Arratibel
Arrasate

Erabakia, eskubidea, bozketa... Hainbeste mamitu ditugu hitzok herri honetan, ezen sarritan zentzugabe egiten baitzaizkigu gure ahotan bueltaka. Hitz bat askotan errepikatzen duzunean bezala, azkenean zentzua galtzen duela. Hain gaude nekatuta eskubide beharko lukeen hori aldarrikatzeaz, eskatzeaz... ahaztu egiten zaigu batzuetan zertan ari garen ere.

Eta hori gutxi balitz, ezin izaten dugu zehaztu egiten ari garen bidearen luzea. Maparik bagenu geure beldurrak, ezinegonak lasaitzeko... Baina nago horretan datzala bidea pausoz pauso egitearen lilura. Deskubritzean ba ote dagoen gozamenik, hor nonbaitetik etengabe jartzen dizkiguten oztopo guztien artean. Jabetzean debeku bakoitzeko, garela pixka bat indartsuago, gu geuago. Eta konturatzean baietz, poz berri bat pilatzen duzula arnasaldi kolektibo bakoitzeko.

Kirmen Uribek dio *bukaera iritsi bitartean heltzeko eskutik*. Zuri eskatu nahi dizut gauza bera. *Eskubide* hitzak zentzua galtzen duen bakoitzean, heltzeko eskutik.

Bihur dezagun herrigintza eskugintza. Eta datorrela hortik benetako alternatiba sinesgarria. Ez dadila izan soilik herria ustez sostengatzen duen sistema hori amiltzen denerako heldulekua.

Aitta joan dela eta... lau hitz

Esti eta Izar Loiti
Arrasate

Azken urte hauetan aitarekin egin dugun bidaia gogorra bezain aberatsa izan da.

Ibilbide horretan zehar, zenbat negar malko, zenbat irribarre, zenbat berbaldi, zenbat laztan, zenbat ukitu eder, zenbat besarkada, hitz goxo... aitari... guri... zenbat sentimendu, oroitzapen...

Baina ibilbide horretan zerbaitek, norbaitek, bete bagaitu, bidean aurkitu ditugun pertsonak izan dira.

Ederra benetan; beste gaixoek, haien familiek –gora bihotzak!–, gure lagunek, familiakoek eta, nola ez... egunero-egunero-egunero pertsona hauek zaindu eta familiari bidea errazago egiten laguntzen diguten langileei... ikaragarria zuen lana.

Ezin utzi aipatu gabe bereziki Aita Menni edota Zestoako San Juan egoitzako langileak... Eskerrik asko, benetan.

Beti bihotzean eramango zaituztegu. Ondo izan...

Dena ez da dirudiena

Agus Perez
Bilbo

Aramaioko antzokian estreinatu du Doke antzerki taldeak bere azken sorkuntza, seigarrena orain dela hamabi urte sortu zenetik. Eta bere garrantzia dauka Arabako herri euskaldunean estreinatu izanak, Arrasateko taldeak beti jardun duelako euskaraz eta herri-antzerkiaren parametroetan.

Oraingo honetan, Josemari Velez de Mendizabalen testu bat eszenaratu dute –*Aingeru ala kurriloi?*–, erreferentzia eginez antzezlaneko pertsonaia baten kurrilo izaerari.

Argumentuaren erdian ahizpa zahar biren bizimodu arrunta kokatzen da: bata onbera da, ordenatua, zentzuduna eta bihozbera; bestea, ostera, zatarra eta garratza.

Berez, bien arteko harreman zailak nahikoa emango zukeen antzezlan osorako, baina egileak beste faktore batzuk txertatu ditu hasierako egoera horretan, eta horrela hasi gara ikusten dena ez zela zirudien bezain argia.

Ondo definitutako dekoratu garbi batean jardun dute antzezleek, eta etxeko giroa irudikatzen zuten altzari gutxiak lagungarriak eta neurrikoak izan dira eszenak girotzeko eta ekintza garatzeko. Hiru protagonista nagusien soineko zuri-beltzek ere nolabaiteko neutraltasuna eman diote egoerari, eta korapiloa askatzen duen pertsonaia arropa koloretsuagoarekin agertu da. Argien diseinuak ere aipamena merezi du, oso foku gutxirekin eta bere zurtasunean itxura klinikoa eman diolako dramari, une jakin batzuetan giro tenebrista sortuz pertsonaien dramatikotasuna azpimarratzeko.

Vene Herrero zuzendariak patxadaren aldeko apustu sendoa egin du, hasieratik amaiera arte, argumentuaren argitasunaren izenean eta, seguruenik, antzezleak lasaiago ibili zitezen. Antzezleek, berriz, orbangabe ahoskatu dute euskara batuzko testua, eta txukun

bete dituzte beren rolak, Mariasun Pagoaga euren artean nabarmenduta. Une batzuetan Genet-en *Les bonnes* (*Las criadas* gaztelaniaz eta *Neskameak* euskaraz) ikusten geundela uste izan dugu eta behin edo behin antzezleen akats txikiak antzeman ditugu, baina hori du maitagarri antzerkiak, eta are gehiago herritik sortutako antzerkiak!

Lurra kinkan, badator Txirrinka

Mila Elorza eta Hilario Manzanedo
(AHT Gelditu! Elkarlana)
Bergara

Muturrerainoko eraldaketak eta baldintzapenak dakartzan eredu kapitalistan, nahikoa genuke ingurura begiratzea, paisaian islaturiko orban konponezin eta zatarkeria pilaketez konturatzeko eta, barnera begiratzuz gero, jendartearen harremanetan eragin dituen aldaketa kaltegarriez jabetzeko.

Azken urteotan azpiegitura erraldoen –AP-1, AHT, Durango-Beasain...– eraikuntza amorratuak ez du etenik izan, krisiak krisi. Hauek gauatzeko baliabide naturalak zein ekonomikoak izan dira euskarri eta ingurua, berriz, hondakindegia eta zauri sendaezinen hartzaile. Azpiegitura hauek bultzatzeko erabilitakoak jendearen zerbitzurako jarri behar dira.

Maiatzaren 20an, 21ean eta 22an, lau zutabeko txandakako Txirrinka martxa, Euskal Herria zeharkatuz, Angiozarren helmugaratuko da. Lurraren aurkako guda hau gelditu eta hainbeste azpiegitura txikitzaile behar dituen eredu hau irauli behar dugu, egungo eredu soziala behetik gora eraldatuz.

Azken lekuko aldaketa Bergarako eragile ezberdinek batera hartuko dute, igandean, hilaren 22an, 11:30ean, San Antonion –Espoloiko aldapan–. Herrian bira emanda, 12:00etan, Labegaraietako kiroldegian, Arabako eta Bizkaiko zutabeekin bat eginez, oinez abiatuko gara Angiozarrera. Lurraren alde, herritarrak deitzen ditugu Txirrinkan parte hartzera.

ZUZENKETA

Aurreko asteko GOIENA paperean (682), 7. orrialdean, Aritz Arnaiz Laskurainen gutun bat argitaratu genuen, *Tortura salatzeagatik torturatua* izenburupean. Bada, hori ez zen izenburu zuzena, hau baizik: *Tortura salatzeagatik zigortua*. Hori dela eta, barkatu eragozpenak.

HERRIAK

Naturarekin harremana, heziketarako "ezinbestekoa"

- 'Hurbil gaitezen naturara' jardunaldiak egingo dira Arrasaten asteburuan
- Bost elkarteren arteko elkarlanari esker, egitarau zabala antolatu dute

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

"Natura pertsonen garapen integralerako iturri agortezina delako eta, natura zaintzeaz eta maitatzen jarraitzeaz gain, naturarekin dugun harremana berreskuratu behar dugulako". Helburu edo behar horretatik tiraka antolatu dituzte *Hurbil Gaitezen Naturara* jardunaldiak Txatxilipurdik, Besaide Mendizale Elkartek, Leintz Eskola Kirolak, Sustraiabarrik eta Garaion Natur Artean egitasmoak.

Liburuetatik naturara

Heziketan umeen parte-hartze zuzena "ezinbesteko osagai" moduan ulertzen dute aspalditik Txatxilipurdin. Francesco Tonucciren *Haurren hiria* liburua euskaratu zuten 2013an eta lan-ildo horri jarraiki Heike Freireren *Berdean Hezi* ekarri zuten eus-

karara iaz. Tonucciren lana aldarrikatzera dator umeen ikuspegitik eratutako hiria edozein pertsona gustura bizitzeko moduko hiria dela eta Freireren liburuak umeen eta naturaren arteko harremanean garatzea du helburu. Harreman horretan sakontzea "ezinbestekoa" dela esateko hainbat arrazoi daude, Txatxilipurdiko Berramesten egitasmoan buru-belarri diharduen Oier Nafarrateren arabera: "Adibidez, ingurumenarekin jasangarriak izan behar dugula sustatu behar badugu, askoz errazagoa izango da hori umea txikitatik hasten bada naturarekin harremana izaten".

Antolatzaileek aditzera eman dutenez, ikerketek eta berezko esperientzia pertsonalek erakusten dute umek –eta beraz, familiak– natura behar dutela: "Iker-

ketetara joan barik ere, argi ikus daiteke gure arbasoek zenbat denbora pasatzen zuten helduen kontrolatik kanpo, naturan", gaineratu du Nafarratek. Lehengo heziketa eredu horren alde onak balioan jarri eta gaur egungo

garaietara egokitu gura dituzte bultzatzaileek. Horretarako, bost elkarte batu dira: "Lehen aldia izango da zerbait batera sortuko duguna, baina alde aurretik ezagutzen genuen elkar. Txatxilipurdin ikusi genuen bazela garaia liburuetatik eta teorialatik harago joan eta hau guztia kalera ateratzeko. Liburuek oso ondo laburbiltzen dute egin nahi duguna, baina ordua da, pixkanaka, praktikara eramateko. Denok batera joan nahi izan dugu, bakoitzak bere esparrutik egin dezakeen ekarpena aintzat hartuta". Aste bukaera oso baterako egitaraua prestatu dute eta asmoa da "ahalik eta ume gehien" elkartzea.

Eguraldiari aurre egiteko asmoz
Hori bai, eguraldi iragarpenak ez dira onenak aste bukaerara begira: "Eguraldi onarekin askok ez

dute ohiturarik naturaz gozatzeko eta eguraldi txarrarekin are gehiago kostatzen zaigu irtetea. Baina lokatzarekin jolasteak badu bere xarma...", dio, umoretsu, Nafarratek. Eguraldi txarra bada, gaur arratsaldean eta domeka arratsaldean Monterronen aurreikusitako ekintzak udaletxeko arkupeetan egingo dituzte. Hala, gaur euria egiten badu, naturako elementuekin eskulanak egingo dituzte arkupeetan eta domekarako ezinbestekoa izango da, gutxienez, hamar lagunek taldea osatzea: "Emozioak kudeatzen ikasiko dute, txakurren bidez". Bihar, eguraldi txarra egiten badu ere, ibilaldia eta Musakolako astoaren artelana bere horretan mantenduko dute. Izan ere, Garaion Natur Artean egitasmoak kideekin batera, umek San Isidro jaietako ikurra den astoa egingo dute naturako elementuak erabilita.

Lehen harriaren ilusioa

Lehen urtea izango da, eta, beraz, ez dago jakiterik nola joango den. Ilusiorik ez zaie falta, hori bai: "Bost elkarte batu gara eta egitaraua lotu dugula ikusita, pozik gaude. Ea aurrerago halako gehiago antolatzeko lehen harria jartzen dugun aste bukaeran. Izan ere, bide bat hasten dugun sentsazioa daukagu, aurrerantzean proiektu berriak etorriko direla. Ez dira egun batetik bestera fruituak ematen dituzten gaiak, inurri-lana eskatzen duten gaiak dira", iragarri du Nafarratek.

ESANAK

"Bide bat hasten dugun sentsazioa daukagu; hori bai, inurri-lana eskatzen duten gaiak dira"

OIER NAFARRATE | TXATXILIPURDI



Heike Freireren –ezkerrean– 'Berdean Hezi' liburuaren aurkezpena. | J.B.

'HURBIL GAITEZEN NATURARA': EGITARAUA

GAUR, EGUBAKOITZA

18:00-20:00 Jolasak eta solasaldia ume eta helduentzat, Monterronen. Eguraldi txarrarekin, udaletxe azpian.

BIHAR, ZAPATUA

09:30-14:00 Gure inguruaz gozatzeko ibilaldia, Monterronen hasi eta San Baleixo

ermitaraino. Hamaiketakoaren eta jolasen ostean, buelta Monterron parkera.

11:30-13:30 *Naturartean sormen tailerra*, Musakolako San Antolin plazan.

ETZI, DOMEKA

17:00-18:30 *Tailer emozionala txakurrekin*, Monterron parkean.



Garaion Natur Artean-eko kideek ikasleekin egindako artelanetako bat, Monterronen. | GOIENA



Sustraiabarrikoak iazko argazki baten; emozioak kudeatzen irakatsiko dute etzi, txakurrekin. | SUSTRAIBARRI



Iazko Urrezko Astokiloak: Iban Goñi, Oxel Apraitz eta Goio Etxenagusia izan ziren sari preziatua jaso zutenak. | GOIENA

Pozaren erresuma, jairako eta astora 'igotzeko' gertu

San Isidro festak izango dira asteburuan Musakolan; aurtengo nobedade nagusia motorzaleen irteera da

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Arrasatear gutxi ukatuko dute Musakola izaera berezia duen auzoa –edo herria?– dela. Ereserkiak dioenez *–es en Ziorla donde reina alegría...*–, pozak agintzen duen erresuma da Musakola. Eta baieztapen horrekin ados ez dagoe-na pasatu dadila aste bukaeran, iritsi dira-eta San Isidro jaiak. Auzo alkatearen arabera, urtar-rilean hasten dira egitaraua antolatzen: "Urte osoan zehar beste lekuren baten zerbitzua berezia ikusten badugu, antolakuntzako kontaktua eskatzen dugu berehala, badaezpada. Urtarriletik aurrera serio hasten gara lanean", dio Iban Goñik. Hori bai, azken egunak izaten dira mugituenak: "Orain apur bat urduri gaude; konfiantza handia dugu gure artean eta eztabaidak ere izaten ditugu, baina hori ona da.

Gauza asko dira lotu beharrekoak, baina gustura egiten dugu".

Motorzaleen irteera

San Isidro jaiez gain, Gazte Eguna, olagarro-dastatzea eta beste zenbait ekitaldi ere antolatzen dituzte. Eta, nola ez, ekitaldi horiek aprobetxatzen dituzte, adibidez, jaietarako arropak –kamiseta edo poloak, jertseak eta baita lentzeria ere– saltzeko. Datu esanguratsua da, gainera, *merchandising*-a saltzea zaila izaten den garaiotan, Musakolan di-da baten saltzen dela jaiekin zerikusia duen ia edozer.

Egitarauko nobedade nagusia da biharko motor irteera: "Ez dugu 1990eko hamarkadako kontzentrazioa zena berreskuratuko, seguruenik, hori oso zaila izango da. Aurtengoa proba izango da, nahikoa izan dugu gurea antola-

tzen. Ea nola irteten den, espero dugu motorzale batzuk, behintzat, etortzea", azaldu du Iban Goñi auzo alkateak.

San Isidro domekan da aurten

Aurten San Isidro eguna, maiatzak 15, domekan izango da. Urteroko ospakizuna indartu gura dute aurten: "Domeka goizean topera ibiliko gara, hori ziur", iragarri du Goñik. Meza nagusiaren (12:00) ostean, abesbatza eta nahi dutenentzat luntxa egongo dira San Isidro elkartearen Ondoren, urtero moduan, baserriarrek euren zaindariaren omenezko bazkaria egingo dute.

Egitarau osoa ikusteko: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Bidezko merkataritzaren alde egindako lanari saria

Eroskiko Harreman Dendaren lanaz gain, titulua jasotzeko baldintza guztiak betetzen dira herrian

J.B. | ARRASATE

Bidezko Merkataritzaren Lagun diren herrien eta hirien zerrendan sartu da asteon, ofizialki, Arrasate. Titulu hori izateko baldintza guztiak betetzen dituela-eta eman dio Emaus-ek ziurtagiria Udalari. Maria Ubarretxena alkateak jaso zuen agiria, herriaren izenean. Izan ere, ziurtagiri honek herriko elkar-teen egindako lana ere aitortzen du. Eroskin dagoen Harreman dendak hamabost urte daramatza lanean, eta lau urtetik hona dendatik kanpo ere ari dira bidezko merkataritzako produktuak zabaltzen.

Arrasate, EAEko bosgarrena

Hainbat baldintza bete behar dituzte bidezko merkataritzaren lagun izan nahi duten hiriek. Adierazpen instituzional bat onartetik hasita, denak bete ditu Arrasatek: "Publikoak diren eraikinetako *vending* makinetan hasi gara bidezko merkataritzako produktuak erabiltzen. Boloan eta Olentzeroren etorreran ere gozokiak ere halakoak dira...", dio Ubarretxenak. Emaus-eko Alberto Gastonek Arrasate

zoriondu du: "Harreman denda hemen egiten ari den lana igarri egiten da. 15 urte daramatzate honetan sinisten, eta oso erraza da eurekin lan egitea. Udalak ere erraztasun guztiak eman dizkigu talde bultzatzailearekin bilerak egiteko edo adierazpen instituzionala onartzeko". Herriko hainbat enpresatako *vending* makinetak eskaintzaz aparte, Harreman dendako Gorka Martinezek gogora ekarri du kolaboratzaileen garrantzia: "Emaus-eko Ecozentera, Erein Da Jan denda, Feli denda, Esther belar-denda, Irati taberna, Iturripe elkarte... Herri barruan bidezko merkataritza egoteko aukera ematen digute".

Espainian, biztanleko eta urteko 71 zentimo gastatzen dira bidezko merkataritzan; Europan, batez beste, 13,4 euro, eta Holandan edo Erresuma Batuan, adibidez, 40tik gora. EAEn ziurtagiri hau jaso duen bosgarren herria da Arrasate, Donostia, Legazpi, Bilbo eta Getxoren atzetik. Munduan milatik gora daude: Madril, Londres, Paris, Brusela eta Melbourne, adibidez.



Aspiazu, Ubarretxena, Martinez eta Gaston, Harremaneko dendan. | J. IRIORDI

Siriarrei laguntzeko bilketa, arrakastatsua

Harreman gobernuz kanpoko erakundearen *Siriarako laguntza* kanpainak harrera ona izan du. 303 manta, 128 lo-zaku, 62 motxila eta 49 muleta batu dira. Harremanek pertsona anonimo guztiei eskerrak eman dizkie. Baita boluntarioei, Udalari, Ibai Arteri eta komertzioei ere, bilketa guneak izan direlako.



HARREMAN GKE

Gazteei kalitatezko lehen lan edo formazio saio baterako Gazte Bermea ekimena Gazte Bulegoan

Gazte Bulegoa Jaurilaritzaren Gazte Bermea ekimenaren zentro kolaboratzailea da: "Gero eta gehiago ari dira eskatzen enpresa eta erakundeen aldetik Gazte Bermean alta emanda egotea, lanpostu bat lortzeko orduan edo beste programa batzuetan parte hartzeko; Lehen Aukera programan, kasu. Horregatik, Gazte Bulegotik gomendatzen diegu baldintzak betetzen dituzten gazteei ahalik eta azkarren izena eman dezaten". Argibide gehiagorako: 943 25 20 65 eta gaztebulegoa@arrasate.eus.

Sanjuanetarako lelo lehiaketa abiatu dute AEDk, AEK-k eta EHEk; azken eguna maiatzaren 24a da

Laugarren urtez, AEDk, AEK-k eta Arrasateko Euskal Herrian Euskaraz taldeak sanjuanetarako lelo lehiaketa antolatu dute Udalarekin elkarlanean. Helburua da arrasatearrak sanjuanak euskaraz bizitzera animatzea. Esaldi irabazlea jaiak girotzeko erabiliko diren zapietan eta pegatinetan irakurri ahalko da. Lanak AEDren egoitzan entregatu edo aed@aedelkartea.com helbide elektronikora bidali beharko dira hilaren 24a baino lehen (943 77 12 28). Epaia maiatzaren 27an jakinaraziko dute.

Ikastetxeetan landutakoa herritarrei zabalduz

Arrasate Ezagutzen-en baitan sortutako liburu bilduma salgai jarri dute

XABI GOROSTIDI | ARRASATE

Arrasate Ezagutzen egitasmoaren baitan sortutako liburu bilduma salgai jarri du Arrasateko Udaleko Hezkuntza Sailak. Helburu garbi batekin: herritarrei, eta, batez ere, gurasoei Arrasateko historiaren transmisioan baliagarri izateko tresna izatea.

Sei liburuz osatutako bilduma da: *Izan ginelako*, *Errementarien zalapartapean*, *Handitzen handitzen*, *Gure Altxorra*, *Izan ginelako gara eta Ekin eta ekin* dira tituluak eta bakoitzean herriko historiarekin lotutako gai bat lantzen da. 150 aleko tirada egin dute eta Arrasateko Herri Eskolan, Arizmendi Ikastolan, Arrasateko Institutuan eta Ttukun liburu dendan eskuratu daiteke 20 euroren truke.

Arrasate Ezagutzen

"Gaur egun, teknologia berrien bidez, eskuragarri daukagu mundu osoko informazioa, klik gutxi batzuk eginez. Pantaila aurrean leiho birtualak zabalduz gai gara mundua ikusteko. Baina aldi berean, konturatzen gara ze gutxi dakigun gure gertuko errealitateaz edo konturatzen gara gure herria ez dugula ezagutu ere egin, horren gertu daukagunari buruzko ezagutza urrun dagoela



Ander Garai, Beñardo Balerdi, Maria Ubarretxena Iñaki Etxezarreta eta Juanito Barberan . | XABI GOROSTIDI

ikusi baitugu". Hausnarketa hori egin zuen Arrasateko Udaleko Hezkuntza Sailak 2009an, eta herriko ondare kulturalari buruzko unitate didaktiko bat sortu zuen Lehen Hezkuntzako 3. mai-

lako ikasleentzat. Baina egitasmoaren onurak ikusita, Lehen Hezkuntzako maila guztietara hedatzea erabaki zuten.

2013an amaitu zituzten sei unitate didaktikoak. Urte hartatik aurrera hasi ziren herriko ikastetxeetan Arrasateko historiarekin lotutako edukia lantzen.

Hezkuntza Saileko zein ikastetxeetako ordezkarien esanetan, emaitzak oso positiboak izan dira.



XABI GOROSTIDI

Europar izateaz lotsatuta

Astelehenean Europaren eguna zela baliatuta, askotariko herritarrek elkarretaratze zaratatsua egin zuten herriko plazan. Herritar talde batekin egin zuen deialdia, Europako Batasunak Siriako gerratik ihes doazen errefuxiatuekiko daukan jarrera gogor salatze asmoz. Mugak lehenbailehen zabaltzeko aldarri egin zieten EBko agintariei.

EH Bilduk alegazioa jarri dio garbiketa ordenantzari

Araudi berriaren aurkako iritzia edo zalantzak dituztenei alegazioak jartzeko dei egin zieten

X.G. | ARRASATE

Arrasateko EH Bilduk Kale Garbiketa Ordenantzaren aurkako alegazioa aurkeztu zuen martitzenean, Biztanleen Arreta Zerbitzuan. Araudi berria "inposiziotzat" jo zuten, "ez baita kontuan izan gai honekiko herriko hainbat talde politiko, sozial eta sindikalen iritzia". Horretaz gain, ordenantza "lekuz kanpo" dagoela uste dute, "Arrasaten, momentu honetan, ez dagoelako arazo berezirik gizabide-jarrera mailan ezta garbiketa mailan".

Hiru desadostasun

Aurkeztutako alegazioan, ordenantzaren hiru punturekiko desadostasuna agerian utzi nahi izan zuten. Lehenean, 3.2 artikuluan, "herritarren arteko salaketa sustatzen da, eta horrek bizikideta-

sunean eragin kaltegarriak" izan ditzakeela argudiatu zuten. Bigarren, 4.1 artikuluan, "alkateari edo honek izendatzen duen pertsonari isunak ezartzeko gehiegizko boterea" ematen zaiola uste dute, eta ez dela argi definitzen botere betearazle hori nork har dezakeen. Hirugarrenean, 17. artikuluan, "herritar batzuen garbiketa sentsibilitatea beste batzuen arte eta komunikazio kontzeptuen gainetik" jartzen dela uste dute, eta horrek "bizikidetasunerako ondorio negatiboak" dakartzala.

Alegazioak jartzeko deia

Ordenantzaren aurkako plataformakoekin batera, lege berriaren aurkako alegazioak jartzeko dei egin zieten herritarrei. Hauek aurkezteko epea maiatzaren 17an bukatuko da.

NIRE USTEZ

ANE GOROSABEL



TTIP, TTIP... urra!

Badator, gurean da gizarte kohesioa arriskuan jarriko duen merkataritza hitzarmena. Gela txikietan ari dira gutxi batzuk gure herriaren etorkizuna marrazten, sekretupeko akordioak negoziatzen, isilean, ezkutuan. Enpresa multinazionalak gure etxeko atea parez pare ireki gura dizkiete, eztabaida ezin beharko luketen mugak gainditu eta merkatu sistemaren baldintzak hobetze aldera, herritarren eskubideak urratuko dituen egoera bultzatuz. Betikoa, etekin pila, gutxi batzuen esku. Globalizazioak ez du etenik, eta kapitalismoak ez du lotsarik. Hazkundearen izenean, interes kolektiboak protagonismoa galduko du, interes merkantilak presentzia irabazten duen erritmo berean.

Itxuraz, guk, norbanako gisa, honen aurrean ez dugu zer eginik, edo hau pentsarazi gura digute. Posible da merkatu mundialaren eskaintzaren aurrean eskumena mugatua izatea, eta Estatu Batuetatik datorkigun funtzionatzeko planteamendua jada erabakita egoitea. Baina ezin dugu ahaztu gure etxeetako ateko giltzak gure poltsikoetan ditugula, gure esentzia mantentzeko boterea gure gain dagoela. Heldu zaigu kontzientziak astintzeko garaia, inguratzen gaituenarekin zentzuz eta koherentziaz jokatzeko unea. Ez dezagun gure borroka baztertu, behetik jarraituko dugu, elkarrekin amesten, erakitzen, poliki poliki, goian dau den horiei, ekintza txikiekin, harritxoak botatzen, gure errealitatea gurea egin arte.

"Globalizazioak ez du etenik eta kapitalismoak ez du lotsarik."

Posta bidezko botoa emateko bulegoa martxan jarri du PSEk

Arrasateko Alderdi Sozialistak Espainiako hauteskundeetarako posta bidezko botoa emateko aukera eskainiko du. Hori baliatu nahi dutenek PSEren Herriko Etxean jarritako bulegotik pasa beharko dute, astelehenetik egubakoitzera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.



Ignacio Zuloagako lokal berriaren inaugurazioa, eguaztenean. | JOKIN BEREZIARTUA

"Erreferentziazko leku berria" herri galdeketari begira

Ignacio Zuloagako lokalean, boto aurreratua emateko eta edozein zalantza argitzeko aukera

J.B. | ARRASATE

Erain Debagoienako Arrasateko lantaldeak eguazten iluntzean inauguratu zuen herri galdeketara begira "beharrezkoa" zuten lokal berria. Ignacio Zuloaga kaleko 4. zenbakian dago "erreferentziazko leku berria", Omu enpresako Bittor Gonzalezek "eskuzabaltasun itzelez" utzi diena. Maiatzaren 21etik ekainaren 4ra bitartean ekainaren 5eko herri galdeketara begira boto aurreratua emateko txokoa izango da eta herriarrek edozein zalantza argitzeko aukera ere izango dute.

Lokala aste barruan 18:30etik 20:00etara egongo da zabalik eta aste bukaeran, berriz, goizez zein arratsalde. Inaugurazioan azaldu zuten, lokal horretan egongo dira arratsaldero gutxienez: "Eduzein zalantza edo kezka argitzeko edota abentura honetan laguntzeko eta parte hartzeko, zuen izenak jasotzeko prest. Jarraipen batzordeko bi kide gutxienez egongo dira beti". Naroki denda zena ere erabilgarri izango dute, "laster".

Herri galdeketak ere, "lana"

Espainiako hauteskunde orokorren ondorioz ekainaren 5era aurreratu behar izan dute herri galdeketa: "Jo eta ke ari gara lanean. Giza katea itzela izan

zen, Donostiakoa ere demasekoa... Ekitaldi erraldoi horiek antolatu ostean esaten genien gure buruei: 'Hau bozkatzea izango da bakarrik, ez du lan larregi eskatuko...' Bai, zera, honek ere sekulako lana eskatzen du. Detaile guztiak ondo zaindu behar dira; gure eskutik dagoen guztia egiten ari gara galdeketa ahalik eta gardenena izateko. Protokoloa zehatz-mehatz beteko dugu".

Mahai-ingurua hilaren 20an

Bestalde, maiatzaren 20an mahai-ingurua egingo dute Kulturateko areto nagusian (19:00). Gure Esku Dago dinamikaren bozeramaile eta Nazioen Munduko kide Anje Oiarbide, EAJko legebiltzarkide Luke Uribe-berria eta Ciemen-eko presidente ohi Carles Riera izango dira hizlariak.

Mahai-ingurura begira, antolatzaileek erabakitze eskubidea gauzatzea jarriko dute solasaldiaren erdian: "Hemen galdera hau suertatu da [Nahi al duzu izan euskal estatu independente bateko herritar?], baina beste herri batzuetan beste bat izan daiteke. Galderak berak ez du berebiziko garrantzirik, gure ustez; erabakitzeko eskubidea gauzatu ahal izatea bermatzea da gure lehentasuna".

Zailtasunei aurre egiteko, elkartasuna laguna denean

Mondraitz klubari esker garun-paralisia duen Naiara Agredak 600 euro jaso ditu

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Bi ediziotan kirol proba entzute-sua bilakatzea lortu du Arrasate-Udalatx mendi lasterketak, eta bigarrena elkartasun keinu eder batekin borobildu dute asteon Mondraitz Kirol Klubeko ordezkariak. Mondraitz-i eta bigarren edizioan parte hartu zuten 300 korrikalariei esker, 600 euro jaso ditu garun-paralisia duen 12 urteko Naiara Agredak.

Helburu sozialekin urtero

Bigarren edizioa antolatu aurretik helburu sozialak babesteko erabakia hartu zuten eta, kanpora egin beharrean, Arrasaten bertan beharra dutenei laguntzea da Mondraitzekoen asmoa. Hurrengo edizioetan ere ekimen solidarioekin jarraituko dute: "Taldek batek pentsatu zuen Naiara izan zitekeela kasu bat, eta gainerakooi ondo iruditu zitzaigun. Beste kasu batzuk badaude, baina lasterketak ere izango ditu beste edizio batzuk beste kasu horiek ere laguntzeko", adierazi du Mondraitz klubeko presidente Eneko Urrizalkik.

"Mila-mila esker, bihotzez"

Naiara Agredaren senitartekoez biziki eskertu dute Mondraitz klubeko keinua. Haren amak aitortu duenez, ez da hilabeterik pasatzen behar berriak sortu gabe; dioenez, Naiarak 24 orduz behar du laguntza. Dependentziaren Legearen bidez jasotzen duten laguntza gurasoak lanean dauden bitartean Naiara zaintzen duen pertsonari ordaintzeko erabiltzen dute, eta, horretaz aparte, beste

hainbat gasturi ere egin behar izaten diote aurre. Fakturak oso garestiak izaten dira, baina Mondraitzi esker lortutako dirua ondo etorriko zaie; berriki erosi dioten lepokoa ordaintzera bideratuko dute diru hori. Diruaz harago, Naiararen senideek keinua eskertzen dute. Amak, Almudena Viecok, halako jende gehiago egon beharko litzakeela uste du: "Esan diet eurei, gutaz akordatu izana itzela dela. Mila-mila esker, bihotzez".



Mondraitz klubeko ordezkariak Naiara Agredarekin eta haren senideekin. | J.B.

Gure sormenari astindu bat emateko, fanzine tailerra

KOMUNITATEA GOIENA
Ekin Emakumeak | ARRASATE

Ekin Emakumeak elkarteko kideok fanzine tailerra antolatu dugu maiatzerako, Nagore Uriarteren eta Helena Azkarragaurizarren eskutik. Zalantzarik gabe, modu polita izango da fanzineek eskaintzen dituzten aukera ezberdinak ezagutu eta gure sormenari astindu bat emateko. Saioak maiatzaren 17an, 24an eta 31n izango dira, 18:00etatik 20:00etara, gure egoitzan - Pablo Uranga 4, behean-. Izena emateko: 943 79 83 70, 651 707 936 edo emakumeak@ekine-makumeak.eus.

Ekainaren 26ko hauteskunde zentsuaren zerrenda berriak ikusgai

Ekainaren 26ko Espainiako kongresurako eta senaturako hauteskunde orokorrei begira, Udalak aditzera eman du ikusgai daude zentsuaren zerrenda berriak. Lehenago agertu den herritarrak modu berean egiaztatu behar du oraingoan ere zerrendan agertzen den edo ez. Jendaurrean erakusteko epea maiatzaren 16an amaituko da; Biztanleen Arreta Zerbitzuko bulegoetan ikus daitezke zerrendak, eta erreklamazioak egiteko azken eguna ere hilaren 16a izango da. BAZeko ordutegia honako hau da: astelehenetik egubakoitzera, 08:30etik 19:00etara; zapa-tuan, 09:00etatik 13:00etara.

Boluntariotzako elkarteak kudeatzen ikasteko saioak

Udaleko Gizarte Zerbitzuek eta Hezkide Eskolak elkarlanean, *Boluntariotzako elkarteak kudeaketa: proiektuak eta diru-laguntzak* izeneko ikastaroa antolatu dute. Lau saio egingo dituzte, hilaren 23an, 24an, 25ean eta 26an, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan -10:00etatik 13:00etara-. Izena eman behar da maiatzaren 19a baino lehen: gizalde@gizalde.com eta 943 428 013. Landuko dituzten edukien artean daude boluntariotza legeak, proiektu baten eraketan eman beharreko pausoak eta diru laguntzak eskatzeko jarraibideak.

Gantz lokalizatuak? Likido-erretentzioa? Zelulitisa?

Presta zaitez udarako
Tratamendu konbinatuen zikloak

10 saio + 2 doan

6 saio + 1 doan




Erdiko kalea 54 behean. 20500 ARRASATE

Tel.: 943 79 09 09 www.amagaraestetikazentroa.es



RP.S: 214/15



MAIATZAK 13, ostirala (Erretiratuen Eguna)

- 10:00 Kanpai errepika eta kohete jaurtiketa, jaiak hasi direla iragartzeko.
- 10:15 Haurrentzako kirol-jokoak auzoko eskoletan.
- 11:30 Danborrada Arizmendi ikastolako umeekin.
- 17:00 SPINNING MASTERKLASA, Musakolako kiroldegian, kanpoko patinaje aterpean.
Monitore adituak. Izen ematea kiroldegian.
- 17:30 Txokolate eta bollikao banaketa 3 -17 urteko gazteentzat.
Haurrentzako tailerrak 3-12 urte bitarteko haurrentzat, Gazte Txokoa.
- 18:30 Gazteentzako jokoak, gazte txoko kanpoko patioan.
- 19:00 Ikurrina igotzea. Buruhandiak gaiteroekin batera. Alkatetzatik gozokien jaurtiketa.
Txapela eta zapia ikurrina igotzean jantziko ditugu.
- 19:30 Auzoko erretiratuentzako jai-afaria Al-Andalus kultura elkartearen.
- 22:00 Bolo txapelketa bolatokian, San Isidro elkartearen ondoan. Izen ematea, bolatokian.
- 23:00 Dantzaldia KAIXO taldeak alaituta San Antolin plazan.
- 00:00 + beranduago BER-TA-RA

Egun osoan kohete jaurtiketa

MAIATZAK 14, larunbata (Koadrilen Eguna)

- 10:00 Eguzkia eta eguraldi ona.
- 10:00 Erain Gure Esku Dago. Tenis, Squash eta Padel finalak Musakolako kiroldegian.
- 11:00-12:00 Kalejira Arrasate Musikaleko Gaiteroekin.
- 11:00-13:00 Gazteendako jolasak. Gazte Txoko kanpoko patioan.
- 11:30-13:30 Puzgarriak San Antolin ikastolan.
- 12:00 Umeendako asto jaia, San Antolin ikastolaren inguruan.
Herri txikiteoa, gaiteroek alaituta.
Erretiratuen etxeko tabernatik irtengo da astoa. Mesedez, ordurako azaldu.
- 12:00 Auzoko tenis txapelketaren finala. Musakolako kiroldegian.
- 13:30 Mundu osoko kategorian, Urrezko Astokiloak eman eta jartzea.
- 14:00 Aurten ere ez da egingo manifestazio ofizialik, edo bai.
- 15:00 Herri bazkaria San Isidro eliza ondoan (eguraldi txarra eginez gero, aterpean).
Musakolako txarangak alaituta. Bazkari-txartelak erosteko: Ziorla, Meneta eta Txinato tabernetan.
Zozketak eta jai zoroa izango dira.
Motoen topaketa. Auzotik ibilbidea eta erakustaldiak.

- 16:00 Gazteendako jolasak. Gazte Txoko kanpoko patioan.
- 17:00 Herri kalejira.
- 17:00-20:00 Puzgarriak San Antolin ikastolan.
- 18:00 San Isidro sokatira sari nagusia
1. Bildotsa.
2. Urdaiazpikoa eta xanpain sorta.
3. Urdaiazpikoa.
4. Xanpain sorta.
- 19:00 Arrasate Musikaleko haize-egur taldearen, banda eta orkestra gaztearen kontzertua Santa Teresa elizan.
- 19:30 Buruhandiak gaiteroekin batera.
- 23:00 Euskal Herriko DJ hoberena: Oihan Vega DJa San Antolin plazan.
Bərbena San isidro eliza ondoan, KAIXO taldeak alaituta.
- Gauerdian Hainbat moda-ikuskizun auzoko pertsonaia xelebreenekin.

MAIATZAK 15, igandea (San Isidro eguna)

- 10:00 Eguzkia eta eguraldi ona.
- 10:30 Prozesioa Santa Teresa elizatik San Isidro parrokiaraino.
- 11:00 Meza Nagusia San Isidro elizan. Ondoren luntxa San Isidro elkartearen
- 11:00 -13:00 Puzgarriak San Antolin ikastolan.
- 11:30-14:00 Gimnasia erritmiko erakustaldia Musakolako kiroldegian
- 12:30 Txikiteoa, Elutxa txarangak alaituta.
- 13:00 Arrasate Musikal bandaren kontzertua Itsasondoko pasealekuan
- 14:00 Baserritarren bazkaria
- 17:30 Zementxoak San Antolin ikastolako patioan.
- 18:30 Kalejira Elutxa txarangak alaituta.
- 22:30 Azken traka Paseo Maritimoan: suzko erruberak, sorpresa ikusgarria, agurra eta amaiera.

Datorren urtera arte.

AUZOKO ARTISTEN ESKULANEN ERAKUSKETA

Ostiralean, larunbatean eta igandean, Musakolako erretiratuen egoitzako lehen solairuan, auzoko artisten eskulanen erakusketa izango da.

VIRGINIA ile apaindegia • ARIGARA iturgintza • GOI SOLUTIONS • ATSEGIN okindegia - kafetegia
EGUREN arrandegia • UDALAITZ • ILUNA taberna
IMANOL BIETEK iturgintza eta energia berriztagarriak • IOSU taberna • JEY JULIWER taberna
ESTRELLA taberna • MENETA taberna • TXINATO taberna
ZIORLA taberna • GAINDEGI jatetxea • BEBERLY taberna • MUSAKOLA estankoa
ZIORLA fruta denda • LIRAIN ile-apaindegia

Ondo pasa jaiak!

Iturritxipigaina herriari itzuli nahi dio Besaidek

Lursaila jabego publikoko bihurtzea helburu duen egitasmoa martxan du mendi elkarteak

XABI GOROSTIDI | ARRASATE

Mendiarekin lotutako hamaika ekintza antolatzeaz gain, Besaide KEk badu beste eginkizun bat: Arrasateko ondare kulturala eta naturala babestea.

Horren harira dator Iturritxipigaina herritarrei itzultzeko antolatu duten egitasmoa. Hain zuzen, Arrasate iparraldean dagoen mendixka da, Anporreatatik gertu eta Meatzerrekarekin muga eginez.

Arrazoi historikoak direla-eta, Arrasaten publikoak diren mendi inguruak urriak dira, lan-

da lurrari dagokion azalera handiena jabego pribatukoa delako.

Elkartekideen ustez, eremu pribatuetako lursailen kudeaketa etekin ekonomikoak lortzeko pentsatuta dago, eta horrek landaketa exotiko monoespezifikoak ugaritzea eragiten du. Batez ere, *radiata* pinuarenak.

Besaide elkartekoek argi daukate lursailek izaera publikoa izateak bideak zabaltzen dituela bertako balioen kontserbazioa bermatzeko eta herritarrek horretaz gozatzeko. "Horregatik, herri-

ko natur txoko interesgarriak herriari zabaldu nahi dizkiogu".

Duela bost urte Iturritxipigaineko pinuak moztu zituen lursailaren ugazabak. Pinurik gabe "pasaia paregabea" geratu zen, elkartekoen iritziz, baina ez da horrela luzaroan geratuko. Bertako jabeak pinuak landatu berri ditu. Hori jakinda, paisaia gaur egun dagoen bezala mantentzeko, lursaila-tontorraldea erosi eta jabego publikoko bihurtzeko egitasmoa jarri dute abian.

Zozketarako txartelak salgai

Diru bilketan laguntzeko, *Iturritxipigaina Herriarentzat zozketa* antolatu dute. Ternua etxearen laguntzari esker, mendiko materialarekin osatutako sorta polit bat eskuratu du zenbaki irabazleak. Tartean, ISPO Award lehiaketan saritutako Gore-Tex txaketa egongo da, eta emakumeentzako eta gizonentzako arropak ere badaude. Txartelek 2 euroko prezioa izango dute eta Besaideko egoitzan egongo dira eskuragai, astearte eta asteazkenetan, 19:30etik 20:30era. Zenbaki saritua Besaide egunean, irailaren 18an, egingo den zozketan jakinaraziko dute.

Corazon de Encinaren kultur astea, azken txanpan

X.G. | ARRASATE

Gaur, egubakoitza, saiheski-jana egingo dute, 21:30ean, eta ondoren, Javi Gil y su Grupo, Iker Alonso eta Ana Carmona eta Azahar taldeak igoko dira oholtzara. Azken hauek elkarteko flamenko taldearekin batera arituko dira.

Bihar, zapatua, tortilla txapelketarekin hasiko dute eguna, 12:00etan. 18:30ean, Raices y Brotes taldeak kontzertua eskainiko du, eta ondoren, Alegria de La Sierra taldeak eta elkarteko koru errozieroak batera jardungo dute. Amaitzeko afaria eta berbena izango dira. Domekan, txikiteo herrikoia egingo dute, 13:00etan hasita. Bazkalostean, karta txapelketen finala jokatuko dute, eta sari banaketa-rekin amaituko dute aurten-go aste kulturala.

Musakolako jaietan erakustaldia egingo dute gimnastek, etzi

Urteroko ohiturari jarraipena emanaz, domekan Dragoiko gimnasta gazteenek (5-14 urte bitartekoak) urte osoan egingako lanak erakutsiko dituzte Musakolako kiroldegian (11:30). Pelota, uztia eta sokarekin egingako dantzeta gain, Aerobikeko taldeko gazteenek ere beraien koreografiak erakutziko dituzte.

Zapatuan, berriz, amateur mailako Gipuzkoako Txapelketa jokatuko dute Ibarrran, eta bertan izango dira ordezkari arrasatearrak.

Ipuin kontaketak Arrasateko Udal Bibliotekaren eskutik

Oihana Etxegibel ipuin kontalariak bi saio eskainiko ditu Arrasaten, Udal Bibliotekak antolatuta.

Lehena maiatzaren 17an, martitzena, izango da, Santa Marinako auzo bibliotekan. 18:00etan hasiko da saioa eta hiru urtetik gorako haurrei zuzenduta egongo da.

Bigarrena maiatzaren 19an, eguna, izango da, Kulturaten. Hitzordua 18:00etan da, bost urtetik gorako haurrei zuzenduta.

Shake! taldearen kontzertua datorren asteko Kooltur saioan

Bartzelonako Shake! taldea arituko da datorren asteko Kooltur Ostegunen emanaldian. Rock-and-roll eta soul doinuak nahasten dituen taldea da.

James Brown-en eta Carla Thomas-en ahots indartsuak gogorarazten ditu abeslariaren ahotsak, eta oholtza gainean indar positiboa zabaltzen dute. Esperientziadun musikariak dira, aurretik Dr. Calypso, The Capaces, Always Drinking Marching Band eta Runnin Riot taldeetan aritutakoak.

Debaldeko autobusak Kursaal Eskura ekimenaren eskutik

Okzitaniako Tolosako orkestrak Berlioz-en *Hilen Meza handia* interpretatuko du hilaren 31n Kursaal aretoan.

Debaldeko autobus zerbitzua baliatzeko, Kursaal elkarguneko webgunean erosi beharko da sarrera, eta autobus erreserbak 943252000 telefonon edo kultura@arrasate.eus e-postaren bidez egin daitezke.

30 urtetik beherako interesdunek sarrerak 3 euroko prezioan erosi ahal izango dituzte. Abantaila hauek erreserbatzeko epea maiatzaren 26an bukatuko da.

Dribling-ek irabazi du Zaldibarko Kopa

Hasiera-hasieratik izan ziren partiduen jabe, eta 5-1 irabazi zioten Rayo Makabro taldeari

X.G. | ARRASATE

Ez zen sorpresarik izan, eta Dribling taldea nagusitu zen Zaldibarko Kopako finalean.

Partidu hasieratik bukaerara baloiaren kontrola izan zuten, eta gol aukerak bata bestearen atzetik kateatu zituzten. 3-0eko markagailuarekin heldu ziren atsedenaldira. Bigarren zatian, berriz, lehia parekatuagoa izan zen arren, partidua kontrolpean izan zuten uneoro Dribling-ekoek

eta 5-1eko emaitzarekin amaitu zen finala.

Ligako final-laurdenak

Asteburu honetan hasiko dira 2015-2016 denboraldiko final-laurdenak.

Urtean zehar erregularrenak izan diren zortzi taldeen artean erabakiko da aurtengo irabazlea, eta asteburu honetan lau talde lehiatik kanpo geratuko dira.



Zapatuko finalistak, Dribling eta Rayo Makabro, elkarrekin. | ANTOLAKUNTZA

Neurketa guztiak zapatuan jokatuko dira eta antolakuntza-koek egingo dituzte epaile lanak. 11:00etan, Abokajarro eta Betray izango dira nor baino nor gehiago; 12:00etan, Lasagabaster

eta Monte Taberna taldeek neuruko dituzte indarrak; eta 13:00etan, Dribling-en eta Sonografos-en arteko partidua jokatuko da. Azken partidua 17:00etan hasiko da: Aldatz-Olympiakojos.

Kontzertuz beteta dator aurten Arrasate Musikalen udaberriko ziklo musikala

Maiatzetik uztailera bitartean 26 kontzertu eskainiko dituzte musika ikasleek

X.G. | ARRASATE

Aurtengo Arrasate Musikaleko udaberriko ziklo musikala emaldiz beteta dator. Hain zuzen, 26 kontzertu eskainiko dituzte Arrasate Musikalen dabiltzan ikasleek, maiatzetik uztailera.

Emusik-ekin hasiera

Pasa den asteburuan, Donostia 2016k antolatutako Emusik jaialdiarekin eman zioten hasiera udaberriko zikloari. Bertan, Arrasate Musikaleko ikasleek Europako beste musika eskola batzuetako ikasleekin bi kontzertu

eskaini zituzten. Atzo, Musika Eskolan bertan.

Bi saio Zigorrolan

Atzo ikasleen arteko *jam session* bat egin ondoren, bi kontzertu eskainiko dituzte Zigorrolako jaien baitan.

Lehena Santa Teresa elizan joko dute, zapatuan, 19:00etan. Orkestra Gaztekoek, Banda Gaztekoek eta haize-egur taldekoek euren trebetasunak plazaratuko dituzte, eta, guztira, 80 ikasle arituko dira. Bigarren hitzordua domeka eguerdian izango da, San

Isidro eliza kanpoan. 13:00etan hasita, Arrasate Musikaleko Banda igoko da oholtza gainera. Saio entzungarria eta atsegina eskainiko dute eta, besteak beste, Francisco Alegre, Movie Spectaculars, Manbo Jambo eta Grease-ren doinuak joko dituzte.

Maiatzean beste lau hitzordu gehiago izango dira. Hilaren 19an, *jam session* bat egingo dute Kajoi tabernan, eta maiatzaren 25ean gitarra kontzertua izango da eskolan bertan. Hurrengo egunean perkusio ikasleen txanda izango da, eta ostean, flauta eta akordeoi

kontzertua eskainiko dute Kulturaten, maiatzaren 27an.

Ekainean hamar saio

Ekaina da kontzertu gehien antolatu dituzten hilabetea. Ekainaren 6tik 17ra bitartean hamar saio izango dira, gehienak instrumentuka banatuta. Instrumentu bakoitzeko ikasleek ikasitakoa erakusteko saio indibiduala egingo dute. Hala, biolin, piano, klarinete, saxofoi, gaita, tronpa eta kantu kontzertuak prestatu dituzte. Tartean izango da familien arteko kontzertua ere. Ekainaren 10ean izango da, Kulturaten.

Ekaineko ekitaldi nagusia kurtso amaierako emanaldia izango da. Bertan saio berezia eskainiko dute ikasle guztien artean. Ekainaren 17an izango da, Amaia Udal Antzokian.

Iritsi da Bitorianatxori ongietorria emateko eguna bergararrendako

- Gaur hasi eta bost egunez jai giroa izango da nagusi Bergaran
- Eguraldi txarra iragarri dutenez, zenbait ekintza tokiz aldatuko dira

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Iritsi da bergararrek luzaroan itxarondako eguna: maiatzaren 13a, Pentekoste jaien hasiera eguna. 20:00etan jaurtiko du txupina Atzegiko kide Gorka Rementeriak, eta jarraian, Bitorianatxo udaletxeko balkoiraino jaitsiko da, bost egunez herrira jai giroa ekartzera. Beste behin ere, Blanca Narbaizak egingo du Bitorianatxoren papera, eta jaietako pregoia botako du balkoitik.

Batzuk, baina, Bitorianatxori aurreratuko zaizkie, eta, azken urteetan bezala, ikasle bazkaria egingo dute txosnetan. Gero, elektrotxarangak berotuko du giroa. 20:30ean irekiko dute txosnagunea, Bitorianatxoren jaietsieraren ostean, hain zuzen.

Denetariako ikuskizunak

Kultura hitzordu ugari izango da egunotan. Nabarmentzekoen artean, Aukeran dantza-taldearen *Fusioak* ikuskizuna, domekan. Baita ere bihar, zapatua, arratsaldean Bideberriko txosnagunean izango den bertso-tribiala. Ane Labakak, Malen Amenabarrek, Oihana Iguaranek eta Kopla Barik bertso eskolako kideek hartuko dute parte. Film laburren lehiaketara aurkeztutako lanen emanaldia ere itzuliko da aurten. Domekan, 22:30ean, txosnagunean.

Zapatu goizean Bearteko artista gazteen plastika sariketa izango da, betiko lez. Horretaz gain, denetariako ikuskizunak izango dira. Musikari dagokionez ere eskaintza zabala izango da, txosnagunean zein plazan (ikus 32. orrialdea).

Kirola eta bigantxak

Kirol ikuskizunik ere ez da faltako aurten. Nabarmentzekoen artean, iaz arrakasta handia izan zuen *Dirt Jump* eta trialsin erakustaldia berriro izango da aurten. Zapatu arratsaldean, Mariaren Lagundiko jolastokian.



Maite Agirre jaietako zinegotzia, Blanca Narbaiza, Bitorianatxo eta Gorka Rementeria. | AMAIA TXINTXURRETA

Herri kirolen zaleek hitzordua dute martitzen eguerdian San Martin plazan. Puntako aizkolari, harri jasotzaile eta txinga eramaileak izango dira.

Nola ez, urteroko txirrindularitza, pilota eta goitibehera hitzorduek ere ez dira faltako (ikus 17. eta 29. orrialdeak).

Seminarioko zezen plazan ere ekintza ugari izango da: bigantxak, errekortadore ikuskizuna, errekortadore eskola ibiltaria...

Kantua eta bideoa

Soinu banda eta guzti izango dute aurtengo jaiek. Asteon aurkeztu dute Bizilariak taldearen eskutik *Xolomo gazta* abestia, jaietan herriari "su" emateko gonbidapena egiten duena.

Bestalde, Martxantera talde feministak egun hauetarako propio egindako bideo bat aurkeztu du, Bitorianatxo protagonista duena. Saloura oportetara doal dio, jarrera sexistez higuinduta. Hala, jai parekideen aldeko aldarria zabaldu nahi izan dute.

Gune aldaketak euriagatik

Eguraldi txarra iragarrita dagoe-la eta, egitarauan jasotako hainbat ekintza tokiz aldatuko dira. Hala, gaur iluntzeko ume eta gurasoen parrillada eta Mugi-Mugi erromeria Seminarioko karpan egingo dira, Oxirondon egin ordez.

Biharko, berriz, zapatua, erraldioen gunea Munibe plazatik Udal Pilotalekura aldatu dute, eta ekintza guztiak han egingo dira. Gauean, berriz, Kepa Junkera eta Sorginak taldearen kontzertua San Martin plazan mantenduko da, euri pixka bat egin arren.

Bukatzeko, asteleheneko herri bazkaria Seminarioko karpapean egingo da, San Martin plazan beharrean.

Autobus zerbitzua

Asteburu honetan, inguruko herrietatik Bergarara joan-etorria egiteko, gaueko autobus zerbitzu berezia jarri dute.

Egubakoitzean, Eibar-Soraluze-Bergara-Arrasate-Aretxabaleta-Eskoriatza ibilbidea izango

duen autobusa izango da, eta hainbat joan-etorri egingo ditu gauean zehar. Bestalde, Antzuola-Bergara-Elgeta ibilbidea burutuko duen autobusa ere izango da; kasu horretan, egubakoitzean zein zapatuan.

Era berean, jaiek iraun bitartean hiru autobus geroak kendu egingo dira, gaur arratsaldeko lauretatik aurrera. Eibarrerako norabidean dauden BBVako eta Santa Marinako geroak eta Arrasaterako norabidean dagoen Santa Marinakoan ez dute geldialdirik egingo Pesako eta Lurraldebusko autobusek.

Bitorianatxoren igoera

Aurten ohi baino goizago egingo du Bitorianatxok Seminarioko teilatura buelta. Izan ere, erabaki dute 20:00etan egitea jaien agurra, eta ez gauean, ohi moduan. Plazan jende gehiago batu nahi lukete horrela. Igoera goizago izango den arren, baina, musikak eta jai giroak jarraitu egingo du plazan.

NIRE USTEZ

IGOR OIARBIDE



Hezkuntza eta enpresa sorkuntza

Hezkuntza sistematik enpresa sorkuntza bultzatzea ezinbestekoa da lanpostuak hobetzeko eta aberastasuna sortzeko. Europa ez dago errealitate honetatik at. Badaude Danimarka eta Suedia bezalako herrialdeak, luze eta zabala, bere hezkuntza curriculumean txertatu dutenak. Beste batzuk, Espainia barne, oraindik oinutsik daude gai honetan.

Usadiozko hezkuntza, oro har, informazioaren transmisioan oinarritu da. Memorizazio ahalmena garatu behar den zerbait da, baina informazioa gero eta eskuragarriago dago Interneten. Hori dela eta, hezkuntza hartzen ari den norabidea teknologia erabiltzeko trebetasuna hobetzea eta honela baliabideak era autonomoan biltzea da.

Hau nahikoa al da? Egia esan, ez. Sormena eta enpresa-sorkuntza sustatzeko, ikaslea kontzeptu horiekin ohitu behar da, beraiekiko erakarpena sortu. Sormenaren sustapenak modu bereizgarrian pentsatzen laguntzen du, aldez, berrikuntzaren sustapenak ideia horiek praktikan jartzeko aukera eman behar du.

Proiektu zehatzak alde batera utzita, iraunkortasun, erantzukizun, ideiak komunikatzeko gaitasuna, e.a. bezalako aspektuak arruntak dira enpresa sorkuntzan. Horregatik horiek azpimarratu eta adin goiztiarretan enpresa-errealitatearekin lotzea funtsezkoa da gazteek trebetasun/jarrera gehiago izan ditzaten euren proiektuak martxan jartzeari begira. Niri neroni ilusioa egiten dit pentsatzeak hezkuntzako arlo guztietan gai honen inplementazio azkar batean eta apurka-apurka gizartean eta ekonomian izango duen talkan.



Ondo pasau jaixetan!

Masterreka, 10 · BERGARA
Tel.: 943 76 16 63

Santa Ana 11 · ELGOIBAR
Tel.: 943 74 10 11

AITONAK

TABERNA
(Jubilatuena etxea)

Bazkariak
Afariak
Ospakizunak
Kintadak

ETOR ZAITEZ!
08:00etatik 21:00etara zabalik!

Tel.: 628 443486
Boni laskurain, 9 behea
BERGARA



Iturgintza - Berokuntza

Ondo pasau jaixak!

Laskurain

- Energia berriztagarriak (biomasa, aerotermia, solarra,...)
- Kalefakzioak (lur-radiantea, radiadoreak,...)
- Minusbaliarako adaptazioak
- Altxariak, manparak, osagarriak, iturriak, ...

Barrenkalea 44 • Tel.: 943 76 24 89



Espoloiak gero ere kioskoa izango duela iragarri du Udalak

Astean bota dute hango bereizgarri izan den egitura

JULEN IRIONDO | BERGARA

Esploroirako aurreproiektuan "pieza bat, bai edo bai", kioskoa dela azaldu du Elena Lete alkatetik, orain artekoaren egoera txarrak bultzatuta presaz botatzea erabaki eta horren gainean azalpenak emateko egindako adierazpenetan: "Oraindik proiektua

ez dago garatuta, inguru osoko aurre-lan bat besterik ez dauka-gu, baina lan horien ondorio bat izango da kioskoa, bai".

Udala Espoloiko jolasparkea, kioskoa eta urbanizazioa berraztertzeko prozesuan murgilduta dela ohartu dira kioskoa bota beharraz. Ezinbestekoa izan dela

azaldu du alkateak, "segurtasunagatik"; hala egiaztatu zutela bai inguruaren azterketa egiten ari diren teknikariek eta baita Udaleko langileek ere: "Denok dakigun modura, egoera txarrean zegoen. Hamalau urte daramatza edo itxita edo erabiltzen txikiarekin. Eta azken hilabete honetan

egindako lanaren ondorioz ikusi dugu ezin dela mantendu: hormigoizko egitura oso egoera txarrean dago, eta baita burdina ere, bai ikusten dena eta baita azpiko egitura ere. Egitura asko mugitzen da, hormigoizko zutabeek ez dute lan egiten, eta burdinazkoek hala nola"; egituraren "eusteko gaitasuna" –adibidez, Musika Banda eustekoa– bermatuta ez zegoela gaineratu du alkateak.

XX. mendeko lehen erdikoa

Kioskoaren beheko zatia 1924an egin zuten, eta 26 urte geroago, 1950ean, jarri zizkioten zutabeak eta teilatua, Raimundo Enekotegik burututako proiektuarekin. Herritar askorentzat leku esanguratsua izan da urte hauetan guztietan, eta penaz hartu dute kioskoa bota beharra. Horren jakitun, Udalak gorde egin ditu kioskoaren hesiak, inguruan beste nonbaiten jartzeko; horrez gain, "oso-oso ondo osatutako dokumentazio grafikoa" gordeko dute artxiboan, ezagutzeko nola-ko kioskoa zuen Espoloiak eta bere jatorria zein zen.

Aurtengo jaietako Musika Bandaren kontzertua, beraz, Espo-
loian bai baina han inguruan
jarriko duten agertoki batean
egingo dute. Aurrera begira,
berriz, lekurako proiektua defi-
niztearekin batera, Udalak ira-
garri du "partaidetza prozesu
bat" ere jarriko duela martxan
datozen hilabeteetan herritar eta
eragileekin, "gune horretako era-
bilerak zehazteko".

Hitzarmena sinatu du Udalak Bergarako Erraldoi Taldearekin

Alde batetik, materiala gordetzeko lokalen eta, bestetik, konpartsaren ekitntzen gaineko –jaietako parte-hartzea, adibidez– konpromisoak bezalakoak jasotzen ditu hitzarmenak. Alkatearen arabera, "elkarrekin lan egiteko borondatea" erakusten du akordioak.

Posta bidezko botorako azalpenak PSE-EEren egoitzan

Ekainaren 26ko hauteskundeei begira, tramitazioan laguntzeko zerbitzua jarri du PSE-EEk: astelehenetik egubakoitzera, 11:00etatik 13:00etara eta 17:30etik 20:00etara, ekainaren 16ra arte.

Ondasun higiezin gaineko zerga ordaintzeko sasoia

Uztailaren 6ra artekoa da borondatezko epea, eta hura amaitzean exekutibakoa, errekarguaz. Ordainketak helbideratuta ez dituztenek agiria etxean jasoko dute –hil amaiera aurretik–, eta banketxean edo udaletxean ordaindu beharko dute.

Etor zaitez gure ile-apaindegi berria ezaqutzero!

Inaugurazio ekitaldia:
Maiatzaren 14an, zapatua,
19:00etatik aurrera

Gonbidatuta zaude!



Ibargarai 48 - BERGARA
Tel.: 943 76 22 48

Oxirondoko azoka gertutik ezagutu dute neska-mutikoek

Ikastetxeetatik irteera egin zuten atzo, eta taldeka erosketak egin zituzten

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Mugimendu handia izan zen atzo goizean zehar Oxirondoko azokan. Erosleak, gainera, inoiz baino gazteagoak. Izan ere, herriko hiru ikastetxeetako neska-mutikoek azoka bisitatu zuten, gunea bera eta bertako saltzaile eta ekoizleak gertuagotik ezagutzeko. Goiz osoan zehar, San Martin herri eskolako, Aranzadi ikastolako eta Mariaren Lagundiko hamabost talde pasatu ziren azokatik.

Ohiko postuez gain, inguruko baserritarrak ere izan ziren azokan euren produktuak erakusten eta ume eta gaztetxoei euren lanari buruzko azalpenak ematen.

Iaz egin zen lehen aldiz umeak azokara eramatearen ekimen hau, eta ikastetxeen aldetik balorazio "oso positiboa" izan duela azaldu dute Udaletik. Ekintza hau *Azoka bergararren* egitasmoaren baitan kokatzen da.

Erosketak modu desberdinean

Umeei azokako bonuak banatu zizkieten, eta horiek talde bakoitzak hoge euroko erosketa egin zuten, denen artean aukeratutako produktuak hartuta. Ateratzear, erositakoarekin hamarretakotxo egiteko aprobetxatu zuten. Erositako jakiak "merkeak eta gozoak"



Neska-mutikoak azokako postuetan, zer erosi erabakitzen. | MAITE TXINTXURRETA

izan zirela aitortu zuten neska-mutikoek.

"Ikasle askok ez zuten azoka ezagutzen", azaldu du Larraitx Berraondok, Mariaren Lagundiko irakasleak. "Ea etxeko gurasoei ere bultzada ematen diegun eta azokara gerturatzea lortzen dugun", gaineratu du.

"Ekimen polita eta umeendako interesgarria" dela uste du atzo postua jarri zuen Carmen Etxeberria baserritarrak. "Umeek ikasi egiten dute ze barazki dau-den, ze produktu ditugun..."

Angiozartik etorritako Arturo Garitano neska-mutikoei bere

baserrian egindako sagar-zukua banatzen aritu zen. Umeei asko gustatu zitzairen, eta "freskagarriak baino hobea" zegoela aitortu zuten batek baino gehiagok.

Eguazteneko azoka

Eguaztenean, hilak 18, beste aste batez, baserritarren azoka izango da Oxirondon. Bertako eta sasoiko produktuak erosteko aukera izango da, 18:00etatik aurrera. Oraingoan, Kortazar tabernak eskainiko du pintxo-potea, eta Musika Eskolako trikiti eta perkusio ikasleak arduratuko dira giroa alaitzeaz.

Iñaki Irizar | Laboratorium museoko teknikaria

"1.200 animalia baino gehiago gordetzen ditugu museoan"

M.T. | BERGARA

Museoen Nazioarteko Eguna da hilaren 18a, eta Laboratoriumen Zoologia biltegi bisitak antolatutako. Zlean, berriz, *geocaching* ikastaroa izango da.

Zer dago Zoologia biltegiaren?

Errege Mintegiako bildumak eta ale berriak. Guztira, 1.200dik gora animalia. Hiru biltegi dau-de, eta bat erakutsiko dugu.

Zein nabarmenduko zenuke?

Ikusgarrienak hartza edo tigrea bezalako animalia handiak dira (XIX. mendean Mintegiak erosiak). Beste asko ere interesgarriak dira, arraroak edo desagertzen arriskuan daudenak: bisoi europarra, muturluze piriniarra, hegazti tropikalak...

Zer da geocaching-a?



Iñaki Irizar. | GOIENA

Naturako aisialdi jarduerak da, GPS hargailu bat behar duena. Koordenatu batzuk ezagututa (Internetetik eskuratzen dira), ezkutututako *cache* edo altxor bat bilatzea da.

Ze altxor ezkututuko duzue?

Bergara beste era batera ikusten lagunduko diguten altxorrak.

Eguaztenera arte aurkeztu daitezke lanak Bergara Hirira

Hilaren 18ra arte aurkez daitezke lanak 32. Bergara Hiria argazki lehiaketara. Gaia librea da, modalitatea ere bai, eta Euskadin bizi den edozein afizionatuk har dezake parte. Lanak udaletxera eraman edo bidali behar dira, 40x50 cm-ko kartoi mehean. Argibideak: 943763090 (Benito).

Zabalik dago Musika eta Dantza Eskolako matrikulazioa

Zabalik dago 2026-2017 ikasturterako matrikulazioa ekainaren 15era arte. Idazkaritzan 15:30etatik 19:30era. Telefonoa: 943765780. Suzuki metodoa, musika eta mugimendu tailerra, euskal dantzak, hizkuntza musikala, musikoterapia, ahotsa eta instrumentuen ikasketak eskaintzen dituzte.

Gaztetxoei bertsoetarako trebetasuna erakutsi dute



San Martin herri eskolako neska-mutikoen emanaldia. | MAITE TXINTXURRETA

M.T. | BERGARA

Emanaldi polita eskaini zuten eguaztenean herriko neska-mutikoek Udal Pilotalekuan, *Gu ere bertsoan* proiektuaren baitan. Guraso, familiarreko eta lagun ugari batu ziren harmailetan gaztetxoak bertsoan ikusteko.

Emanaldian herriko hiru ikastetxeetako hamar eta hamabi urte bitarteko 180 ikasle hartu zuten part, eta gai desberdinen inguruan aurrez prestatutako bertsoak abestu zituzten taldean.

Bertsozale elkarteak bultzatutako egitasmoa da *Gu ere bertsoan*. Ikasturtean zehar bertsolaritza eta ahozketasuna landu dituzte material eta metodologia zehatza erabiliz eta bertsolari ezagunen laguntzarekin. Emaizta ona eguaztenean ikusi zen.



MARIAREN LAGUNDIA IKASTOLA

Kultur astean, mundutik gertu

Kultur astea ospatu dugu asteon Mariaren Lagundia ikastetxean, *Mundutik gertu, gertu mundura* lelopean. Irakurzaletasunaren eta ahozketasunaren bidez elkar eragin eta "elkarbizitza positiboa" eraikitzen ikasi dugu. Gaur, Santa Juana eguna ospatuz bukatuko dugu.

KOMUNITATEA GOIENA
MARIAREN LAGUNDIA IKASTOLA

MIGUEL ALTUNA L.H.I.I

AURREMATRIKULAK: Ekainaren 6-tik 17-ra

Ordutegia:
08:00etatik — 14:30era
15:30etik — 18:30era
(Ostiraletan goizez bakarrik).

Ibargarai
 20570 Bergara
 943763840
 943 762 491

www.imaltuna.com
imaltuna@saremail.com

Zubizarreta-Aranguren izango dira Salaberria-Zezeagaren aurkari finalean

Nagusietan, Urretabizkaia-Murgiondo dira Bergara Hiriko beste finalistak

JULEN IRIONDO | BERGARA

Astelehenean, 19:30ean, jokatuko dira Bergara Hiria pilota txapelketako finalak. Ordezkarri bergararra izango da promesa mailan -Zezeaga-, eta nagusietan Santxok eta Gorrotxategik ere martitzenean ezagutu zituzten kontrarioak.

Aste honetako finalerdietan, promesa mailan, 18-22 irabazi zieten Zubizarretak eta Arangurenak Ansori eta Eskirozi. Markagailuari dagokionez hasiera parekatuaren eta 10nako berdinketaren ostean, 17-10 eta 18-12 joan ziren aurretik gero galtzaille izango zirenak.

Ondo jokatzen ari ziren gorriak, eta eurek egindakoak zituzten tanto gehienak, 14, urdinek ez zuten-eta oparirik egiten; Zubizarretari, hori bai, kosta egin zitzaion tantoak amaitzea. Egiteaz gain, baina, gorriek galdu ere tanto nahikotxo egin zituzten, eta hortik etorri zen euren



Josu Zezeaga, txapelketan. | X. URZELAI

porrota. 12tik 22ra joan ziren zuzenean urdinak.

Nagusietan, 16 tanto egin zizkieten Labakak eta Arratibelek Urretabizkaia eta Murgiondori. Kasu honetan ere, bi bikoteak parean iritsi ziren partidu erdira, baina bederatzi tantoko takadarekin 20.era joan ziren urdinak; gorriek aldea murriztu baino

ezin izan zuten egin azken txanpan. Hamahiru egin eta zortzi galdu zituzten urdinek, eta zortzi egin eta bederatzi galdu gorriek. Murgiondo izan zen laukoteko onena.

Herriartekoa eta Udaberrikoa

Bergara Hiria txapelketako finalen aurretik, baina, gaur bertan ere bada partidurik Udal pilotalekuan. 18:00etan hasita jokatuko da alebin mailako Udaberri txapelketako lehia, Etxeberria eta Pereira, Aretxabaletako bikotearen kontra. 19:30ean, berriz, Herriartekoa, Lasarteren aurka ko kanporaketako itzulerako partiduak.

Etxekoei dagokienez, kadeetetan jokatuko dute Roigek eta Etxanizek; gazteetan, Zubizarretak eta Oterminek; eta nagusietan, Muguruzak eta Diezek. Joanekean 1-2 nagusitu zen Bergara (19-22, 9-22 eta 22-19).

Edu Orgaz | Entrenatzailea

"Defentsan nahikotxo hobetzea lortu dugu"

Nagusien eskubaloit taldeak mailari eutsi dio proiektu berriaren lehen denboraldian

J.I. | BERGARA

Taldea ia erabat berritu beharrean aurkitu, eta Euskadiko Txapelketari muzin egin zion Bergarak; hala ere, zaila izan da denboraldia. Hurrengorako, "joko-idea sendotzen jarraitzea" izango da asmoa, eta emaitzetan isla dadila.

Mailari eutsita, pozik.

Bai, helburua beteta.

Emaitzei dagokienez izango zen hori helburua; baina proiektu berri baten hasiera izanda, beste helburu batzuk ere bazenituzten: eta horiek zer?

Denboraldia, lehenengo, izan da zaila, gogorra. Oso epe luze ko lesioak izan ditugu, lauzpabost; eta gainera suerte txarrekoak: kolpe bat, edo norbait gainera jausi, edo lesio bat izan eta jakin ez... Eta beste jokalaria bat Erasmusera joan zen. Genuen talde bat astebururo jokalariai aukeratu eta hiruzpalau kanpoan utzi behar izateko, eta, aldiz, atzeratu egin behar izan ditugu bi partidu, jende barik geundelako. Zoraituta ibili gara apur bat. Orduan, jarraikortasuna falta izan da, kalitatezko entrenamenduak ere bai, jende faltagatik.

Dena dela, iaz hainbatek utzi eta aurten jende gaztearekin hasi eta gero, taldea gorpuztu eta kategoriara egokitzeko helburu horietan zenbateraino aurreratu ahal izan duzue?

Asmoa zen formazioan jarrai-



Edu Orgaz. | JULEN IRIONDO

tzea. Iaz, jubenilak izanda Gipuzkoako Bigarren Mailan jokatu genuen, eta zen hemendik bizpahiru urterako proiektua. Entrenamenduak emaitzetan oinarritu beharrean, formazioan oinarritzen egon gara. Eta uste dut nahikoa ondo joan dela. Defentsa sistema asko sendotu dugu, eta erasoan oso joko taktikoa egin: jokaldirik-eta ez genuen, formazio orokor bat ematea izan da asmoa.

Eta bilakaerarik ikusi duzu?

Bai. Defentsan nahikotxo hobetu dugu, eta erasoan ez hainbeste, baina nahikoa ondo ibili gara, izan ditugun arazo denekin. Ezin izan duguna egin izan da aurrera pauso bat eman bigarren itzulian. Gure aurretik zeuden taldeen kontra partiduren bat irabazi nahi genuen, eta ez dugu lortu. Lehiatu egin dugu, eta partidu zati onak egin ditugu bigarren itzulian, baina urrats hori ez dugu egin.

Gorlako lehen hiru bergararrak

Herriko lehen hirurek ere saria jaso zuten aurreko asteko lgoeran. Lasterketa bera ere irabazi zuen Aitor Zabaletari Markel Cestafek eta Iñigo Lizarraldekin egin zioten lagun bergararren sailkapenean [argazkian, kopilotuekin].



OIHANA ELORTZA

Beti Busti ondo eskolartekoan



BETI BUSTI

Etxean jokatu zen txapelketa aurreko asteburuan, eta infantilen artean Oier Villar bigarren izan zen; alebinetan, berriz, Alex Zabaletak lehenengo postua lortu zuen, eta Aitor Urtzelaik bigarrena.

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA



ZARE
FRUTA-DENDA

Irizar Pasealekua 3 - Tel.: 943 76 38 83

Ondo pasau jaixak!



Aitor Zabaleta
Tel.: **606 58 18 10**
www.txipi.com

Amillaga 5, beheka - BERGARA



Jaengo herritarrak Oñatiko unibertsitatea ikusten 2014ko abuztuan. | O.E.

Kanadarrak eta korearrak ere ikusiko ditugu Oñatin

Turismo bide berriak irekitzeko pausoak ematen hasita dago Oñatiko Udala

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Turismoak badu pisua Oñatin eta datuek diote gero eta bisitari gehiago etortzen direla Oñati ikustera. Aurtengo Aste Santuan, adibidez, joan den urtean baino %22 gehiago etorri ziren. Bada, turismo bide berriak irekitzeko pausoak ematen hasita dago Oñatiko Udala.

Katalunia

Bide horietako bat da *Meet Basque Country* programan parte hartu izana. Basquetour Euskadiko turismo agentziaren eskutik, Oinatur kooperatiba ere azoka horretan egon da, Oñatiren eskaintza zabaltzen. "Kanadako eta Koreako bidaia agentzia batzuei, esaterako, gustatu zaie Oñatik dituen aukera turistikoak eta

euren bidaietan eskaintzeko prest agertu dira", adierazi du Ana Martinek, udaleko sozioekonomia batzordeburua. Eta gaineratu du: "Horrekin batera, hasi gara turismo eredu berriak eskaintzen, adibidez, Kataluniako agentziei bisita gidatuak euren hizkuntzan eskainiz eta *Oñati denontzat* bisitak bultzatuz eta agentzia espezifikoak erakarrit". Horrez gain, Geoaiizkorri, Inaziotar Bidea eta Lurpea proiektuetan ere parte hartu du herriko turismo sailak, baita Covatour kongresuan ere, besteak beste.

Natura

Oñatira datozen turisten artean familiak dira asko eta horiek ere kontuan hartu gura dituzte. Hala, euren zuzendutako eskaintza ere

prestatzen ari da udala eta Arrikrutz Kobak, herriguneko erai-kinak eta txokolatearen interpretazio zentroa eskaintzeaz gain, naturarekin lotura duten aukerak ere prestatu gura ditu, hala nola familian egin daitezkeen irteerak. Horri lotuta, natura baliabideak ematen duten aukerak aprobe-txatu gura ditu Udala, San Martin auzoko autokarabana gunea eta Arrikrutzeko Kobetako espeleoabentura bisitek izaten duten arrakasta kontuan hartuz.

Turistek herrian uzten duten diru kopuruari buruz, Martinek esan du hori ez dagoela zehaztuta, "baina kalkulatzeko atzerri-tik datorren bisitariak egunero 74 eta 55 euro bitarte gastatzen dituela eta Estatukoak, batez beste, 55".

Ekainaren 18an ospatuko da aurtengo Fan Hemendik eguna, ekintzaz beteta

E.A / M.A | OÑATI

Ekainaren 18a da Guardia Zibilak herritik alde egin dezan eskatzeko egingo den Fan Hemendik eguna. Astean egin dute egunaren nondik norakoan aurkezpene eta egun guztian zehar askotariko ekitaldiak egingo dira. Besteak beste, trikipotea, elektrotzaranga, bazkaria, manifestazioa eta kontzertuak. Bazkarirako sarrerak 10 eurotan eskuratu ahalko dira

Boga, Arrano eta Ona tabernetan; ekainaren 11tik aurrera bi euro garestituko dira horiek. Langabe zein ikasleek sei eurotan erosi ahalko dituzte.

Ekarpenak jaso guran

Antolatzaileek, bestetik, herritarren ekarpenak entzun eta jaso gura dituzte eta horiei dei egin diete eguaztenero 19:00etan gaztetxean egiten duten bilera-ra ager daitezzen.



Martitzenean egindako prentsa agerraldia. | ENENKO AZURMENDI



MIREIA BIKUNA

25 urte bete ditu Oñati Irratiak

Oñati Irratiak 25 urte bete ditu maiatzaren 11n, eta, urteurren hori ospatzeko, tramankulu guztiak hartu eta udal eraikin ezberdinetatik egin dituzte aste honetako irratsaioak. Eguaztenean, esaterako, gaztelekutik emititu zuten eta gaur, Zubikoa kiroldegitik. Zorionak!

Ekaineko hauteskundeetarako posta bidezko botoa emateko bulegoa zabaldu du EAJk batzokian

Oñatiko EAJko Uri Buru Batzarrak jakinarazi du datorren ekainaren 26an egingo diren Kongresurako eta Senaturako hauteskunde orokorretarako posta bidezko botoa egiteko bulegoa irekita dutela batzokian. Batzokiko bulegoa astelehenetik egubakoitzera egongo da irekita, 11:30etik 12:30era eta 18:00etatik 19:00etara. Posta bidezko botoa emateko azken eguna ekainaren 16a da. Nortasun agiria eraman behar da botoa eskatzeko. Edozein argibidetarako, hauxe telefono zenbakia: 943 78 01 17.

Garbiñe Biurrun eta Gemma Zabaleta etorriko dira martitzenean, Erain Debagoienak gonbidatuta

Martitzenean, maiatzak 17, Garbiñe Biurrun epailea eta Gemma Zabaleta politikari ohia izango dira Oñatin. Erabakitze esku-bidearen aldeko mahai inguru baten hartuko dute parte biek, Erain Debagoienako Oñatiko taldeak gonbidatuta. Ekitaldia 19:30ean izango da, Santa Anan. Bestalde, gaur, egubakoitza, Erain Debagoienak antolatutako bailara mailako mus txapelketako Oñatiko kanporaketak jokatu dira, Boga tabernan, 22:00etan. Finala Aretxabaletan izango da maiatzaren 21ean.

Gazte edo haurren sustapenerako diru laguntza eskaera epea zabalik

M.A | OÑATI

Maiatzaren 9an argitaratu da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ekainaren 8ra arte egongo da diru laguntza eskaera egiteko aukera. Laguntzak irabazi asmorik gabeko Oñatiko erakunde, talde edo norbanakoek eskatu ahal izango dituzte gazte eta haurren mailako proiektuak aurrera eraman ahal izateko. Hiru atale-tan banatuko dira: elkarleen sustapena, batetik, kultur sormen eta hedapena, bestetik, eta, azkenik, ezohiko jarduerak.

Kultur sormen eta hedapenagatik eskatuko diren diru laguntzen kasuan, deialdi beraren barruan eskaera egiteko bigarren

epe bat egongo da. Urriaren 15etik azaroaren 4ra bitartekoa.

Diru laguntzak ematerakoan kontuan hartuko dira, besteak beste, jardura edo egitarauaren kalitatea, ekintza kopurua, proposatzen den ekintzak herriko giza-kultur mugimendua sustatzen laguntzea, baita euskararen erabilpena sustatu eta genero ikuspegia txertatzea ere. Kultur sormena eta hedapenaren alorrean sartuko dira kultura eta arteen arloan egindako proiektuak; esaterako, maketen grabaketa eta edizioa, komiki, fanzine edo bes-telako kultur argitalpenen edizioa, edo antzezlanen edota ikus-entzunezko lanen produkzioa.

Nekazarien Elkartean pintxoak emango dituzte

O.E. | OÑATI

San Isidro eguna ospatuko dute bihar, zapatua, Nekazarien Elkartean, eta *Isidro pote* ekimena egingo dute lehenengo aldiz. 19:00etatik 21:00etara bitartean elkarteko ateak zabalik egongo dira edozein herritarrendako eta barrura sartzen direnek pintxoak eta edaria prezio berezian hartzeko aukera izango dute. Trikitilariak egongo dira giroa animatzen. Horren ondoren, elkarteko bazkideek urteroko afaria egingo dute baserritarren zaindariaren, San Isidoren, omenez.



Kortabarria, Santa Ana komentuan, San Migelen jantziarekin. | BERNAT ALBERDI

San Migelen jantzia, Kortabarriaren neurrira egokituta

San Migel Aozarazaren irudia eraberritu dute prozesiorako; Burgosen zaharberritu dute

MIREN ARREGI | OÑATI

Maiatzaren 26an da aurtengo Corpus Cristi eguna eta hala, hilaren 29an, domekan, ospatuko da Oñatin prozesioa. Aurtengoan ere bada berritasunik; izan ere, Julen Kortabarriak eroango du, lehenengoz, San Migel Goiaingeruaren jantzia soinean. Bada, asteen egin dute Santa Ana komen-

tuan jantziaren azken proba, eta ordutik, dena gertu dago San Migel Goiaingerua apostolu eta gainerako irudiez lagunduta prozesioan irten dadin. Apostoluen, Jesusen eta San Migel Goiaingeruaren maskarak eta jantziak Santa Anako mojek zaintzen dituzte urtean zehar eta hilabeteren faltan, hasiak dira kofra-

diako kideak, mojak, ile-apaintzaile eta gainerakoak, maiatzaren 29an dena txukun eta gertu egon dadin lanean. Iaz Ibai Gonzalezek eraman zuen San Migelen jantzia soinean eta aurtan Kortabarriak jantziko duenez, bere neurrira egokitu behar izan dute armadura. Hori eginda, San Migelen pausoa eta buelta ezaguna etxean entseatuko ditu.

San Migel Aozaraza berritua

Beste berritasunik ere izango da aurtengo prozesioan. Izan ere, San Migel Aozarazaren irudia eraberritu berri dute. Asteburuan iritsiko da Burgostik, bertan egon baita errestitazio tailer baten. Burgosen, pisua kendu diote irudiari, izan ere, oso pisutsua zen, eta ez hori bakarrik, aurpegia ere berritu diote. "Beste irudi bat emango du", adierazi dute kofradiako kideek.

NIRE USTEZ

ANDONI GARTZIA



Merkatua babesteko neurriak

Txinari merkatuaren ekonomia estatua ematea ari da aztertzen Europako Batzordea, behin *dumping*-aren aurkako egungo neurriak bukatuta, 2016aren amaieran.

Egun, Europar Batasunak ez du ikusten Txina merkatuko ekonomia bat moduan, horrelako merkatu batek bete behar dituen oinarritzko bost baldintzak betetzen ez dituelako. Bost arau tekniko horiek neurtzen dute, besteak beste, herri batek bere esportazioen prezioak distortsionatzen dituen edo ez.

Europako merkatuaren babes neurriak ezinbestekoak dira. Lana eta aberastasuna sortzeko esparru seguru bat bermatzen dute sektore askotan, adibidez, metalgintza, papera, automotziorako osagaiak, oihalgintza, energia berriztagarriak, bizikletak, altzariak edo kristala.

Merkatu ekonomiaren estatusak esan gura du Txina bezalako herrialde esportatzaile batek ez edukitzea *dumping*-aren aurkako neurriak. Txinak jarraitzen du bere ekonomia distortsionatzen eta baldintzatzen, beraz, inolaz ere ezin da onartu merkatu ekonomia bezala.

Txina merkatu ekonomia bat hartzeko presazko uste batek ekarriko du europar merkatuaren defentsa sistema erabilgaitza izatea, Europako sektore osoak suntsituko dituen inportazioko prezioen jaitziera fikzioa erakarriz, euskal siderurgiari gertatu zaion bezala.

Bost kilometroko ibilbidea izango du arratsaldeko Berdintxiketan lasterketak

O.E. | OÑATI

Berdintasunaren alde MUKO enpresagintza fakultateak antolatzen duen Berdintxiketan lasterketa egingo da gaur, egubakoitza, 18:30ean, herriko kaleetan zehar. Bost kilometro izango ditu ibilbideak eta hama sei urtez gorakoek parte hartu ahal izango dute, bikote mistoetan. Fakultate parean hasiko da lasterketa eta Foruen plazan bukatuko da.



Bikote bat korrika. | MU

Saharari buruzko jardunaldiak egingo dituzte Urgainen

Martitzen goizean haima bat muntatuko dute Errekalde-Urgainen eta 10:00etan eskolako bi guraso saharar gela guztietatik pasako dira beraien herriari buruzko azalpenak ematen eta umeen galderak erantzuten. Eguaztenean, berriz, Saharako egoerari buruzko hitzaldia egingo dute guraso sahararrek, 18:00etan.

Aurtan ere tiro plato txapelketa egongo da Corpus jaietan

Pago Uso elkarteak antolatuta, aurtan ere plater tiraketa txapelketa egingo da Corpus jaiei barruan. Foso olinpiko modalitateko txapelketa izango da, Txopekuan, maiatzaren 28an. Goizez eta arratsaldez egingo da eta tarte bat hartuko da bazkaltzeko. Izena egunean bertan eman behar da.

Argazki jendetsua atera gura du Sarek bihar eguerdian

Hartu Trena dinamikari hasiera emateko argazki jendetsua atera gura du Oñatiko Sare taldeak bihar, zapatua. Postetxe ondoan dagoen tren-makinaren ondoan aterako dute, 13:00etan. Dispersioa bukatzeko eta gaixo dauden presoak etxeratze eskatuko du Sarek ekimen honetan.

Auzoko jaiak dituzte asteburuan Murgian eta Kasablankan

Murgia auzoan Asentzio jaiak ospatuko dituzte bihar eta etzi eta Kasablankan, berriz, San Isidro jaiak gaurtik, egubakoitza, domekara. 22:00etan hasiko den rock kontzertuarekin hasiko dituzte jaiak han. Murgian, berriz, zaldi proba izango da, adibidez, zapatu arratsaldean.

Benito Lertxundiren kantuak abestuko ditu Ganbara Txikik etzi

Benito Lertxundiren *Oi baldorba, Bizkaia maite* edo *Udazken koloretan* kantuak abestuko dituzte Ganbara Txikiko kideek domekan, San Migel parrokian, 19:00etan. Abesti gehienetan, gainera, bakarlariak entzungo dira. Zortzi euro balio du sarrerak; bazkideendako doan izango da.



Arantzazu auzoa 38 - OÑATI
Tel.: 943 78 13 06
www.zelaizabal.com / restaurante@zelaizabal.com

- Bataio, jaunartze eta ezkontzetarako leku paregabea.
- 180 gonbidaturendako jangela.



Iñaki Olaetxea | Jarduera fisikorako bulegoko aholkularia

"Ohitura osasungarrien gainean kontzientzia hartzea da kontua"

- 'Atxabalta Mugi' egitasmoaren helburua da jarduera fisikoa egitera bultzatzea
- Edonorendako daude zabalik ateak; batez ere, osasun arazoak dituztenendako

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Herritarrek jarduera fisikoa egitera bultzatzeko, *Atxabalta Mugi* egitasmoa jarri dute abian Eusko Jaurlaritzak, Debagoieneko ospitaleak eta Udalak. Horretan laguntzeko orientazio bulegoa zabaldu dute Durana kalean, eta aholkulari lanetan dabil Iñaki Olaetxea.

Zeintzuk izango dira zure egitekoak? Ohitura osasungarriak barnertzen laguntzea herritarrei.

Norendako dituzue ateak zabalik? Edonorendako. Batzuk etorriko dira osasun etxeko medikuek bidalita, beste batzuk Gizarte Zerbitzueta langileek, baina gainerako herritarrendako ere zabalik daude ateak. Batez ere, osasun arazoak dituztenak espero ditugu; besteak beste, obesitatea, hipertentsioa, kolesterola edo artritisaren dutenak.

Eta zelako aholkuak jasoko dituzte? Gaitz horiek dituztenek askotan uste dute jarduera fisikoa ez dela eurenendako, pastillatxo hartuta nahikoa dutela. Guztiz oker daude; inork egitekotan, horiek egin behar dute jarduera fisikoa. Kontzientzia sortzea izango da nire lana, eta aholkatzea zein jarduera egin, astean zenbatetan...

Hortaz, jarraipena egingo diezu? Bai. Hasieran, inkesta bat egingo diegu datu batzuk jasotzeko, osasunari eta ohiturei dagozkien datuak. Eta gero, segimendua etorriko da bi astetik behin edo lau astetik behin; pisatu, neurtu eta epe laburreko helburuak bete dituen edo ez begiratu dugu. Bete ezean zergatia topatzen ahalginduko gara eta helburua moldatu egingo dugu.



Iñaki Olaetxea aholkularia, Durana kaleko bulegoko atean. | MIRARI ALTUBE

"Datuak jasoko ditugu, aholkuak eman eta gero segimendua egin"

Jarduera fisikoa eta osasuna lotuta daude, orduan?

Gustiz. Osasunaren Mundu Erakundeak esanda dauka zenbat eta aktiboagoak izan, orduan eta osasun maila handiagoa dugula; eta botiketan ere asko aurreratu litzatekeela. Apur bat aktiboagoa izatea zer da? Igogailua erabili beharrean eskaileretatik igotzea edo herrian erosketak egiteko autoa hartu beharrean oinez ibiltzea.

Kiroldegi berriaren aitzakiak kirolari asko sortu ditu herrian...

Kiroldegietara populazioaren %30 etortzen da, eta gainerako %70ak ez dakigu jarduerarik

"Uste baino gazte gehiago daude gaur egun ezer egiten ez dutenak"

egiten duen edo ez. Aretxabaletakora jende mordo doa, bai, baina asko daude euren burua han ikusten ez dutenak. Helburua, hain zuzen, hori da, horien-gana iristea.

Bulegora joateko adinik ez dago, ala?

Ez, ez. Zoritzarrez, uste duguna baino gazte gehiago daude gaur egun ezer egiten ez dutenak. Pena da, gero, sekula baino baliabide gehiago ditugu-eta jarduera fisikoa egiteko eta kuantifikatzeko, baina ez dute egiten.

Noiz dago zabalik bulegoa?

Astelehenetan (09:30-13:30), eguaztenetan (14:30-16:30) eta egubakoitzetan (16:00-18:00).

UDAre armarria berritzeko lehiaketa

Aretxabaleta kirol elkartearen irudiari itxura aldatu gura diote 70. urteurrena aitzakia hartuta

M.A. | ARETXABALETA

Armarriaren itxura berritu gura du UDAk 70 urte bete dituen urtean, eta lehiaketa deitu du. Lanak aurkezteko epea ekainaren 23an bukatuko da, eta helbide honetara bidali behar dira: udaretxabaletake@gmail.com. Irabazleak 200 euro jasoko ditu.

Edonori dago zabalik lehiaketa eta edozein teknika eta material erabili daitezke. Hori bai, norberak sortutakoa izango da eta ezinbestean izango ditu honako ezaugarri hauek: UDA laburdura; zati diagonal zuria; San Migel goiaingerua (gerlari jantzitako aingerua); Kurtzebarri mendia gurutzearekin; ontzia eta txabola. Diseinuak era digitaallean egin daitezke (ordenagailuz) edo eskuz; eta jatorrizko koloreaz gain, zuri-beltzeko bertsio bat ere aurkeztu behar da.

Lanak bidaltzerakoan *UDAreko armarria* izena jarri behar da mezu elektronikoaren izenburuan, eta edukian egilearen izen-abizenak eta nortasun agiriaren zenbakia. Gura izanez gero, lanaren deskribapen txiki bat ere bidali daiteke.

Epaimahaia osatuko dute bost adituk, eta baloratuko dute kalitatea, originaltasuna eta sorkuntza lana; baita UDAre ezaugarriak biltzeko trebetasuna ere. Uztailaren lehen hartuko dute erabakia, eta, behar besteko kalitaterik ez dutela iritziz gero, saria hutsik utz dezakete.

Frontenis lehiaketa ekainean Bestetik, 24 orduko mutilen frontenis lehiaketa ekainaren 4ra atzeratu dute. Izena eman daiteke hilaren 31 arte (uda-frontenisa@gmail.com).

NIRE USTEZ

OIER ARANZABAL



Eguzkia eta autokontsumoa

Ez da zaila munduko gerra gehien atzean energia iturrien kontrola dagoela ondorioztatzea. Eta Euskal Herrian zer? Energia ia gehiena erosten dugu.

Hala ere, energia berriztagarriak badituzte euren aukerak: adibidez, eguzki energia ugari daukagu (ez Almerian beste): 10 metro karratu eguzki plaka fotovoltaikek gure etxebizitzako beharrak asetzeko lain eman dezake. Plaka hauek prezioz asko jaitsi dira, gainera. Sare elektrikoak erabili daitezke batek sobra daukanean besteari saltzeko, prezio berean saldu eta erosiz (*balance neto* delakoa, alegia).

Azken momentuan PPrene Espainiako gobernua gure autoprodukzio aukerak errotik mozten dituen Autokontsumo Dekretu berria onartu zuen. Baldintza hauek energia autoprodukzioa asko baldintzatzen da.

Zailtasunen aurrean badaude bideak eta adibideak: 1. Goieneko sozio izan eta energia elektrikoaren erostea (www.goienar.com). 2. Bakoitzak bere aldetik ere badaukagu gauzak egiteko margena, Oier Etxebarria aretxabaletarrek jarri dituen plaken estilora (ezagutzen baduzue, kalean gelditu eta galdetu!). 3. Usurbilgo Lanbide Eskolan muntatu berri dugun ENEGUR erakuntza pasiboa eta kotxe elektrikoak kargatzeko daukagun autokontsumo sarearen estiloak egitea, fotovoltaike eta eoliko bidez kargatzen dena (www.lhusurbil.eus). 4. Herritarren kontzientziaztea gobernua aldatetara bultzatzeko.

Independentsia energetikoa-ren bidean pausoak ematea ere gure esku dago, ez geratu atzean!

Santa Ritaren bederatziurrena astelehenean hasiko dute parrokiak

M.A. | ARETXABALETA

Aurten ere egingo dute Santa Ritaren omenezko bederatziurrena, agustindar elkarre dagoe-neko ez egon arren herrian. Izan ere, Aretxabaleta parrokiari eman zioten santuaren irudia mojek, jakinik debozio handia diotela herritarrek. Hori horrela, bederatziurrena ere parrokiak egingo dute maiatza-

ren 16an hasita; mezak 19:00etan izango dira.

Santa Rita eguna maiatzaren 22an da, baina, Hirutasun Santuaren festa denez aurten, hilaren 23an, astelehenean, ospatzea erabaki dute. Meza bakarra esango dute, 19:00etan -hileta egonez gero, 11:00etan izango da-. Bedeinkatuko diren arrosak norberak eroan behar ditu.



M.A.

Almengo pasadizoak gogoan

Eguaztenetik dago zabalik Almen ikastetxearen 50. urteurreneko erakusketa mojen komentuko elizan (17:30-20:00). Gaur, egubakoitza, mokadutxo eskainiko dute 19:00etan, eta horren bueltan aurkezpen txiki bat egin. Ikastolako kide guztiak zein herritarrek gonbidatu dituzte. Bestetik, urteurrena ospatzeko ekainaren 4an egingo duten festako bazkarirako txartelak salgai dauzkate Belar Meta arropa dendan.

Mus txapelketa bihar Erain Debagoienarekin

M.A. | ARETXABALETA

Egiozu kiñu bat erabakitze-eskubideari leloarekin mus txapelketa deitu du Erain Debagoienak. Aretxabaleta kanporaketa bihar, zapatua, jokatu da, Pagaldaixenean, 16:30ean. Izena emateko 16:15erako agertzea komeni da; prezioa da 20 euro bikoteko.

Mus txapelketaren finala, oster, hilaren 21ean izango da, hori ere Aretxabaletan. Orduan Debagoieneko txapel-dun guztiak elkartuko dira Pagaldaixenean, eta nor baino nor gehiago jardungo dute txapela lortzeko.

Otala Zelaik erromeria giroarekin egingo die harrera herritarrei

Lasterketak, animaliekin jolasak, paella lehiaketa eta dantzak daude domekan

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Maiatzarekin batera Otala Zelai eguna etorri da, eta erromeria giroak ez du hutsik egingo, beste behin, datorren domekan. Kultura Saileko kideek jakinarazi dute eguraldi txarra eginez gero Iturri-gorri pilotalekuan egingo dutela jai: "Goiz parteko ekitaldi guztiak zelaian bertan egiteko asmoa dugu, animaliekin jolasak, besteak beste, lasterketak direla-eta herritar asko elkartzen delako".

Pottokak eta bigantxa txikiak izango dituzte umeez jolas egiteko, eta trikiti doinuek girotuko dute eguerdi partea. Gero etorriko da paella lehiaketa; horretarako, aurrez eman behar da ize-na Arkupen, 5 euro ordainduta (euria eginez gero, bertan behera utziko dute lehiaketa). Arratsaldean Leizarra musika eskolako dantzarien ekitaldia izango da.

Mugarriak ikustera

Udalbatzak urteetako ohitura berreskuratu du, eta mugarriak ikustera joango dira aurten. Alkattea eta sei bat zinegotzi, Udal idazkaria eta hainbat auzotako alkateak elkartuko dira, eta mendi ibilaldiaren ostean elkarrekin bazkalduko dute Matikun.



Neska-mutikoak pottoken gainean, iaz, Otala Zelai egunean. | M.A.

Otala Zelai egunaren bueltako ohiturak

Aretxabaletan Otala Zelai eguna oso entzuna eta gogokoa da bertakoentzat; maiatzaren 12an, Santo Domingo Guzmangoaren festa egunarekin batera ospatzen da, igandea bada, eta hurrengo domekan asteguna baldin bada.

Egun horretan bi ekintza egiten ziren eta oraindik bat ospatzen da. Batetik, Udaleko zinegotziek herriaren mugarriak bisitatzen zituzten ukitu barik zeudela ikusteko; eta bestetik, zezen aukera egiten zen, mendira bidaliz urtebetean

behiekin batera ibil zitezen. Mugarrien azterketaren aztarna dokumental zaharrena 1490. urtekoa da, Aretxabaletako Artxibategi Historikoan gordeta. Elkartu ziren zinegotziak eta zin egin ondoren Ybarrako San Martin baselizan (lur zatia buruan eta Biblian jarritako eskua) han atera ziren Leintz Bailarako mugarriak miatzen. Ermita hori XVIII. mendean bota eta saldu egin zuten. Ibilaldia Arbinzelain hasi zuten eta egunak behar izan zituzten denak aztertu arte; tokien

deskribapena zehatza eta toponimia aldetik interesgarria da.

Zezen aukeraketari buruz zera esan daiteke: egun horretan baserri auzo bakoitzak zezen bat plazaratzen zuen Otala Zelain eta indartsuena eta sasoikoena aukeratzen zen "para el servicio de las vacas". Oraindik honen aztarna gelditzen da, bertakoek inguru konkretu bati "zezen putzu" esaten diote. Mugarrien ibilaldia luzea da, baina zatituz gero lau urtetan egin daiteke; ondorengo zinegotzientzat erronka bihur daiteke.

Aitor Antxia Leturia

Nagore Uriartek hasiko ditu Ostegun Bidaiariak

Laugarrenez egingo den ekimenaren lehen saioa maiatzaren 19an da, eguna, Paulaner tabernan

M.A. | ARETXABALETA


Bidaetan izandako esperientziak partekatze eta herrialde eta bidaiatzeko modu ezberdinak ezagutzera emateko asmoarekin, laugarrenez deitu du Ostegun Bidaiariak ekimena Udalak, Arteman Komunikazioaren laguntzarekin. Datozen lau egunetan bidaien gaineko diaporamak eskainiko dituzte herriko lau tabernetan, eta ikusleek bozkatu egingo dituzte horiek. Hala, boto gehien jasotako kontalariak 100 euroko saria izango du.

Nagore Uriarte aretxabaletarrak hasiko du ekimena datorren egunean, Paulaner tabernan (21:30), eta penintsulako bizi eredu alternatiboen gainean jardungo du. Hainbat *ekoaldea* eta bizi-eredu ezagutu ditu Uriartek azken bi urteotan, besteak beste, Almerrian, Malagan, Monsanten, Tarragonan eta Nafarroan.

Hilaren 26an Eider Murgoitoren txanda izango da; ekainaren 2an, Iruñe Gabilondo eta Itziar Perez bergararrena; eta ekainaren 9an, Jone Ojeak jardungo du.



Nagore Uriarte aretxabaletarra. | GAZTERIA ZERBITZUA



Ainhoa Cabero margolaria Arkupeko erakusketa aretoan. | MIREN ARREGI

Ainhoa Caberoren introspekzio lana ikusgai

M.A. | ARETXABALETA

Piedras erakusketa jarri du Ainhoa Cabero margolariak Arkupen. Hilabete egongo egongo dira artista aretxabaletarraren lanak ikusteko.

Bizi izandako egoera pertsonal batek bultzatuta barrura begira jarri zela argitu du Caberok, eta hortik etorri da *Piedras*: "Introspekzio txiki bat da, barrura begiratu eta norberaren argiak eta ilunak aztertzea... Nahiko intuitiboa izan da eta margolan esperimentalak dira", dio. Azalpen askorik ez du eman gura, ikuslea ezustean hartzeko: "Harritu egingo dira asko, ez

delako nire ohiko erakusketetako bat, baina ni neu hor nago, lan horietan".

Olio-lanak egiten ditu, batez ere, Aretxabaletako margolariak, zuri-beltza du oso gustuko. "Urte asko daramatzat olioarekin, eta, horregatik, beharbada, sentitzen naiz erosoan", dio. Oraingoan, lanek emozioen berri ematen dute; horregatik, margolan horien ingurua ere txukundu gura izan du. Horretarako, erabili ditu: esaldiak hainbat hizkuntzatan, musika, sokak... "Askapen pertsonalaren bila joan naiz, barrua hustera, eta lortu dut".

'Aingeru edo kurriloi?' antzezlanak gaur, Doke taldearekin

Arrasateko Doke antzerki taldea zazpigarren antzezlanarekin dator gaur, egubakoitza, Arkupera, 20:00etan: *Aingeru edo kurriloi?*

Jose Mari Velez de Mendizabalek idatzi du istorioa eta Vene Herrero zuzendu. Antzezleak, oster, lau emakume dira: Dorita Murgia, Maider Alzelai, Mariasun Pagoaga eta Arantxa Ezkurra. Tragikomediatzat definitu dute antzezlanak: "Familia bateko hiru ahizparen bizitzetan oinarritutako istorio arrunta da. Giro ilun eta gris batean bizi dira eta espero ez zuten iloba agertuko da".

EHbilgunea inauguratuko dute gaur, Herriko Plazan

Aretxabaletako EHbilgunea inauguratuko dute gaur, egubakoitza, 19:00etan, Herriko Plazan; orain arte Alkartetxea izan dena orain EHbilgunea ere izango da. Pello Urizar, EAKo idazkari nagusia eta EH Bilduko bozeramailea, izango da, eta komunitatea aurkeztuko dute trikitilariak eta bertsolariak girotuta. Herritar guztiak gonbidatu dituzte ezagutzera.

OHARRAK

EUSKERIAREN EGUNEKO BAZKARIRAKO TXARTELAK

Maiatzaren 21ean ospatuko den Euskeriaren Eguneko bazkarirako txartelak salgai daude Gurea eta Urbaltz tabernetan eta Loramendi elkarteetan. Prezioa da bazkide eta ikasleendako 16 euro, eta gainerakoendako, 19 euro. Bestetik, Larrain dantzaren azken entsegu astelehenean da (18:30-20:00), udaletxe zaharrean.

MUSIKA ESKOLAN MATRIKULATZEKO EPEA

Leizarra musika eskolan matrikulatu gura dutenek zabalik daukate epea maiatzaren 18a bitartean. Musika eskolara jo horretarako.

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Edukiontziko txartelak zulatuz gero, erabilezin

Kopia egiteko bi euro ordaindu behar dira, eta zalantzak hondakinen bulegoan kontsulta daitezke

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Edukiontziko organikoa irekitzeko txartela zulatu, moztu edo aldatzeak arazoak sortzen dituela adierazi du Eskoriatzako Udalak. Hainbat kasu izan dira herrian, eta halakorik ez egiteko gomen-dioa eman du Udalak. Izan ere, egiten duenak beste bat eskatzera joan beharko du hondakinen bulegora, Ibarraundira, eta berri-gatik bi euro ordaindu beharko ditu.

Eskoriatzar gehienek jaso dute dagoeneko hondakin organikoak botatzeko edukiontzia zabaltzen duen txartela; %88k, hain zuzen ere. Konposta egiten dutenek, aldiz, ez daukate zertan jaso, baina, behar badute, auke-

ra dute oraindik txartela jasotzeko Ibarraundira joanda.

Txartelak erabiltzailearen gaineko informazioa dauka, baina, zulatu edo moztuz gero, erabilezin bihurtzen da. Saioa Altzua Eskoriatzako ingurumen teknikariaren esanetan: "Jendeak zintzilikatu ahal izateko moztu edo zulatu egin ditu txartelak, eta horrela ez dute zabaltzen edukiontzia, ez dute balio. Jende asko ez da etorri hau gertatuta, baina batzuk bai. Hala eta guztiz ere, ez da ezer gertatzen. Hondakin bulegora etorri eta beste kopia bat egiten diegu. Hori bai, bi euro ordaindu behar da kopiagatik, eta halakorik ez egiteko gomen-dioa luzatu nahi dugu Udaletik".

Zalantzak argitzeko

Hondakinen inguruko zalantzak argitzeko Ibarraundira joan beharko da, eta egubakoitzetan, gainera, Mankomunitateko teknikariak ere egongo dira bertan, 09:00etatik 13:00etara bitartean. Bestalde, 943 50 47 21 edo 688 862 527 telefono zenbakietara deituta edo hondakinak.eskoriatza@debagoiena.com helbidera idatziz argitu daiteke edozein duda.

Datuak jakiteko, goiz

Debagoieneko Mankomunitateak hilerio batuko ditu datuak, zaborraren pisaketak egingo ditu... baina oraindik itxaron egin beharko da datu zehatzak zeintzuk diren jakiteko.

Erabakitze eskubidearen herri ikuspegia eta juridikoa eskainiz

I.B | ESKORIATZA

Erabakitze eskubidea: herri ikuspegia eta ikuspegi juridikoa hitzaldia eskainiko dute Angel Oiarbidek eta Xabier Ezeizabarrenak maiatzaren 18an. Zaldibar antzokian izango da hitzaldia, 19:00etan.

Gure Esku Dago ekimene-kide eta bozeramaile Angel Oiarbidek erabakitze eskubidea herritarren ikuspegitik azalduko du, ariketa demokratikoa egikaritzeak sortzen dituen aukerak, ilusioak... transmitituz. Xabier Ezeizabarrenak, aldiz, erabakitze eskubidearen ikuspegi juridikoa azalduko du; EAJko batzarkidea da Gipuzkoako Batzar Nagusietan.

Mus txapelketa

Zapatuan, bestalde, Gure Esku Dago-k antolatuta, Debagoieneko mus txapelketa jokatu da Toki Alai tabernan, 17:00etan hasita. Eskoriatzako kanporaketan bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu, eta izen-ematea 16:00etatik aurrera egin ahalko da Toki Alain bertan. Finala Aretxabaletan izango da maiatzaren 21ean.

Familia-argazki erraldoia

Eskoriatzan 728 sinadura batu dituztela irudikatu zuten plazan, aurreko zapatuan, maiatzaren 7an, familia-argazki erraldoia egin zen Gure Esku Dago-k duen abestiaz batera.



728 sinadura batu dituztela irudikatzeko argazki erraldoia. | I.B

Abiadura murrizteko bandak

Abiadura murrizteko bandak (konkorak) jarri dituzte herriko sarreran, Aingeru Guardako ibilbidean. Bidegorria zatitzen duen errepedeko zebra-bidean, bi norabidetan jarri dira, bertatik pasatzen direnen segurtasuna bermatzeko.



I.B

Belako taldea Eskoriatzan izango da uztailaren 23an, Errekan Gora egitarauaren barruan

I.B | ESKORIATZA

Atxorrotx Kultur Elkartek, Udalen, hainbat instituzioren, elkar-terren, eta abarren laguntzarekin batera, antolatutako Errekan Gora egitasmoa uztailaren 8an hasiko da. Bederatzigarren edizioa izango da aurtengoa, eta, urtero moduan, hainbat musika talderen kontzertuak izango dira Eskoriatzako hainbat txokotan, uztailako aste bukaeretan banatuta.

Izango diren taldeak lotzen ari dira oraindik Atxorrotzekoak, eta zehazteko daude emanaldiak egingo diren guñeak. Hala ere, Belako talde mungiarra uztailaren 23an

izango dela konfirmatu dute. Emanaldia Huheziko klaustroan izango da, eta Belakok bere *Hamen* bigarren lana eskainiko du; punk-rock eta new wave estiloak eta erritmo elektronikoak nahasten dituen disko berriarekin.

Belako talde handia

Energia handiko kontzertuak eskaintzen dituen taldeak *Ojo crítico* saria jaso zuen iaz, eta musika independentearen zuzeneko eta artista onenaren sarirako izendatua izan da... Orain, Erresuma Batuan bigarren etaparekin hasi berri dira.

'Txomin txapel' egunerako egitaraua prest

I.B | ESKORIATZA

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko eta Ikus-entzunezko Komunikazio ikasleen eguna ospatuko da maiatzaren 20an, Eskoriatzan, Txomin Txapel izenez ezaguna dena.

Ezagutzeko jolasak, maskarada eta tobera, bazkaria unibertsitateko parkingean edo frontoian, eguraldiaren arabera, Ane Zuazubiskar eta Asier Galartza bertsolariekin, elektrotxufla eta alkolinpiadak, Gaitzerdi erromeria eta Pecozza United musika taldeak... izango dira, besteak beste.

San Pedro jaietarako esaldi lehiaketa abian da

I.B | ESKORIATZA

Urtero moduan, esaldi lehiaketa egingo da San Pedro jaietarako. Dagoeneko parte hartu daiteke, gutun-azalean taldearen izena ipiniz, eta barruan, beste gutun-azal itxi batean, datuen txartela sartuta. Kultura etxean, bibliotekan eta kiroldegian jarri diren gutunontzietan maiatzaren 22a baino lehen sartu beharko dira gutunak; euskara@eskoriatz.eus kontura ere bidali daitezke esaldiak.

13 urtetik gorako edozein eskoriatzarrek hartu dezake parte, baina hiru pertsona baino gehiagoko taldeak osatu behar dira. Jasotako esaldi guztien artean lehenengo aukeraketa bat egingo da, eta onentsuenak maiatzaren 26tik ekainaren 2ra

bitartean erakusgai jarriko dira Eskoriatzako Udalaren Facebook-ean, herritarren botoa jasotzeko. Talde bakoitzak gaitzizen bat bakarrik erabil dezake eta pertsona batek talde batean bakarrik har dezake parte. Ez dira onartuko neurritz kanpoko kontsumoa edo jarrera sexistak bultzatzen dituzten esaldiak.

Irabazleentzat sari bikainak

Udaleko kultura batzordea izango da esaldi lehiaketa honen epaimahaia, eta irabazten duen taldeari afari bat ordainduko zaio sanpedroetan Eskoriatzako jatetxe batean. Pegatinak egiteko erabiliko diren esaldiak asmatzen dituen talde bakoitzari, berriz, 50 euroko saria emango zaio.

LHkoei eta DBHkoei zuzendutako kirol udalekuetan izena emateko epea ireki berri da

Ariketa fisikoa eta kirol ezberdinak lantzeko aukera izango dute gaztetxoek kirol udalekuetan. Adinaren arabera bi txanda egongo dira: LH-1 eta LH-6 arteko lehenengo txanda ekainaren 20tik 24ra izango da. Bigarrena, abuztuaren 29tik irailaren 2ra. DBHkoek, berriz, uztailaren bederatziguneko udalekuak izango dituzte. Izen-ematea kiroldegian egin beharko da ekainaren 3a baino lehen, eta informazio gehiago nahi duenak Udalaren webgunean kontsulta dezake edo kiroldegira deitu beharko du.

Larrea: "Baserritarren eguna indartu gura dugu"

Maiatzaren 21ean San Isidro eguneko ospakizuna egingo da eta aurten nobedadez gainezka dator

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA
Aurtengo San Isidro eguneko ospakizuna berezia izango da. Izan ere, baserritarren egunari beste buelta bat eman eta indartu egin gura izan du eta Antzuolako Udalak. Hala, lehenengoz, herri bazkaria, goitibeherak eta herritarren arteko desafia antolatu dituzte. "Baserritarren egunak indar handia zuen lehen; baina orain, baserritarren ingurua apaltzen joan den heinean, jaia ere apaldu da. Guk ez dugu nahi hori gertatzea, eta baserritarren festa eta ingurua indartzea gura dugu", azpimarratu du Kirol zinegotzi Garazi Larreak.

Nobedadeak
Nobedadez beteta dator baserritarren eguna: goizean ganadu feria eta artisau azoka egingo da Herriko Plazaren bueltan 09:00etatik 13:00etara. Bertan izango dira herriko zenbait artisaren lanak ikusteko eta erosteko aukera. Kukumarro erakusketa eta sari banaketa ere izango da. Ondoren,



San Isidro eguneko azoka iaz, Herriko Plazan. | GOIENA

13:15ean, Gure Esku Dago-k antolatuta, Zurrategiko kioskoa apainduko dute. Gainera, kantua aurkeztuko dute. Baina aurten goitibehera lehiaketaz eta herri bazkariak gozatzeko aukera ere izango dute antzuolarrek eskolako patioan. Norberak eraman beharko du janaria. Aurretik, baina, herri kirolak egingo dituzte, 12:15ean. Kaletarren eta baserritarren arteko desafia egingo dute lehenengoz. Eta iluntzean eta gauean, herriko trikiti tal-

dearen laguntzarekin, Triкитеens taldearen erromeria Zurrategin.

Bertso jaialdia
Maiatzaren 20an, egubakoitzean, bertso-jaialdia egingo da Torresoroan, 22:00etan hasita, Antzuolako Sasibertsolaixak taldeak antolatuta. Unai Agirre, Alaia Martin, Mikel Artola eta Unai Mendizabal bertsolariak ariko dira. Gai jartzailea Iraia Gabilondo izango da. Sarrerak 5 euroren truke daude salgai.

Antzuolara atzeritik etorri direnendako eredu

Ishor Bhudathoki nepaldar gaztea lan egitera joan da Alacanteko Javia herrira

M.A. | ANTZUOLA
Hutsune handia utzi du Ishor Bhudathoki nepaldarrak Antzuolan. Izan ere, lan bila Alacantera joan behar izan du. Bhudathokik, hiru urtetan euskara ikasteaz gain, Antzuolako herrian integratzea lortu du eta antzuolartzat dute herri-tarrek.

Herrigintzan eragilea izan da: Auzoko programaren mui-na eta auzokideen eta auzotarren arteko zubia. Pena handia hartu dute herritarrek: "Ishor garrantzitsua izan da ekimen desberdinetan parte hartu delako eta honek beste atzerritar-rrak ere bertan parte hartzera bideratu dituelako. Euskara ikasteko hasieratik prest egon da beti; baita eskatu zaionean edozertan laguntzeko ere. Askotariko ekimenetan parte hartu du: ipuin maratoian, dantza tailerrean, Kalebarrengo jaie-tan...", kontatu du Maite Telleriak, Auzokoko dinamizatzaileak. Euskararekiko sentsibilitatea erakustez gain, ikasi ere ikasi zuen: "Euskara maila altua izatea lortu zuen; gainera, besteendako eredu ere izan da; pena handia dugu".

Auzoko berriro indartuta
Auzoko ekimena hasieran hankamotz geratu dela dio Telle-



Auzokoren taldea Ishorrekin. | M.A.

riak: "Ishorrek apaltasun handia, laguntzeko jarrera, gizaki duina eta langilea izatea zer den erakutsi digu guztioi. Betiere, jarrera positiboarekin; pena da honelako mutil gazte zoragarriak Antzuola utzi behar izatea ez duelako lan aukerarik aurkitzen herrian; berak herriarendako egin duen guztiaren ondoren.. Auzoko nahiko hankamotz geratu da. Baina orain, indartuta dator berriro: Nikaraguako Diana eta Luisari, Abelino kubatar-rrari eta Claudia mexikarra-ri esker".

Ekain Larrea eta Mikel Arregi txapeldun

Asteburuan bi gazte antzuolarrek eman zuten zeresana kirol-munduan. Zapatuan, Ekain Larrea atletak 3.000 metroko Euskadiko Txapelketa irabazi zuen. Domekan, berriz, Mikel Arregik erlojuaren kontrako Federazio Trofeoa jokatu zuen Urdulizen Euskadiko Selekzioarekin, eta selekzioak erraz irabazi zuen.



ANTZUOLAKO UDALA

Ekainaren 1ean Guggenheim ezagutzeko aukera
Guggenheim museoak Arte Garaikideari buruzko programa eskaini dio Landatxoperi eta herritar guztiei parte hartzeko aukera eman nahi die. Ekainaren 1ean egingo da irteera. Horretarako, derri-gorra da museoa ezagutzeko egingo diren tailerretan parte hartzea: maiatzaren 18, 24 eta 26an, Orlanen, 18:00etan.

Berliozen 'Requiema' ikustera joateko autobusa erreserbatu daiteke
Kursaal eskura ekimenarekin bat egin du Udalak eta hango ekitaldietara joan-etorria egiteko autobusak antolatuko dituzte. Maiatzaren 31n izango da lehen aukera Berliozen *Requiema* ikus-teko. Interesa duenak ikuskizunerako sarrera erosi beharko du: www.sarrerak.kursaal.eus. Eta ondoren autobusa erreserbatu: kultura@antzuola.eus.

OHARRAK

ODOL ATERATZEA
Maiatzaren 19an, Orlan etxean, odol ateratzea egingo dute, 17:30ean hasita.

ARGAZKI ERAKUSKETA
Bizikidetza ekimenaren baitan, iaz eskolako patioan murala margotu zuten gazte-txoek. Orain, egunean bertan atera ziren argazkiekin erakusketa jarri dute ikusgai patioan maiatzaren 25era arte.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJIKAHARATEGIA

Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

Aramaion igerilekua egitea ez du bideragarri ikusten alkateak

Herritarrek egindako eskaerak erantzun zituen Lierni Altunak *Harira* saioan

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Goiena Telebistako *Harira* saioan izan zen martitzenean Lierni Altuna Aramaioko alkatea. Aurtun Udalak egingo dituen inbertsio nagusien gainean jardun zuen. Inbertsio handiena plan foraleko diruarekin egingo dute Gureia auzoan; horrez gain, kiroldegiko gimnasioa handituko dute, gaur egun dauden komun batzuk kenduta. Modu horretan, egungo beharretarako egokituko dute kiroldegia; izan ere, hainbat kirol jarduera toki desegokietan eskaintzen dituzte –pilatesa udaletxeko osoko bilkuren aretoan, adibidez–.

Plan foraletik kanpo geratu zena Matxin kalea konpontzea izan zan; hala ere, egoera zein den ikusta, Udalak erabaki du aurtun bertan "urgentziaz konponketa batzuk egitea".

Beharrak eta lehentasunak

Aurrekontuekin batera, herriko beharrak eta lehentasunak identifikatzeko parte-hartze prozesua jarri zuten martxan. Bada, alkatea pozik dago prozesu horrek izan duen erantzunarekin: "Uste nuena baino handiagoa izan da parte-hartzea; hala ere, espero

dut etorkizunean handiagoa izatea. Irten diren beharrak gure agendetan daudenak dira, gutxi gorabehera".

Behin lehenengo fasea amaituta, bigarren fasea hasiko dute, lehentasunak zehazteko. "Oraindik ez dakigu nola egin hori: etxeetara beharren sailkapena bidali eta herritarrek zerrenda

ditzatela, adibidez, izan daiteke aukera bat".

AHTko lanak

Lugarategi baserri inguruan otsailan gertatutako lur-jausiaren inguruan ere berba egin zuen. "Adif-ek zundatze lanak egin ditu. Ematen du baserria arroka gogor baten dagoela eta ez dela mugituko", esan zuen. Hala ere, Lugarategiko bizilagunak etxetik kanpo jarraitzen du oraindik. Adif hasi da konponketa lana egiten: "Emergentziazko lana denez, abisurik ez digute pasatu". Gaineratu zuen Adifekin kontu asko dituztela erabaki barik: "Pista asko konpondu barik dituzte oraindik. Azkeneko urteak gai honekin bueltaka gabiltza, gerra konstante bat da", gaineratu zuen.

Igerilekurik ez, oraingoz

Herritarren eskaerak ere erantzun zituen alkateak. Igerileku bat egitea eskatu zioten, besteak beste: "Ikusita beste herri txikietan ze arazo dituzten igerilekuekin, momentuz, ez dut ikusten posible. Biomasaaren proiektuan sakondu ostean izan liteke, ura berotzea izaten da-eta arazo han-



Lierni Altuna Goiena telebistako platoan. | GOIENA

diena, baina momentu honetan ez dut ikusten posible", azaldu zuen. Erreka igerileku moduan erabiltzea ere "zaila da", Ura agentzia zorrotza delako gai horretan.

Biomasa proiektua

Biomasa proiektuaren gainean azaldu zuen orain finantza-plana egiten dihardutela, Jaurilaritza-

rekin eta EVErekin elkarlanean. "Ez dugu larregi komunikatu, ez dagoelako gauza berririk. Finantza-plana egindakoa egingo ditugu batzarrak; izan ere, partikular moduan, proiektuan sartu edo irten, finantza-planaren arabera izango da. Espero dut irailerako zerbait berria izatea", gaineratu zuen.

Azokarekin borobilduko dute Lorabarro Astea

A.E. | ARAMAIO

Lorabarro Asteak harrera ona izan du herritarren artean; bada, aste borobila amaitzeko, Lorabarro azoka egingo dute zapatuan. Bizente Goikoetxea plazan izango da, 11:00etatik 14:00etara.

Aramaioko produktuak erosteko aukera egongo da: barazki eta landare ekologikoak, artzain gazta, sagardoa eta sagar zukua, besteak beste. Horrez gain, Arabako pasta, txerriki eta ardo ekologikoa izango duten postuak ere egongo dira; eta, baita, Amezketako ogi eta gozo ekologikoak.

Pasta tailerra

Haur eta helduei zuzendutako pasta tailerra egingo dute Sastiñan, 11:30ean. Nabarmendu dute 7 urtetik beherako gaztetxoek heldu baten laguntzarekin joan beharko dutela.

Gainera, azoka aprobetxatuko dute Ekuadorren alde dirua jasotzeko. Pintxo-potea egingo dute Ekuadorren lurrikarak kaltetutakoak diruz laguntzeko.

Aste osoaren balorazioa

Josep Pamiesek martitzenean eskaini zuen hitzaldia entzuteko kultura etxea bete egin zen: 200 lagun inguru elkartu ziren. "Aramaion bertan sendabelarretan



Lorabarro azoka. | IMANOL SORIANO

dugun aberastasuna nabarmendu zuen, eta osin landarea hartuta joan zen", azaldu dute Aramailur kontsumo taldeko kideek.

Astelehenean 30 bat lagun elkartu ziren erretiratuen elkartean azukrerik gabeko gozoak egiten ikasteko. "Emakumeak izan ziren protagonista", eta gailetak eta infusioak lagundurik Amaia Diaz de Monasterioguren azalpenak entzun zituzten.

Joan zen domekan, berriz, 60 lagunek egin zuten ibilbide geologikoa. Gurasoak, haurrak eta herritarrek elkartu ziren. Txikienek Leziarainoko bidea egin zuten eta beste batzuk Zabalan-diraino joan ziren.

Arrasate Musikalen kontzertu lirikoa

A.E. | ARAMAIO

Datorren egubakoitzean, gaur zortzi, kontzertu lirikoa eskainiko du Arrasate Musikalek. San Martin parrokiaren izango da emanaldia, 19:00etan. Arrasate Musikaleko kantu eskolako 11 ikaslek eskainiko dute kontzertua.

Tere Gonzalez da kantu eskolako irakaslea –baita Izaskun Murgia elkarte lirikoko zuzendaria ere–. Emanaldian izango da Gonzalez bera, eta baita Marta Izagurre eta Eduardo Artzamendi piano-jotzaileak ere. Horiek pianoarekin lagunduko diete ikasleei.

Emanaldia doan izango den arren, borondatea eskatuko dute; horretarako, kutxa batzuk jarriko dituzte sarrean eta bakoitzak ahal duen moduan laguntzeko eskatuko diote jendeari. Hala, aurretik horrelako ekitaldiak antolatzeke dirua aterako dute.

Orain dela bi urte Arrasate Musikalen 40. urteurrenaren ospakizunen barruan horrelako ikuskizun batez gozatzeko aukera izan zuten aramaiorrek.

Jaietako kartel lehiaketa jarri du martxan Udalak; lanak aurkezteko azkeneko eguna hilaren 31 da

San Martin jaietako kartel lehiaketa deitu du Udalak. Teknika libre izango da, eta gehienez A3 neurrian aurkeztu beharko dira lanak. Bi kategoria bereziko dituzte: 15 urtera arte eta 16 urtetik gorakoak. Lan guztiak originalak izan beharko dira eta ondorengo testua izan beharko dute: *San Martin jaiak 2016... uztailak 1, 2, 3 eta 4*. Edonork parte har dezake helduen kategorian, eta Aramaioko edonork umeen kategorian. Lanak udaletxean aurkeztu beharko dira maiatzaren 31 baino lehen.

Aramaioko langabezia tasa %3,30ekoa izan da apirilean, martxokoa baino zerbait txikiagoa

Eustat-ek eman ditu apirileko langabezia datuak. Datu horien arabera, apirilean, Aramaioko langabezia tasak zertxobait behera egin zuen: martxoan 26 langabe zeuden, %3,43ko tasa; eta, apirilean 25 pertsona zeuden lanik gabe, %3,30. 2016ko datuei begira jarrita, urtarrilean 24 langabe zeuden Aramaion eta otsaila izan zen hilabete txarrena, 27 langaberekin –%3,56ko tasa–. 2011ko zentsuaren arabera Aramaioko biztanleria aktiboa 758 lagunekoa da. Debagoieneko apirileko langabezia tasa %10,86koa da.

OHARRAK

MUS TXAPELKETA

Erain Debagoienak antolatuta, mus txapelketa egingo dute. Aramaioko kanporaketa bihar, zapatua, izango da, 16:30ean, Eki tabernan. Finala hilaren 21ean izango da, Aretxabaletan.

ERRETIRATUAK

Astelehenean, erretiratuek Gas-teizera irteera egingo dute. Izena emateko azkeneko eguna

bihar izango da. 30 euro sartu beharko dira elkarteko kontuan.

PAPARGORRI

Papargorri abesbatzak otarreak zozkatuko ditu maiatzeko bari-kuetan –ONCEn Cuponazoko sari nagusiko azken hiru zenbakiekin bat datorren txartela izango da irabazlea–. Lehenengo zorteduna Beñat Burgi izan da, 51 zenbakiarekin.

Lurra ezagutzen eta errespetatzen ikasteko Aste Berdea egin dute Elgetan

Domeka eguerdian errefus-erdukiontzi bat hustuko dute herriko plazan

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA
Martitzenean eman zioten hasiera Elgetan Aste Berdeari. Hamaitaketakorako poltsa berrerabilgarriak banatu zituen Mankomunitateak Herri Eskolako neska-mutikoen artean, eta eguaztenean konpostaren gaineko tailerra jaso zuten umeei Joseba Sanchez teknikariaren eskutik. Helduei zuzenduta, berriz, nekazaritza ekologikoaren gaineko hitzaldia egin zuen Sanchezek. Eta eguenean, Ormaiztegiko Kuko jatetxeko sukaldari Iker Markinezek sukaldean hondakin gutxiago sortzeko aholkuak eman zituen Intxorta elkartearekin. Gaur emango dute erreportajea Goiena telebistako Debagoiena Zuzenean saioan.

Ariketa pedagogikoa
Domekan konposta banatuko dute plazan Vermican enpresako ordezkariak, eta konposta egitea animatuko dituzte herritarrek. Errefus-erdukiontzi bat ere hustuko dute, 13:00etan. Herritarrek errefusera zer botatzen duten bertatik bertara ikusteko aukera izango dute. "Elgetan hondakinaren %22 botatzen dugu errefusera, baina, berez, %13 soilik da errefusa", esan du Iraitz Lazkano alkateak.fusa.



Eskolako umeak martitzenean jasotako poltsa berrerabilgarriekin. | E.A.



Nekazaritza ekologikoari buruzko hitzaldia, eguaztenean, udaletxean. | L.Z.



LUIS MARI ARANTZETA

Gipuzkoako txapelkunorde

Asun Arruabarrenak eta Jesusa Iturrikastillok martitzenean jokatu zuten briska txapelketako finala eta txapelkunorde geratu dira. Gipuzkoako Erretiratu eta Pentsiodunen Elkarte presidentea Jose Riviereren eskutik jaso zuten saria. Xalbadorpe elkartetik, bestetik, podologoaren kontsulta iragarri dute hilaren 19rako.

FRONTENIS TXAPELKETA

AZKEN EMAITZAK

Miren Arqi Zeziaga-Liemi Mendizabal / Mireia Rubio-Idoia Serna	25-22
Idoia Elkoror-Iratxe Bravo / Maitena Mañarikua- Ane Martin	25-04
Miren Arqi Zeziaga-Liemi Mendizabal / Idoia Elkoror-Iratxe Bravo	07-25
Maitena Mañarikua- Ane Martin / Beatriz Zabala-Rakel Zamaioa	04-25

BIHAR, ZAPATUA, 16:00ETAN

Maitena Mañarikua- Ane Martin / Idoia Serna-Mireia Rubio
Miren Arqi Zeziaga-Liemi Mendizabal / Beatriz Zabala-Rakel Zamaioa
Mikel Arkarazo-Josu Aranzabal / Josu Mañarikua-Benat Arabaolaza
Eneko Maguregi-Andoni Elorza / Imanol Albizu-Julen Barutia

ETZI, DOMEKA, 10:00ETAN

Beatriz Zabala-Rakel Zamaioa / Idoia Elkoror-Iratxe Bravo
Idoia Elkoror-Iratxe Bravo / Idoia Serna-Mireia Rubio
Idoia Serna-Mireia Rubio / Beatriz Zabala-Rakel Zamaioa
Maitena Mañarikua- Ane Martin / Miren Arqi Zeziaga-Liemi Mendizabal

OHARRAK

UMEAK IPUIN KONTALARI
Gaur, herriko 4 eta 11 urte arteko bost umek egingo dute ipuin kontalari saioa liburutegian. *Gu ere kontalari* ekimeneko lehen saioa izango da, 17:00etan.

AUTOBUS ZERBITZUA GAUEZ
Pazkoak direla-eta gaueko garraio zerbitzu berezia, gaur eta bihar, Elgetatik. Ordutegia ikusgai: www.pesa.net helbide elektronikoan.

MENDI IRTEERA DOMEKAN
Kantsatzeke elkarteak antolatuta, ibilaldia Goizueta inguruan. Irteera plazatik 08:00etan.

ERAIN DEBAGOIENA
Gaur, 19:00etan, sinadura bilketa plazan. Eta mus txapelketa Patxi tabernan, 23:00etan.

BASERRITARREN ELKARTEA
Urteko batzar orokorra deitu dute

domekarako, hilak 15, 13:00etan, Ozkarbi elkartearekin.

KANTU ETA DANTZA EGUNA
Salgai daude bolatokian hilaren 22ko Kantu eta Dantza Eguneko bazkarirako txartelak 15 eurotan.

TUTOREA KZGUNEAN
Eguaztenean, hilak 18, dinamizatzailea kultura etxeko KZgunean izango da 16:00etatik 17:30era.

LEINTZ GATZAGA

'2016 bidea' mendi ibilaldiak Leintz Gatzagan izango du geltokia

Legution abiatuko den etapa, ibilaldiko zortzigarrena, herrian amaituko da domekan

ENEKO AZURMENDI. | LEINTZ GATZAGA
Maiatzaren 15ean, domeka, Legutioi Elixoste plazan hasiko da etapa, 09:30ean, eta, zailtasun maila txikiko 13 kilometroko bidea egin ostean, Leintz Gatzagan izango du helmuga.

Donostia 2016 egitasmoaren barruko mendi ibilaldietako zortzigarren etapa izango da domekakoa.

Izena emateko epea gaur amaitzen da, 20:00etan, eta parte hartzeko beharrezkoa izango da. Horretarako, *2016bidea.dss2016.eu* webgunean dago aukera.

Parte-hartzea 7 euro da. Ikasleek, erretiratuek eta DSSinonakoa parte-hartzaileek %20ko deskontua izango dute eta langabeek, %50ekoa. Horrez gain, Legution etapa hasi eta oinez herrira bueltatzeko aukera egongo da;

izan ere, autobusa jarriko dute antolatzaileek. Gasteizera bidean dagoen geltokitik irtengo da Legutiorantz, 08:40an.

Ibilaldiaz gain, hainbat ekin-tza kultural ere egongo dira domekan, herritar guztiei zuzenduta. Ibilbidean zehar antzerki bat egongo da *-Bideart* ikuskitzuna-, eta, herrira iristean, 17:00 inguruan, ongietorri berezia egingo diete parte-hartzaileei, gatz-urezko pedilubioarekin. Ondoren, Gatz Museora bisita egingo dute eta tailer batzuk eskainiko dituzte. Azkenik, etxeko olio eta gatz erabiliz xaboiak egiten ikasteko tailerrak egongo dira.

Maiatzaren 22an
Hurrengo etapa Leintz Gatzagan hasiko da, eta Arrasaten bukatu.

ELGETAKO ALKATEA

GOIENA TELEBISTA | HARIRA ALKATEEKKIN ELKARRIZKETAK IRAITZ LAZKANO, ELGETAKO ALKATEA
MAIATZAK 17, 22:00ETAN | ENEKO AZKARATEK AURKEZTUA

EGIN GALDERA:
Whatsapp:
688 69 00 07
Posta elektronikoa:
berriak@goiena.eus
Goiena app:
Galdera bidali





Amaia Txintxurreta
Kantariko aurkezlea.

5. ALDIA Kantari



Arrasateko saioak Goiena Telebistan!

Arrasateko lehenengo saioa:

Maiatzak 14, zapatua, 10:30 eta 20:00
Maiatzak 15, domeka, 9:00 eta 16:30
Maiatzak 16, astelehena, 19:00
Maiatzak 19, eguena, 13:30

Bigarren saioa:

Maiatzak 14, zapatua, 9:00 eta 16:30
Maiatzak 15, domeka, 10:30 eta 20:00
Maiatzak 17, martitzena, 13:30
Maiatzak 20, egubakoitza, 19:00

Hirugarren saioa:

Maiatzak 21, zapatua, 10:30 eta 20:00
Maiatzak 22, domeka, 9:00 eta 16:30
Maiatzak 23, astelehena, 19:00
Maiatzak 26, eguena, 13:30

Laugarren saioa:

Maiatzak 21, zapatua, 9:00 eta 16:30
Maiatzak 22, domeka, 10:30 eta 20:00
Maiatzak 24, martitzena, 13:30
Maiatzak 27, egubakoitza, 19:00

Bosgarren saioa:

Maiatzak 28, zapatua, 10:30 eta 20:00
Maiatzak 29, domeka, 9:00 eta 16:30
Maiatzak 30, astelehena, 19:00
Ekainak 2, eguena, 13:30

Seigarren saioa:

Maiatzak 28, zapatua, 9:00 eta 16:30
Maiatzak 29, domeka, 10:30 eta 20:00
Maiatzak 31, martitzena, 13:30
Ekainak 3, egubakoitza, 19:00

Zazpigarren saioa:

Ekainak 4, zapatua, 10:30 eta 20:00
Ekainak 5, domeka, 9:00 eta 16:30
Ekainak 6, astelehena, 19:00
Ekainak 9, eguena, 13:30

Zortzigarren saioa:

Ekainak 4, zapatua, 16:30
Ekainak 5, domeka, 10:30 eta 20:00
Ekainak 7, martitzena, 13:30
Ekainak 10, egubakoitza, 19:00

Bederatzigarren saioa:

Ekainak 11, zapatua, 10:30 eta 20:00
Ekainak 12, domeka, 9:30 eta 16:30
Ekainak 13, astelehena, 19:00
Ekainak 16, eguena, 13:30

Hamargarren saioa:

Ekainak 11, zapatua, 9:00 eta 16:30
Ekainak 12, domeka, 10:30 eta 20:00
Ekainak 14, martitzena, 13:30
Ekainak 17, egubakoitza, 19:00

Hamaikagarren saioa:

Ekainak 18, zapatua, 10:30 eta 20:00
Ekainak 19, domeka, 9:00 eta 16:30
Ekainak 20, astelehena, 19:00
Ekainak 23, eguena, 13:30

Hamabigarren saioa:

Ekainak 18, zapatua, 16:30
Ekainak 19, domeka, 10:30 eta 20:00
Ekainak 21, martitzena, 13:30
Ekainak 24, egubakoitza, 19:00

Informazio gehiago: 943 25 05 05
<http://blogak.goiena.eus/kantari/>

goiena

FUTBOLA

Mondra, Bergara eta Urola azkenera arte borrokatuko dira mailaz igotzeko

- Bihar 17:30ean jokatuko dituzte erregional preferentean partidu gehienak
- Mondrak Urola hartuko du Mojategin eta Bergarak Soraluzen agurtuko du liga

XABIER URZELAI | ARRASATE

Erregional preferenteak emozioz betetako zapatua eskainiko die Mondrako, Bergarako eta Urolako zaleei, hiru talde horien artean egongo da-eta jokoan igoera fasea. Hala, gauzak ez dira joan den astetik askorik aldatu; edo, hobeto esanda, ez dira batere aldatu.

Mondra da bigarren sailkatzeko ondoen kokatuta dagoena: "Iaz sasoi honetan gustura sinatuko genuen egoera honetan egotea", dio Josu Zubiak, Mondrako entrenatzaileak. Arrasateko jokalarien esku dago dena eta bihar (17:30) Mojategin futbol festa bat antolatzeke lanean dabilta zuzendaritzako kideak; horretarako, sarrerak banatu dituzte klubeko jokalaria gazteen artean.

Aurrean izango duten taldeak, Urolak, asko du jokoan, helburu berbera dute eta. Joanekean Mondrak ondo hartu zion neurria (0-4), baina Zubiak argi dauka partidu erabat ezberdina izango dela: "Ez du antzik izango. Urola baloi geldiko jokoan da trebea, baina guri irabazteko hori baino gehiago egin beharko dutela uste dut, eta ez die berdinketak balio; hori gure mesederako izan daiteke". Hala, psikologikoki parti-



Mondrako jokalaria Beñat Corcuera. | I.S.

dua prestatzeak duen garrantzia azpimarratu du Zubiak: "Partiduan zehar edozer gauza gertatuta ere behera etor ez gaitezen, eta egoerari buelta emateko gai izan gaitezen".



Bergarako jokalaria Xabier Jorge. | I.S.

Bergara, azkenera arte lehian

Bergarako taldea sekulako bigarren itzulia eginda iritsiko da ligako azken partidura –lau puntu baino ez dituzte galdu–, baina lehenengo itzuli irregularraren

zama daramate gainean: "Liga hasieran galdutako puntuekin akordatzeko gara orain, baina jada ez dago ezer egiterik. Soraluzen irabazi eta Mondraren akatsaren zain egon behar dugu, eta gerta-

SAILKAPENA	
TALDEA	P
1 AMAIKAK BAT	65
2 MONDRA	62
3 BERGARA	61
4 UROLA	60
5 SORALUZE	48
6 IKASBERRI	45
7 LAGUN ONAK	43
8 ZESTOA	41
9 ARETXABALETA	36
10 URKOMENDI	35
11 BEASAIN	34
12 TOLOSA	34
13 ILINTXA	29
14 ZUMAIKO	28
15 USURBIL	13
16 ANTZUOLA	10

tzen dena gertatzen dela harro egon egin dugun denboraldiarekin, datorren urterako motibagarri izango delako", adierazi zuen Eloy Crespok *Harmailatik* saioan. Soraluzek ez du ezer jokoan.

FUTBOLA

Iñigo Velez de Mendizabal | UDAko entrenatzailea

"Zaleen partetik exijentzia maila handia izatea ona da"

- Abuztuan hasiko da Velez taldearekin lanean
- Gasteizko Aurreran ibili da azken urtean

X.U./M.A. | ARETXABALETA

Eguaztenean aurkeztu zuen UDAn lehenengo taldea zuzenduko duen entrenatzailea, Iñigo Velez de Mendizabal (Gasteiz, 1982). Jokalari moduan batera eta bestera ibilitakoa –besteak beste, Athleticen jokatu zuen–, lesioek botak zintzilikatzera derrigortu zuten 2013an. Gasteizko Aurreran kategoria txikietan lanean ibilita ekingo dio proiektu berriari. **Ez da denbora luzea pasa futbola halabeharrez utzi zenuenetik. Zer moduz?**

Dagoeneko hiru urte pasa dira profesional izateari utzi nionetik, baina tarte honetan ez naiz futboletik askorik urrundu: partiduak ikusten, kategoria txikietan laguntzen... Orain, berriz, Are-

"Gaztetxoekin jardutea polita da, baina nagusiekin lan egin gura nuen"



Iñigo Velez de Mendizabal. | M.A.

txabaletan aukera eder hau suertatu zait, eta aprobetxatzeko desatzen nago.

Gasteizko Aurreran ibili zara, kadeteekin lanean. Salto handia egongo da Ohorezko Erregional mailara.

Bai, badago aldea. Urtarriletik, baina, Aurrerako hirugarren mailako bigarren entrenatzailea izan naiz, eta esperientzia hori baliagarria izan zait. Polita da kategoria txikietako gaztetxoekin lan egitea, baina garbi neukan nagusiekin lan egin gura nuela,

jokalariekin exijentzia maila handiagoa dagoelako.

Taldea lehenagotik ezagutzen zenuen?

Baditut erreferentziak, eta baita lagunak ere. Mikel Etxabe bertakoa da, nahiz eta ez dudan uste UDAn jokatu duenik... Igor Arenaza bera, Barkero... Gipuzkoa mailako talde ezaguna da UDA.

Aurreratuko dizut zale fidelak dituela Aretxabaletak, baina, aldi berean, zorrotzak.

Baina exijentzia maila hori izatea polita da, bai niretako eta baita jokolariendako ere. Harmailetan

jendea egoteak motibatu egiten du jokalaria. Badakit norgehiagokak domeketan izaten direla, 16:30ean, eta jendeak erantzun egiten duela futbol zelaira etorrita. Hori ona da.

Mailaz jaitsi berri da taldea; ze eskatu dizu zuzendaritzak?

Oraingoz, ez dugu helburuen gainean berba egin, lehenengo eguna da gaur [Barre]. Badakit osterara ere hirugarren mailara igotzeko ilusioa hor dagoela, edo, behintzat, ligan aurreko postuetan ibiltzekoa. Gainera, talde ona izango dugu hor borrokatzeko.

Areto futboleko Gipuzkoako finalak Ibarra

UDAn 70. urteurrenaren bueltan, Aretxabaletako kiroldegian jokatu dituzte zapatuan Gipuzkoako areto futboleko ligako finalak. Hala, antolatzaileen asmoa da finalen bueltan jai bat antolatzea; hala, areto futboleko norgehiagoka batetik bestera egongo diren hutsarteetan UDAn futbol eskolako hurrekin txapelketa antolatuko dute.

Finalak goizean hasiko dituzte, 09:30ean, kadeteen partiduarekin. 11:00etan hirugarren mailako finala jokatu dute, 12:30ean bigarren mailakoa, 16:00etan gazte mailakoa, 17:30ean emakumezkoena eta 19:00etan lehenengo mailakoa. Horrekin batera, egunaren amaieran (20:30) egingo den sari banaketa ekitaldia eta ondorengo luntxa D-SKARGA taldearen soinuekin alaituta egongo da. Eta, Bertikal eta Okeletxe etxeek, klubeko babesleek, hainbat sari banatuko dituzte.

SASKIBALOIA

"Urteko sasoi onenean gaude fasea jokatzeko"

Natra Oñatik Donostian jokatu du mailaz igotzeko Lauko Finala, asteburuan

X.U. | OÑATI

Azken zazpi jardunaldietako *esprintak* emandako emaitza ederrari esker lortu du Natra Oñati Aloña Mendik Lauko Finalerako sailkatzea: "Eta ligako momenturik onenean gaudela esango nuke, gainera", dio Gorka Judezek, azken asteotan taldeak ze maila eman duen ikusita.

Asteburuan aurrean izango dituzten kontrarioak, hasiera baten, ez dira eurak baino gehiago: "Esaterako, azken zazpi partidua huetan maila ona eman dugu Goierri Verkol eta Mungia-koen kontra, baina igoera fasean hutsetik hasiko gara denok. Akaso, guk estutu egin behar izan dugu fasean egoteko, eta kontrarioek jokalaria batzuei atsedean eman diete. Baina sekula ez dago jakiterik horrek ze emaitza emango duen".

Hasteko, egin beharreko lehenengo zeregina zapatuan Mungia finaletik kanpo uztea izango da (18:00, Manuel Lardizabal kiroldesia, Donostian). "Oso

LAUKO FINALA

ZAPATUA

16:00 Erroibide I.a-Goierri

18:00 Mungia-Natra Oñati

DOMEKA

12:00 Finala.

partidu gogorra izango da, beterranotasun handiko taldea delako, eta ligan ere indarrak oso parean izan ditugulako, bai euren kantuan, eta baita gurean ere".

Finala, domeka eguerdian

Eta, zapatukoa gaindituz gero, domekan izango dute finala: "Finala saria izango da, iazko arantza ateratzeko aukera. Finalak irabazteko daude, baina emaitzetatik harago garrantzitsua da taldeko jokalaria gazteek halako fase bat jokatzeko aukera izatea".



Joan den astean, faserako sailkatuta, ateratako argazkia, aldagelan. | NATRA OÑATI

ESKUBALOIA



Oñatiarren kontra ligan jokatu du itzuliko norgehiagokan ateratako talde argazkia, hutsarte batean. | GOIENA

"Fase ona egitera goaz Valentziara, baina ez dugu inolako presiorik"

Ford Mugarri Arrasatek Alcasserko taldearen kontra jokatu du gaur 20:00etan: "Etxean jokatzek kalte egin diezaieke", dio Arandok

XABIER URZELAI | ARRASATE

Lerrook irakurtzen dituzueneko Ford Mugarri Arrasate Valentziara izango da, gauez bidaia egin ostean. Asmoa goizean ordubetez entrenatzea zen, eta atsedean hartzeko aprobetxatu eta gero Patxi Garcíaren mutilek 20:00etan jokatu dute etxeko ordezkariekin kontra, Comunidad Valenciana CH Alcasser taldearen kontra: "Igoera fasea etxean antolatuta, Valentziako taldeak presioa izango du. Eta ikusteko dago presio hori zelan kudeatzen duten. Hala, lehenengo partiduan ezustea eman gurako genuke, nahiz eta jakin maila oneko taldea daukatela", adierazi du aste barruan Andoni Arandok.

Presio barik joan dira

Ford Mugarri Arrasateko jokalariek ez dute inolako presiorik

ESANAK

"Lehenengo partiduan ezustean harrapatu gura ditugu"

"Ez dugu duela hiru urte geneukan igo behar sentsaziorik"

ANDONI ARANDO FORD MUGARRI

fase honetan: "Gauzak ondo egitera goaz, inolako zalantza barik. Baina duela hiru urte, esaterako, mailaz igotzeko sekulako gogoa genuen, azken urteotako igoera faseetan huts egin genuelako, eta talde oso ona geneukalako. Aurtengo helburuetan ez zen sartzen aurrean ibiltzea, eta, hainbat jokalaria lesionatuta izan baditugu ere, eta entrenatzaile berria, lortu dugu helburua".

Kataluniarrak, oso talde ona

Aurrez, Kataluniako Handbol Bordils taldea da fasea irabazteko faborito, eta Alcasser taldeak etxean jokatzeko du. Laugarren ordezkariekin gainean -Balears Handbol Marratxi taldea- ez dute informazio askorik: "Baina talde beteranoa dirudi, eta hirugarren partiduan -domekan 10:00etan- freskotasuna faltako zaie".

PILOTA

Finala hilaren 21ean Labriten jokatu du Mendizabal III.ak



Aitor Mendizabal, joan den astean Bergaran. | IMANOL SORIANO

XABIER URZELAI | ANTZUOLA

Maiatzaren 21ean jokatu du Aitor Mendizabalek Promozio Txapelketako finala, Iruñeko Labrit pilotalekuan. Aurrean enpresa bereko Gorka Esteban pilotari errioxarra izango du; hain zuzen, iaz Promozio Txapelketan txapela jantzi zuen pilotaria, baina eskuz binakakoan.

Hala, biak aurrelariak, eta biak pilotari langileak. Izan ere, inork ez die ezer oparitu txapelketako azken txanpara iristeko bidean. Kontrario gazteagoen kontra neurtu behar izan dituzte indarrak, baina lasaitasunez jokatzearren saria jaso dute bai Estebanek eta baita Mendizabal III.ak ere.

Mendizabalek, hain zuzen, Bergarako pilotalekuan lortu zuen finalerako txartela, joan den domekan Iker Taintari 11-22 irabazi ostean.

PILOTA

Herri Artekoan aurreko asteko lan ona defendatzera

Gaur, egubakoitza, jokatu dituzte Herri Arteko Pilota Txapelketako itzuliko norgehiagokak, eta joan den astean egindako lan ona berretsi beharko dute Arrasatek, Bergarak eta Oñatik. Bergarakoek Lasartekoekin bisita izango dute (19:30). Han, kadeteek eta gazteek irabazi egin zuten, eta seniorrek (22-29). Arrasatek, berriz, Aian defendatu beharko ditu (19:30) joan den astean etxean lortutako hiru garai-penak; oñatiarrek, berriz, Zumarragaren kontra jokatu dute, 19:00etan; kadete eta gazteek irabazi zuten Oñatin.

GOITIBEHERAK

San Martzialgo jaitsiera egingo dute Bergaran etzi

Joan den asteburuan hasi zuten, Legazpin, Euskadiko Goitibeheren Liga, eta domekan, hilak 15, Bergarak hartuko du erreleboa, jaian barruan antolatu duten San Martzialgo jaitsierarekin.

Antolatzaileek, guztira, 70 goitibehera inguru espero dituzte, askotariko modalitateetakoak: pneumatikodun ibilgailuak, arinak (*gravity bike*, *skeleton*, *longboard*...), errodamentukoak -klasikoak- edota *drift trike*-koak. Lasterketa 16:00etan hasiko dute, eta tartean Debagoieneko hainbat pilotu izango dira.

ATLETISMOA



Iazko lasterketako irteeran hainbat atleta. | IMANOL SORIANO

Otala Zelai krosak 28 urte beteko ditu domekan

XABIER URZELAI | ARETXABALETA

Domekan, 28. urtez, Urkuluko urtegiko paraje ederrek Otala Zelai krosa hartuko dute, eta aurtengo hitzordua ere Joseba Mardo aretxabaletarra gogoan izateko baliatuko dute. Iaz 110 lagun batu ziren nagusien lasterketan, eta domekarako antolatzaileek ez dituzte gutxiago espero.

Hala, 11:00etan hasiko duten lasterketan korrikalariek 8.400 metroko ibilbideari egin beharko diote aurre. Eta, azken urteotan moduan, sariak izango dira bai gizonezko eta bai emakumezko azkarrenendako, baina baita bikoite misto onenarendako ere.

Iazko irabazleak

Iaz Sergio Gartzia oñatiarra (27.01) eta Nere Arregi (31.33) arrasatearra izan ziren onenak, eta bikote mistoetako lasterketa Igor Martinez eta Ane Zabala arrasatearrek irabazi zuten.

Gaztetxoendako lasterketak

Nagusien probaren aurretik, baina, gaztetxoek lasterketek giro-tuko dute goiza. 10:00etan benjamin mailako gaztetxoek (2006-2007 urte bitartean jaiotakoek) 500 metroko lasterketa izango dute. Alebinek (2004-2005) 1.000 metroko lasterketa, eta infantil mailakoek (2002-2003) 1.500 metro. Sariak 12:30ean banatuko dituzte.

TXIRRINDULARITZA

81. Pentekoste saria egingo dute domekan, Lehendakari barruan

Amateur mailako ziklistak batuko dira domekan (09:30) San Antonioko irteera puntuan, 126 kilometroko lasterketari aurre egiteko gertu.

Elorregi eta Osintxu artean 80 kilometro egin ostean, Asentzioko maldei egin beharko diete aurre ziklistek; birritan, gainera. Hala, Elgetan behera segurua da lasterketa hautsita joango dela, eta ikusteko dago San Antonioko maldan zeinek irabazten duen. Iaz Mikel Aristi herrikidea bigarren sailkatu zen, taldekide barik geratu ostean.

SASKIBALOIA

Pantaila erraldoia jarriko dute Iturripen Baskonia ikusteko

Euroligako Lauko Finala jokatuko du Laboral Kutxa Baskoniak asteburuan Berlinen, eta Ointxe! klubeko ordezkariak, Laboral Kutxaren laguntzarekin, Iturripen harmailak girotu gura dituzte, partidua Iturripen jarraitzeko aukera emanda. Gaur, egubakoitza, 21:00etan, pantaila erraldoia egongo da (doan), eta, Fenerbahce menderatzen badute, eta ekimenak erantzun ona izaten badu, domekako finalean ere pantaila jarriko dute (20:00).

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Aretxabaleta-Santurtzi
Zapatua. 18:00. Ibarra.

OHOREZKO ERREGIONALA

Euskalduna-Aloña Mendi
Zapatua. 15:30. Andoain.

ERREGIONAL PREFERENTEA

Mondra-Urola
Zapatua. 17:30. Mojaitegi.

Aretxabaleta-Zumaia
Zapatua. 15:30. Ibarra.

Soraluze-Bergara
Zapatua. 17:30. Ezozia.

Antzuola-Tolosa
Zapatua. 17:30. Estala.

EMAKUMEZKOEN LIGA

Ordizia-Arizmendi
Zapatua. 16:00. Altamira.

LEHEN ERREG. IGOERA

Orereta-Bergara
Zapatua. 15:45. Beraun.

Ordizia-Mondra
Zapatua. 17:30. Altamira.

OHOREZKO GAZTEAK

Aloña Mendi-Euskalduna
Zapatua. 15:30. Azkoagoin.

Bergara-Burumendi
Gaur. 18:30. Agorrosin.

Zumaia-Aretxabaleta
Zapatua. 15:30. Zumaia.

Urola-Mondra
Zapatua. 15:30. Zumarraga.

GAZTEAK, IGOERA

Añorga-Bergara
Zapatua. 15:30. Donostia.

ARETO FUTBOLA

EUSKAL LIGA
Aretxabaleta-UDA-Durango

Domeka. 11:30. Ibarra.

Scalibur-Eskoriatza

Domeka. 16:15. Basauri.

INFANTILAK

LEK Mondrate-Arantzazuko A.
Zapatua. 12:00. Musakola.

GIPUZKOAKO LIGAKO FINAL

GUZTIAK ARETXABALETAN
Zapatua. 09:30ean hasi eta

19:00ak arte jokatuko dituzte
partidu guztiak Ibarra kiroldegian.

Sari banaketa 20:30ean.

ESKUBALOIA

MAILA NAZIONALERA,

IGOERA FASEA

CH Alcasser- Ford Mugarri

Gaur. 20:00. Valentzia.

Handbol Bordils- Ford Mugarri

Zapatua. 20:00. Valentzia.

Balears Marratxi- Ford Mugarri

Domeka. 10:00. Valentzia.

GIPUZKOAKO KOPA, SENIOR

Izarraitz Aloña M. - Ereintza

Zapatua. 18:00. Zubikoa.

GAZTEAK GIZONEZ. KOPA

Beristain Elgoibar-Aloña Mendi

Zapatua. 16:30. Elgoibar.

GAZTEAK EMAKUME. KOPA

Ereintza-Aloña Mendi

Zapatua. 17:30. Errenteria.

KADETEAK EMAKUME. KOPA

Aloña Mendi-Elgoibar

Zapatua. 16:15. Zubikoa.

SASKIBALOIA

LEHENENGO MAILARA

IGOERA FASEA

Mungia-Natra Oñati

Zapatua. 18:00. Donostia.

* Sailkatuz gero, finala domekan

12:00etan Donostian.

GAZTEAK, ERRENDIMENDUA

Soraluze Bergara-Easo 98

Zapatua. 16:30. Labegarieta.

Aloña Mendi-Ordizia

Zapatua. 12:00. Zubikoa.

GAZTEAK, PARTE-HARTZEA

Mundarro-Soraluze BKE

Gaur. 18:15. Astigarraga.

TXIRRINDULARITZA

PENTEKOSTE SARIA

Domekan, 09:30ean, Bergaran.

Helmuga 12:30 pasatxoan San

Antonion.

GOITIBEHERAK

SAN MARTZIALGO JAITSIERA

Domekan, 16:00etan Bergaran.

PILOTA

HERRI ARTEKO TXAPELKETA

Bergara-Lasarte.

Gaur. 19:30. Bergaran.

Aia-Arrasate.

Gaur. 19:30. Aian.

Zumarraga-Oñati

Gaur. 19:00. Zumarragan.

BERGARA HIRIA, FINALAK

Astelehena, 19:30ean.

ATLETISMOA

OTALA ZELAI KROSA

Domekan, 10:00etan hasita

gaztetxoek lasterketak.

Nagusiena, 11:00etan, Urkulu

urtegi.

TRIALSINA

ERAKUSTALDIA BERGARAKO

JAIETAN

Zapatuan, 17:30ean hasita,

Mariaren Lagundiko patioan.

LANBIDE HEZIKETA DEBAGOIENEA



"etorkizuna zure esku"

ARETXABALETAN

Ate irekiak:

Maiatzak 18

18:30ean

ALE - Aretxabaleta Lanbide Eskola

Etxebarri auzoa, z/g - 22 Pk.

20550 ARETXABALETA

☎ 943 79 79 00 / 943 79 79 43

ia@iaretxabaleta.com

www.iaretxabaleta.com



BERGARAN

Ate irekiak:

Maiatzak 19

18:30ean

Miguel Altuna LHII Bergara

Ibargarai, 1

20570 BERGARA

☎ 943 76 24 91 / 943 76 38 40

imaltuna@saremail.com

www.imaltuna.com



OÑATIN

Ate irekiak:

Maiatzak 24, 18:00etan

(Larraña egoitzan)

IES RM Zuazola - Larraña BHI

San Lorentzo, z/g

20560 OÑATI

☎ 943 78 21 50

013015aa@hezakuntza.net

www.onati.net



AURREMATRIKULA: Ekainaren 6tik 17ra. **MATRIKULA:** Uztailaren 11tik 15era.

KULTURA

Euskal Herriko eta Europako musika eskoletako harrobiak arrakastaz batu ditu Emusik jaialdiak

Debagoienera, besteak beste, Alemaniatik, Suitzatik, Letoniatik eta Eslovakiatik etorri dira

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Europako musika eskolen topaleku izan zen Donostia maiatzaren 4tik 7ra bitartean. 8.500 ikasleek 120 kontzertu baino gehiago eskaini zituzten 59 herritan.

Debagoienerraino ere heldu zen Donostia 2016 ekimenaren barruan antolatutako jaialdia. Aramaion, Aretxabaletan, Arrasaten, Bergaran, Eskoriatzan eta Oñatin hainbat kontzertu egin zituzten. Parte hartzaileen esanetan, prestaketa lan handia eskatu badie ere, gustura daude orain emaitzarekin. Emusik jaialdiaren ikurra den *Musikatu Bizitza* kantuak dioen moduan, hemen ere "musika batzen gaituen hizkuntza komuna" dela aldarrikatu zuten.



IMANOL SORIANO

ARAMAIO "Herrian, oraingoz, musika eskolarik ez dugunez, Udalak hartu zuen antolatzeko ardura. Herriko taldeei parte hartzeko proposatu genien; horrela, bada, Alemaniako hiru talderekin batera, bertsoariak, dantzariak, txistulariak, Bixente Goikoetxea abesbatzak eta Zarzamora taldeak osatu zuten gure jaialdia. Oso denbora laburra izan genuen alemanekin egoteko, baina gustura izan zirela kontatu zuten. Herritarrek ere erantzun ezin hobea eman zuten kontzertuan parte hartzen", azaldu du Kristina Etxenausiak, Aramaioako Kultura zinegotziak.



MIRARI ALTUBE

ARETXABALETA "Azpiegitura aldetik arazoak izan bagenituen ere, positibotzat jotzen dugu Emusik jaialdia. Egubakoitzean Letoniako eta Albaceteko talde bana izan genuen; oso talde jatorrak, biak ala biak. Zoragarria izan zen zapatuan Suitzako eta Alemaniako orkestra sinfonikoen kontzertua. Eskolaren ikuspuntutik oso ondo ikusten dugu horrelako jaialdiak antolatzea, gure ikasleek ikus dezaten asko ikasita helburuak lortzen direla", azaldu du Mariatxen Urkiak, Leizarra musika eskolako zuzendariak.

Udazkenean 'Kooperarock' ikuskizuna

Donostia 2016 ekimenak izango ditu oraindik ere Debagoienean hainbat geltoki; *Kooperarock* ekitaldia izango da hurrengo proposamena. Hasiera baten, maiatzean eta ekainean egin gura zuten, baina, azkenean, udazkenean izango da.

Lankik eta Mondragon Unibertsitateak bultzatu duten kooperatibagintzari buruzko gogoeta artistikoa da. Ekimenak *kooperatzearen artea* izango du hizpide, eta, batez ere, kooperatibak izango dira ardatz. Euskal Kooperatibagintzak azken hamarkadetan lanaren antolaketan, ekonomian eta hezkuntzan izan duen eragina aztertu, eta artearen bidez sozializatzeko helburua duen askotariko diziplinak batzen dituen proiektua da. Emozioen eta ekintzen bidez, bada, herritarrek kooperatibagintzaren funtsa ulertzeko, esperientzia artistikoa eraiki dute MUK eta Lankik, alor ezberdinetako eragilean elkarlanari esker.



IMANOL SORIANO

ARRASATE "Egubakoitzean 150 musikari eta zapatukoan 100 inguru, baina Monterron toki aproposa da horrelako saioetarako. Gironakoek maila ona erakutsi zuten prestatutako errepertorio atseginarekin. Zapatuan, Norvegiakoek txunditu egin zituzten ikusleak; sekulako maila zuten! Suitzarrek euren jaioterriko kantu tipikoak interpretatu zituzten; nire iritziz, euren izan zen musikariek atseginena. Egoteko denbora laburra izan genuen, baina harremanetan jarraitzeko konpromisoa hartu genuen", dio Arrasate Musikaleko Edorta Aiastuik.



IMANOL SORIANO

ESKORIATZA "Esperientzia aberasgarria izan da ikasleentzako; beste herrialde batzuetakoekin egoteak erakutsi die musika komunikatzeko eta adierazteko tresna ere badela. Alemaniako hiru talde izan ziren: musika banda bat, orkestra sinfoniko bat eta perkusio talde bat. Goi mailakoak guztiak. Bitxikeria moduan esan behar da autobusez Atxorrotzeko gaztelura joateko aukerarik bazuten galdetu zidatela. Ezezkoa erantzun nien, penaz, baina gustura asko dastatu zuten gero eskaini genien *txoripan-a*", azaldu du Araceli Telletxeak, Beheko Errotako zuzendariak.



IMANOL SORIANO

BERGARA "Egubakoitzean Ilunben izan zen ekitaldira 110 ikaslerekin joan ginen: dantzariak, abeslariak eta musikariak. Ikaragarria izan zen! Arratsaldean, berriz, Alemaniako eta Suitzakoak izan ziren Bergaran; maila handia erakutsi zuten biek ala biek. Bereziki, suitzarrekin egin zuten gure ikasleek harremana. Zapatuan eslovakiarrak hartu genituen. Donostiako amaiera ekitaldian ere izan ginen; hori ere ederra! Holandan izango da, 2018an, hurrengo jaialdia eta gure ikasleek hara joan nahi dutela diote", dio Marije Ugaldek, Bergarako eskolako zuzendariak.



IMANOL SORIANO

OÑATI "Aretxabaletan moduan, gurean ere Alemaniakoak, Suitzakoak, Albacetekoak eta Letoniakoak izan ziren. Kontzertua herriko plazan egitea zen gure asmoa, baina haize zakarraren eraginez arriskutsu zegoelako erabaki genuen azkeneko momentuan Santa Anan egitea. Herriko hainbat toki esanguratsu bisitatzeko aukera izan zuten bisitariak, eta baita Udal ordezkarien oparia jaso ere. Zapatuko saioa borobiltzeko, gure ikasleek atzerrikoekin batera kantatzen ikustea bereziki hunkigarria izan zen", dio Jaione Intxaustik, Jose Azpiazu eskolako irakasleak.



Enkore taldea Bilboko Kafe Antzokian. | ENKORE

Enkore eta Lauroba taldeak Oñatiko gaztelekuan bihar

22:30ean izango da kontzertua eta sarrerek bost eurotan egongo dira salgai

ENeko AZURMENDI | OÑATI
Bihar, zapatua, Enkore eta Lau-
roba taldeen kontzertua egongo
da Oñatiko gaztelekuan, 22:30ean
hasita, gaztelekuak berak anto-
latuta. Sarrerek momentuan ber-
tan bakarrik erosi ahal izango
dira, bost eurotan.
Euskal Herrian ezagunak diren
bi talde dira eta ibilbide esangu-
ratsua dute, gainera.
Bata zein bestea disko berria
aurkezteko bira egiten dabilta
eta biharko kontzertua ere horre-
tarako baliatuko dute.
Taldea bizkaitarra *Enkor3* dis-
koa aurkezten dabil. "Izen horrek
taldearen arima islatzen du, bi e
horiek taldearen izena eta Erre-
kalde ordezkatzeko dute –taldea
Bilboko auzo horretakoa da–.
Bestalde, hirugarren diskoa dela

irudikatzen du, zenbakiaren itxu-
ra antzerakoa du eta", dio *Xabi
Hoo-k*, taldeko abeslariak.
Musika estiloari helduta, dis-
ko hau rockeroagoa eta dantza-
garriagoa dela nabarmendu du,
eta azken diskoarekiko garapen
musikala egon dela.
Lauroba taldeari dagokionez,
IV izeneko diskoa da aurkezten
dabilena. "Zenbaki horrekin hain-
bat kointzidentzia izan dira. Lau
urte pasa dira azken diskoa aur-
keztu genuenetik, gure laugarren
diskoa da, lau estudiotan graba-
tu dugu eta urteko laugarren
hilabetean aurkeztu genuen dis-
koa", azaldu du Iker Lauroba
taldeko ahots eta gitarra-joleak.
Disko honek folk estiloa eta
musika elektroniko modernoa
uztartzen dituela dio Laurobak.

Bi taldeak gogotsu
"Inoiz ez dugu aukerarik izan
Oñatin jotzeko, eta, egia esan,
animatuta eta pozik gaude", onar-
tu du Enkore taldeko abeslariak.
Gaineratu du herria bera ez dute-
la ezagutzen. "Urrun gelditzen
zaigu Bilbotik", dio. Hala ere,
aukera hau Oñati ezagutzeko
baliatuko dutela aitortu du.
Laurobari dagokionez, duela
urtebete inguru eskaini zuen
kontzertua, gaztelekuan bertan,
eta abeslariak dio "oso giro ona"
egon zela bertan.
"Bi taldeak bateragarriak gara,
kontzertu polita izango da, segu-
ru. Gainera, harreman ona dau-
kagu beraiekin eta gau ederra
izango da", azaldu du Iker Lau-
robak. Azkenik, gerturatzeko dei
egin die herritarrei.

'Aureo': dantza estilo ezberdinen dastaketa



Itzik Galilik sortutako *Casi humano* koreografia dantzatzen. | DANTZAZ

A. A. | ARRASATE
Dantza garaikidearekin gozatzeko aukera izango da bihar, zapa-
tua, 19:30ean, Amaia antzokian,
Dantza taldearen eskutik. Bihar-
koaz gainera, ikastetxeendako
emanaldi itxia egingo dute gaur.
"Bost koreografiarekin osatu-
tako emanaldia izango da; horie-
tako bakoitza nazioartean oso
ezagunak diren koreografo batek
sortu du. Hainbat dantza estilo
biltzen saiatu gara, askorendako
gozagarri izan dadin *Aureo*. Bakoit-
zak, istorio zehatz bat baino gehia-
go, irudi edo kontzeptu bat jasotzen
du: edertasunaz jarduten du batek;
arrantzaleen ingurukoa da, beste
bat; poesiaz beterikoa da hiruga-
rrena... Horiek guztiak egingo
dituzte agertokian izango diren
bederatzi dantzarik", azaldu du
Fernando Saenz de Ugartek, Dan-
tzaz taldeko zuzendari nagusiak.

Irati Jimenez idazlearen eskutik jaso dituzte AEDren literatur lehiaketako sariak

135 lan jaso ditu euskara elkarteak aurten: 63 ipuin, 43 poesia eta 29 bertso-paper

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE
Kulturateko areto nagusia idaz-
le gazteen topaleku izan zen
atzo, eguna. 29. Arrasate lite-
ratur lehiaketaren barruan, 21
sari banatu zituzten; izan ere,
hiru bigarren sari eman barik
uztea erabaki zuen epaimahaiak.
Guztira, 28 gazteren lana
saritu zuten, eta horietako bi
lagunek sari bat baino gehiago
eskuratu zituzten: Maria Ose-
sek, ipuin atalean jasotakoaz

gainera, poesia atalean ere bes-
te bi gehiago eskuratu zituen;
eta Deiane Marcosek, berri-
z, ipuinetan eta poesian sari bana.
Dirua eta oroigarria
Mundakako idazlea gonbidatu
zuten atzoko sari banaketara.
Haren eskutik jaso zuten ira-
bazleek 100 eta 200 euro tarteko
txekea eta oroigarria. Oztopen
gainetik, idazten jarraitzera
animatu zituen gaztetxoak.

AURTENGO IRABAZLEAK	
IPUIN LEHIAKETA	BATXILERGOTIK GORA
LH 5-6	
1. saria: Jurgi Irasuegi, <i>Bizitzan etsipenik ez!</i> lanagatik.	1. saria: Deiane Marcos, <i>Osagarriak dira kontrajarriak</i> lanagatik.
2. saria: Unai Egidon, <i>Mozorro kaxa</i> lanagatik.	2. saria: Itziar Elkorobarrutia, <i>Bada garaia</i> lanagatik.
DBH 1-2	
1. saria: Irene Murua, <i>Alkatetik detektibera</i> lanagatik.	BERTSO-PAPER LEHIAKETA
2. saria: Kattalin Linazisoro eta Naroa Etxebarría, <i>Asteburu pasa Urbanas</i> lanagatik.	LH 5-6
DBH 3-4	
1. saria: Maria Oses, <i>Ezer ez da betiko</i> lanagatik.	1. saria: Bertso eskolako taldea: Ane Enbeita, Naiara Ibabe, Garazi Barrena, Beñat Barrena, Eñaut Lasaga, Garazi Urrutia, Irati Martinez, Ane Zeziaga eta Ixiar Okina, <i>Telebista</i> bertso sortagatik .
2. saria: Nerea Agirre, <i>451</i> langatik.	2. saria: Saioa Coronado, <i>Pobrezia</i> bertso sortagatik.
BATXILERGOTIK GORA	DBH 1-2
1. saria: Matilde Aizpurua eta Deiane Marcos, <i>Infernuan elkartuko gara, Victoria</i> lanagatik.	1. saria: Olatz Zuazubiskar, <i>Ispiluari begira</i> bertso sortagatik.
2. saria: Hutsik geratu da.	2. saria: Hutsik geratu da.
POESIA LEHIAKETA	DBH 3-4
LH 5-6	
1. saria: Oihana Romero, <i>Negua aldatu eta uda bihurtu...</i> lanagatik.	1. saria: Haizea Arana, <i>Zabaldu behingoz begiak</i> lanagatik.
2. saria: Hutsik geratu da.	2. saria: Oihana Aranari, <i>Inspirazio gabeko poetari</i> bertso sortagatik.
DBH 1-2	BATXILERGOTIK GORA
1. saria: Jurgi Iraola, <i>Onartu, hari edo besteari</i> lanagatik.	1. saria: Ane Zuazubiskar, <i>Itzal bati</i> lanagatik.
2. saria: Esti Benitez, <i>Badoa ez bueltatzeko</i> lanagatik.	2. saria: Marixe Ruiz de Austri, <i>Galdu duenari</i> lanagatik.
DBH 3-4	
1. saria: Maria Oses, <i>Arrantzale bakartiena</i> lanagatik.	
2. saria: Maria Oses, <i>Gure eserleku urdin urratua</i> lanagatik.	



Edertasuna barnealdean dago. Etorri eta ezagutu; spot onenaren pasarteetako bat. | EUSPOT

Atzo banatu zituzten Arkupen 'Euspot' lehiaketako irabazleak

- 'Edertasuna barnealdean dago. Etorri eta ezagutu' spotak irabazi du
- Jasotako 2.000 botoetatik 220 jaso ditu publikoaren sarirako spotak

IRATI ELORTONDO | ARETXABALETA

Atzo banatu zituzten *Euspot* lehiaketako spot irabazleak Aretxabaletako Arkupe kultur etxean. Lau sari potolo banatu zituzten eta antolatzaileek maila oso ona egon dela azpimarratu dute, bai tekniko aldetik eta bai hizkuntza publizitario aldetik ere.

Maila paregabea

Gazteen sarien mailan aurtengoan bi sari banatu dituzte, bakoitzak 250 euro eskuratuz. Bi talderen artean puntuazio berdinketa egon da eta *Etorri, bizi, gozatu* (Eider Pozo, Marina Mulas, Maider Uribe txeebarria, Nerea Madinabeitia eta Leire Ancin) eta *Gozatu Gipuzkoa* (Danel Teran Fernan-

dez eta Iker Plazaola Acosta) lanak izan dira irabazleak. Aurtun publikoaren sarian 500 euro banatu dira. Aretxabaletako udaleko ordezkariak banatu zion saria 220 boto jaso zituen *Amestu, murgildu, bizi* spotari. Mondragon Unibertsitateko Alaine Aranburu, Eider Ballina, Anne Baskaran eta Imanol Eppherre ikasleek jaso zuten saria, *Music Library*-ko ordezkariak banatuta. Mondragon Unibertsitatea babesle izanik, bertako ikasleek parte hartzeko aukera dute, MUko ikasleek spotik onena irabazteko aukera izanik. Guztira, 500 euroko saria jasoz, *Sartu barrura* spotak irabazi zuen saria; Joseba Fuentes, Saioa Murura, Iratz

Urkizu eta Josu Odriozola ikasleek eskutik. Azkenik, saririk potoloena ere Mondragon Unibertsitateko ikasleek jaso zuten, *Edertasuna barnealdean dago. Etorri eta ezagutu!* izenpean. Guztira, 1.000 euroko sari potoloa

DATUA

34

SPOT

Aurtengo parte hartzea handia izan da; batez ere, gazteena. Guztira, 13 lan jaso dituzte, 14-18 urte bitarteko gaztetxoek.

eraman zuten etxera. Gipuzkoako Foru Aldundia babesle nagusi izanik, Diputazioko ordezkariak banatu zien Patxi Irigoyen, Kike Otegui, Ibai Zabala eta Martxel Zubia ikasleei saria.

Giro aparta ekitaldian

Sari banaketa Arkupe kultur etxean izan zen, 19:00etan. Ekitaldia Angel Alkain aktoreak girotu zuen, giro paregabea bermatuz. Horrez gain, aurkeztutako 34 lanetik, epaimahaiak aukeratutako 20 finalista proiektatu zituzten. Amaitzeko, luntxa egon zen eta parte hartzaile, irabazle eta gerturatu ziren guztiek ekitaldiari amaiera paregabea emateko aukera izan zuten.

Sorkun Aretxabaletako Arkupen bihar 20:00etan

IRATI ELORTONDO | ARETXABALETA

Ziklomorphosia azken diskoa aurkeztera hurbilduko da Sorkun abeslari errenteriarra Aretxabaletara. Arkupe kultur etxeko Zaraia aretoan eskainiko du kontzertua, bihar, zapatua, hilak 14, arratsaldeko zortzietan.

Debagoienera itzuli

Hilabete gutxiren buruan dator berriz Sorkun Debagoienera; izan ere, otsailean izan zuten oñatiarrek *Ziklomorphosia* diskoaren aurkezpena entzuteko aukera, eta orain, bertara gerturatzeko aukerarik izan ez zutenek Aretxabaletan Sorkun ikusteko aukera izango dute. Jazz arloko musikariek batera etorriko da Sorkun, hala nola Juanma Urri- zarekin, Mikel Romerorekin eta Fredi Pelaezekin. Kantuen hitzak idazteko orduan Eider Rodriguez idazlea izan du alboan. Haien artean kode estuak dituzte; Sorkunek Eiderri esaldi edo keinu bat eman- ez, Eiderrek bat-batean sor- zezakeen kantu oso bat.

Sarrerak

Sorkun errenteriarren kontzertuaz gozatzeko sarrerak 4 eurotan izango dituzte esku- ragarri zaleek Aretxabaletako Arkupe kultur etxean.



Sorkun abeslaria. | PROMOMUSIKA

Literatur topaketak egingo dituzte eguaztenean Eskoriatzan

IRATI ELORTONDO | ESKORIATZA

Zergatik irakurri klasikoak? gal- derari erantzungo diote maiatza- ren 18rako Humanitate eta Hez- kuntza Zientzien Fakultateak antolatu duen literatur topaketan. Aurtengoa jardunaldiaren 13. edizioa izango da, eta, iaz bezala, Eskoriatzako Zaldibar aretoan egingo da.

400. urteurrena

Aurtengo topaketaren helburua da idazle nahiz ipuin klasikoak irakurtzearen onurez hausnar- keta egitea eta horiek eskole- tan nola lantzen diren ezagutzea. Italo Calvinoren *Por qué leer los clásicos* obra ezagunaren izenbu-

rua aitzakia moduan hartuta, topaketaren antolatzaileek gogoan hartu dute aurtun beteko dela William Shakespeare eta Miguel de Cervantes idazleen heriotzaren 400. urteurrena.

Hitzaldi esanguratsuak

Goizeko bederatzieta, ipuin kla- sikoek haurren garapen psikoa- fektiboan duten eraginaren gai- neko hitzaldia eskainiko du Juan Karlos Alonsok. Hamarretatik aurrera, Ibon Egaña igoko da oholtzara, haur eta gazte litera- tura klasikoari keinu eginez. Hamaiketan, Angel Errok klasi- koak irakurtzeko 33 arrazoi azal- duko dizkie gerturatzen diren

guztiei. Azkenik, hamabietan, Lekeitioko eskolari buruz min- tzatuko dira. Bertako eredu aint- zat harturik, bertan klasikoak eredu formalean nola lantzen dituzten erakusteko. Monika Madinabeitia arduradunaren hitzetan: "Ikasleen profila nolakoa den ikusita, egokia iruditu zitzaigun praktika gisa lantzea."

Klasikoak azpimarragarri

Monika Madinabeitiaren hitze- tan: "Askotan, literatura bera, eta *klasikoa* hitza gehitzen badio- gu, astuntzat eta aspergarritzat bizi da. Gure helburua da iku- saraztea gaur egun oraindik ere klasikoek zentzua izan dezake- tela". Ikasleei begira antolatzen dituzte literatur topaketak, ez baita graduari nahi beste lantzen, eta hura indartzekotan aukera- tu zuten aurtengo gaia.

Musika estilo eta talde asko Bergarako jaietan

IRATI ELORTONDO | BERGARA

Gaur hasiko dira Bergarako jaia- k, eta haiek hastearekin batera beteko dituzte txosna- gunea eta San Martin plaza musika talde ezberdinek.

Txosnetan eta plazan

Txosnetan hasiko dira kontzer- tuak, gaur, 21:00etan, Bad Sound System eta Fridays Crew tal- deekin. San Martin plazan 23:00etan En Tol Sarmiento taldearekin dantzaldia egongo da. Bihar, San Martin plazan Kepa Junkera & Sorginak tal- deak eskainiko du kontzertua,

gaueko hamaiketan. Txosnetan ere arituko dira hainbat talde, hala nola Mc Onak, Polygorn eta BET -disko musika-. Dome- kan, arratsaldeko seietatik aurrera Harresian Zulo eta Azkaiter Pelox Triok alaituko dute txosnagunea. Astelehenean, Laket, The Sparteens, Nebulo- sa eta DJ Bull izango dituzte bergarrek, zortzietatik aurre- ra, txosnetan. Fiachras eta Per- lak martitzenean egongo dira txosnagunean zazpizetik aurre- ra. Eta Oihan Vega DJak San Martin plaza alaituko du jaiei amaiera paregabea emateko.

Endika Ugarte | Igerilaria

"Gorputz osoa trebatzen da igeriketan, oso kirol konpletoa, aberasgarria eta gomendagarria da"

IRATI ELORTONDO | BERGARA
Endika Ugarte (Bergara, 2002) Gabonak pasa ostean hasi zen igeriketan; izan ere, urte askoan karatean ibili eta gero, gerrikoa alde batera utzi eta bainujantzia hartu du oraingoan. Karatean hainbat domina irabazi zituen, eta, igeriketan lehiaketetara joateko aukerarik izan ez badu ere, etorkizunari begira gogotsu dagoela dio.

Zergatik eta noiz hasi zinen igeriketan?
Txikitatik asko gustatu izan zait beti; karatean hasi nintzen, baina igeriketa gehiago gustatzen zait. Gabonetako oporren ostean hasi nintzen igeriketan; denbora laburra daramat, baina oso gustura nago.

Zer-nolako entrenamendua izaten duzue?
Astelehen eta asteazkenetan entrenatzen gara arratsaldeko bost eta erdietan, ordubetez ibiltzen gara Bergarako igerilekuan entrenatzen. Poliki-poliki hasten gara entrenatzen, eta erritmoa azkartzen joaten da; ariketa zailagoak izaten ditugu denbora aurrera joan ahala. Nahiko talde handia dugu; guztira, bi espaloi betetzen ditugu igerilekuan. Taldeko zaharrena naiz, azkena sartu naizena, gainera; gehienak urtebete gazteagoak dira, baina badaude ni baino askoz gazteagoak direnak.

Badago igeriketarako afiziorik Bergaran?
Jende asko animatzen da urtero, afizioa nabarmena da. Igerilekua beteta egoten da beti. Ez da kirolik famatuena herrian, gehienek futbolera jotzen dute eta. Baina urtero-urtero apuntatzen diren gazteen kopurua handitzen doa, eta hori pozgarria da igerilariontzat. Esan beharra dago nire lagunen artean ez dagoela igeriketara jotzeko joerarik, bakarra naiz kuadrillan igeriketan; eta lehenago, karatean, dabilen bakarra. Gehiago sustatu beharko genukeen kirola da, honen berri gehiago eman eta jende gehiago apuntatzera animatu.

Zer dauka igeriketak beste kirolek ez daukatena?
Gorputz osoa trebatzen da igeriketan, oso kirol konpletoa da. Gorputz guztia erabiltzen dugu, eta hori aberasgarria da. Karatearekin alderatuz, kirol gehiago egiten da, nire ustez, interesgarriagoa da. Igerilekuan gelditu gabe egoten gara beti, deskantsu

gutxiago ditugu eta kirol gehiago egiten da. Igeriketa, adibidez, oso entrenigarria da karatearekin alderatuz. Hasiera-hasieratik oso gustura egon naizen kirola izan da, esperientzia onekoa.

Beste taldeetakoekin egoteko aukerarik izan duzu?
Oraingoz, ez dut aukerarik izan, orain dela gutxi hasi nintzen igeriketan. Karatean nenbilenean, beste herri batzuetako jendea ezagutzeko aukera izan nuen. Igeriketan ere izango dut aukera aurrerago, seguruenik. Nire taldekideek, bestalde, izan dute aukera beste herri batzuetako jendearekin egoteko. Lehiaketetan jende asko ezagutzeko aukera izan dezakegu, guraso ugari joaten dira ikustera, eta aberasgarria da.

Nola ikusten duzu igeriketaren egoera, orokorrean?
Uste dut afizioa handitu egingo dela, geroz eta jende gehiago apuntatzen da. Lehen, ez zen ia inor joaten igerilekura, eta, oraindik gutxi bagara ere, uste dut etorkizunean gehiago izango garela. Telebistan ikusteko ohiturarik ere ez dago; nik neuk ez dut gustuko, adibidez, eta uste dut horrenbesteko afiziorik ez izateko arrazoia ere hori izan daitekeela.

Lehiaketetan ibili ohi zara karatean; igeriketarako prest?
Hilabete gutxi daramatzat igeriketan, eta oraindik goiz da lehiaketetan pentsatzen hasteko, baina animatuta nago. Nire taldekideak ibili izan dira parte hartzen; espero dut etorkizunean nik ere parte hartzea. Karatean nenbilenean, Bergarako Shotokan-en, dominak irabazteko aukera izan nuen, eta pozgarria da esfortzu handia egin eta gero saria lortzea.

Non ikusten duzu zure burua hemen-dik urte batzuetara?
Igeriketan jarraitzeko gogo handiz nabil, espero dut urte askoan jarraitzea eta primeran aritzea.

PERTSONALA	
Igeri egiteko leku bat: Itsasoa.	Amets bat: New Yorkera joatea.
Bizi izateko leku bat: Donostia.	Bergarako txokorik gogokoena:
Janari bat: Hanburgesa.	Usono parkea.
Film bat: <i>Star Wars</i> .	Abesti bat: Hesian taldearen <i>Non zaude</i> .
Telesail bat: <i>The Walking Dead</i> .	kantua.



Endika Ugarte bergararra entrenamendua hasi aurretik.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. Santa Marina kalean 55 metro koadroko etxebizitza salgai. Hirugarren solairuan. Gela guztiak kale-
ra begira. Egongela, sukaldea, komuna eta bi logelakoa. Sotoa ere badu. Harremanetarako: 605 70 98 60 edo santamaina10@gmail.com

Bergara. 190 metro koadroko duplexa salgai. Lorategia, baratzea eta garajea dauzka. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 678 47 43 52 edo 943 76 50 97

102. EROSI

Baserria. Baserria errentan hartu edo erosiko genuke. 661 22 76 83

103. ERRENTAN EMAN

Eskoriatza. Etxebizitza guztiz jantzia ematen da errentan Eduardo Gorosarri enparantzan. Sukaldea, bi bainugela, egongela eta hiru logela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 605 77 51 65

Pineda (Tarragona). 65 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan. Terraza handia eta altzariz hornitua, igerilekua eta garajearekin. Hondartzatik 200 metrora. Urte osorako edo udasasoirako. Asteko, hamabost eguneko eta hilabeteko tarifak. Harremanetarako, deitu zenbaki honetara: 634 42 13 70, edota idatzi posta elektronikoa oskar.carrascal@gmail.com helbidera.

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Bertako bikotea, Aretxabaletan etxebizitza bila. Logela batekoa, bikoa edo hirukoa. 664 545 377

Arrasate. Bi edo hiru logelako etxebizitza hartuko genuke errentan. 634 14 36 65

Arrasate. Egoera onean dagoen bi logelako etxebizitza hartuko genuke errentan. Ezin dugu hilean 500 euro baino gehiago ordaindu. 634 07 99 70

Arrasate. Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. 632 92 67 36 edo 602 30 45 86

Bergara. Bi logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. Hilean 350-400 euro ordain ditzaket. Berdin da altzaririk ez badago. 632 77 35 38

105. ETXEA OSATU

Logela errentan Oñatin. Logela ematen da errentan erdigu-
netik oso gertu dagoen duplex berri batean. Pertsona ardura-
tsua eskatzen da. Wifi konexioa-
rekin. 656 74 29 49

2. GARAJEAK

204. ERRENTAN HARTU

Antzuolagarajea. Antzuolan garaje baten bila ari gara erren-
tan hartzeko. Interesatuok deitu
zenbaki honetara: 676 61 15 47

4. LANA

401. ESKAINTZAK

ARRASATE

Esperientziadun
ile-apaintzailea
behar da.
943 79 79 65

BERGARA

Sukalde
laguntzailea
behar da.
629 26 88 51

Antzuola. Emakume edo neska euskaldun bat behar dugu 5 urteko bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. 606 27 87 47 edo 606 26 71 53

402. ESKAERAK

Arrasate. Neska arduratsua, lege paperak dituena, garbiketan aritzeko edo nagusiak zaintzeko lan bila. Orduka, gabez zein aste-buruetan. 618 14 71 34

Bergara. Neska gertu bulego eta lokalak garbitzeko eta nagusiak lagundu edota afariak gertatzeko. 610 34 97 88

Bergara. Neska gertu etxe garbiketak egiteko orduka. Ordua 7 euroan. 943 25 38 64

Debagoiena. Neska gertu arratsaldetan nagusi eta umeak zaintzeko edo garbiketako lanak egiteko. 696 84 19 51

Debagoiena. 10 urte baino gehiagoko esperientzia daukat pertsona nagusien zaintzan. Aurretik lan egindako familien erreferentziak aurkez ditzaket. Orduka edo etxean bertan lan egiteko prest. 617 72 94 98

Debagoiena. 32 urteko emakumea gertu nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Harremanetarako: 602 18 95 92 edo rameshparu57@yahoo.com

Debagoiena. Asteburuetan nagusiak zainduko nituzke. 687 36 02 86

Debagoiena. Egunean zehar nagusi eta umeak zaintzen edo garbiketak egiten lan egingo nuke. 681 37 60 13

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaintzeko. Izan daitezke dependentzia dutenak edo ondo moldatzen direnak. Esperientziaduna naiz. 634 94 31 60

Debagoiena. Emakumea orduka etxeko lanak egiteko gertu. Autoa daukat. 632 77 35 38

Debagoiena. Erizain laguntzaile titulua duen neska zaintza lanetarako gertu. Esperientzia dut eta erreferentziak aurkez ditzaket. 620 23 58 15

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten, egun erdiz zein orduka lan egingo nuke ume eta nagusiak zaintzen. 632 46 17 94

Debagoiena. Garbiketak, nagusiak zaintzen lan egingo nuke, orduka edo egun osoz. 638 85 43 36

Debagoiena. Geriatriako titulu duen neska prest orduka lan egiteko. Etxeetan lan egiteko ere bai, orduka. Eskarmentu handia. Autoa daukat. 600 00 51 60

Debagoiena. Gizona gertu orduka pertsona nagusiak zaindu, kalera irtetzen lagundu eta abarretarako. 634 09 55 46

Debagoiena. Gizona gertu pertsona nagusiak zaintzeko eta etxeko mantentze lanak egiteko. 634 14 36 65

Debagoiena. Gizona lanerako gertu: garbiketak, banaketak edo denetarikoko lanak. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 77 35 38

Debagoiena. Mutila nagusiak zaintzeko gertu. Esperientzia daukat eta sukaldean ere ondo moldatzen naiz. Autoa daukat. 647 01 74 66 (Cristino)

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Astebeteko prezioa: 17 euro / 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK

201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

4. LANA

401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

3. LOKALAK

301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

6. MOTORRA

601. Saldu
602. Erosi
603. Errentan eman
604. Bestelakoak

7. ANIMALIAK

701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK

801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805. Trukatu
806. Galdu
807. Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK

901. Agurak
902. Harremanak
903. Delak
904. Bestelakoak

Lana. Umeak eta nagusiak zain-
tzen esperientzia daukat. Taber-
nako zerbitzari moduan, gozoki
dendan eta urdaitegian ere bai.
Presazkoa da. Eskerrik asko. 676
44 85 58

Lan bila. Neska euskalduna
prest adineko pertsonak zain-
tzeko, etxeko lanak egiteko edo
umeak zaintzeko, Arrasaten,
Aretxabaletan, Eskoriatzan,
Gatzagan, Aramaion, Antzuolan
eta Elgetan. 634 81 54 93

Oñati, Arrasate edo Bergara. Emakume oñatiarra, Haur
Hezkuntzako ikasketekin, arra-
tsaldetan haurrak zaintzeko edo
orduka garbiketa lanak egiteko
prest. Kontratuarekin egingo
nuke lan. 664 53 28 56

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. Neska bat behar dugu
10 urteko neskatila bati eskola
partikularrak emateko. Interesa-
tuok deitu zenbaki honetara:
696 84 19 51

6. MOTORRA

601. SALDU

Kymco People S 200 c.c. scooter motoa. 2011 urtekoa
eta 4.200 km bakarrik! Azken
errebisioa 2016ko apirilaren
25ean egina. Prezioa: 1.000
euro. Deitu eta probatu konpro-
miso barik. Tel.: 629 06 93 60

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Katakumeak. Hilabeteko kata-
kumeak ematen dira opari. Inte-

Emakumea lanerako prest.

Emakumea umeak edo nagusiak
zaintzeko edo etxeko garbiketak
egiteko prest. Aretxabaleta eta
inguruak. Interesatuok deitu
zenbaki hauetara: 632 44 92
85 edo 665 21 38 21

Debagoiena. Nagusiak zain-
tzen, garbiketan eta sukalde
laguntzaile moduan lan egingo
nuke. 691 03 25 02

Debagoiena. Neska ardura-
tsua ume eta nagusiak zaintze-
ko gertu. Etxean bertan bizi
izaten edo bestela. Deitu tele-
fono honetara: 688 81 54 08

Debagoiena. Neska ardura-
tsua ume eta nagusiak zaintze-
ko gertu. Etxean bertan bizi
izaten edo bestela. Deitu tele-
fono honetara: 688 81 53 35

Debagoiena. Neska espainia-
rra gertu nagusiak zaintzeko,
egunez edo gabez. Etxeak, ata-
riak eta tabernak garbitzen ere
arituko nintzateke. Esperientzia
dut. 603 45 83 80

Debagoiena. Neska gertu
egunez edo orduka garbiketako
zaintza lanak egiteko. 603 64
98 53

Debagoiena. Neska gertu
etxean bertan bizi izaten edo
bestela lan egiteko. Berehala
hasteko prest. Orduka ere bai.
631 27 02 83

Debagoiena. Neska gertu
garbikerak egin, nagusiak zaindu
eta abarretarako. Txarkuterian
ere lan egingo nuke. Orduka edo
jardun osoz. 600 61 89 96
(Marisol)

Debagoiena. Neska zaintzan
edota garbiketan aritzeko gertu.
Orduka zein etxean bertan bizi
izaten. Interesatuok deitu zen-
baki honetara: 603 29 94 29

Debagoiena. Pertsona naga-
siak zaintzen edo etxe, atari eta
abarrak garbitzen lan egingo
nuke. Berehala hasteko gertu
nago. 688 65 14 17

Debagoiena. Sukalde lagun-
tzaile, nagusiak zaintzen edo
garbiketak egiten aritzeko gertu
nago. Orduka, etxean bertan bizi
izaten edo bestela. Deitu tele-
fono honetara: 685 64 85 64

Debagoiena. Zerbitzari
moduan, nagusi eta umeak zain-
tzen edo denetarikoko garbiketa
lanetan arituko nintzateke. Inte-
resatuok deitu zenbaki honeta-
ra: 629 29 11 23

resatuok deitu zenbaki honeta-
ra: 615 73 68 07

8. DENETARIK

801. SALDU

Akaziazko hesolak. Eskuz
egindako akaziazko hesolak sal-
gai. 1,80 metrokoak. Interesa-
tuok deitu zenbaki honetara:
605 76 10 00

Lursaila Aretxabaletan. 1.000 metro koadroko landa-lur-
saila salgai Etxebarri auzoaren
atzealdean. Bista paregabeak
eta herriatik gertu. Prezioa mer-
katua. Interesatuok deitu zen-
baki honetara: 618 76 34 40

805. TRUKATU

Zaldiendako lursaila. Zaldiak
bertan izateko moduko lursail
bila ari naiz. Trukean, lursaila
garbi mantenduko nuke. Inter-
esatuok deitu zenbaki honetara:
697 41 66 24

806. GALDU

Eraztuna Bergaran. Eraztuna
galdu nuen Bergaran, Espoioia
eta Ibargarai artean, apirilaren
28an. Urre zurikoa da eta harri-
txo bat dauka. Aurkitu baduzu,
eskertuko nuke deitzea: 675 70
06 43

Mugikorra Bergaran. Kaixo,
ostegunean, maiatzak 5, mugi-
korra galdu nuen Oilagorria sozie-
dade inguruan, Joan XXII plazan.
Aurkitu baduzu, mesedez deitu
telefono honetara. Mila esker.
649 44 48 99

Poltsa Bergaran. Maiatzaren
30eko gauean, umearen Hello
Kitty-ren poltsa bat galdu
genuen. Aurkitu duenak, telefo-
no honetara deitzea eskertuko
nuke. 661 10 29 66

Loramendi Elkarteak dinamizatzailea behar du

Eskaintzen da:

- Aretxabaletako euskararen, kulturaren eta aisiaren gaineko proiektuak herriitarrekin dinamizatzea.
- Egun erdiko lana
- Berehala hasteko

Eskatzen da:

- Euskalduna izatea
- Euskalgintza ezagutzea
- Dinamizazio eta kudeaketarako gaitasuna
- Oinarritzko IKT ezagutzak



Interesatuok bidali curriculum vitae a maiatzaren 20a baino lehen
loramendielkartea@gmail.com helbidera.

EMUN Aholkularitzak lan poltsa osatzeko deialdia egiten du

1.- EUSKARA PLANAK GARATZEKO TEKNIKARIAK

2.- PARTE HARTZE PROZESUAK BIDERATZEKO TEKNIKARIAK

Eskakizunak eta konpetentziak:

- Lizentziatua izatea.
- Euskara maila altua izatea (gutxienez EGA edo baliokidea).
- Euskara planetarako: euskararen normalizazioan edota euskalgintzan esperientzia edukitzea.
- Parte hartze prozesutarako: parte hartze prozesuetan esperientzia edukitzea.
- Taldeen lidergoan eta proiektuen kudeaketan aritua izatea.
- Komunikatzeko eta taldeak dinamizatze gaitasuna izatea.
- B1 gida-baimena edukitzea.

Baloratuko da:

- Hizkuntzen ezagutza (4.HE, ingelesa, frantsesa, katalana,...).
- Parte hartze masterra edo baliokidea.
- Emakume eta gizonen berdintasunerako masterra edo baliokidea.
- Harremanetarako eta koordinaziorako gaitasuna.
- Talde lanean aritzeko gaitasuna eta jarrera.
- Hiznet eginda edo egiten egotea.

Probak, ekaineko lehenengo astean egingo dira eta hautatutakoek bakarrik dituko zaie.

Curriculum sartzu gure webguneko (www.emun.eus) "Lan bila?" atalean.

Azken eguna: maiatzaren 17a.



ASTEA GOIENAN



AMAIA TXINTXURRETA

Bergarako jaietan jasotakoak ikusgai

Gaur, egubakoitza, hasiko dira Bergaran Pentekoste jaiak, eta bertan jasotakoak erakutsiko dira astelehenean *Debagoiena* zuzenean saioan. Jaietan jasotako unerik onenak, berriz, eguazteneko saio berezian eskainiko dira, 22:00etan. **'Debagoiena zuzenean'** Astelehena, 20:00



IMANOL SORIANO

Mondraren laburpena 'Harmailatik' saioan

Asteburuan Mondrak liga bukarako partidu garrantzitsua jokatuko du Urolaren aurka, eta han jasotakoak erakutsiko dira *Harmailatik*-en astelehenean. Ota-la Zelai krosean domekan gertatutakoak ere erakutsiko dira, besteak beste, saio horretan. **'Harmailatik'** Astelehena, 22:00

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 13	ZAPATUA, 14	DOMEKA, 15	ASTELEHENA, 16	MARTITZENA, 17	EGUAZTENA, 18	EGUENA, 19
12:00 Debagoiena zuzenean	09:00 Kantari	09:00 Kantari	12:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Mahai-ingurua: Gemma Zabaleta eta Reyes Prados	09:30 Platopic	09:30 Platopic	13:00 Korapilo	12:30 Harmailatik	12:30 Harira	12:30 Jaiak: Bergarako jaiak
13:30 Korapilo	10:00 Korapilo	10:00 Korapilo	13:30 Debagoiena zuzenean	13:00 Mahai-ingurua: Gemma Zabaleta eta Reyes Prados	13:30 Korapilo	13:30 Kantari
14:00 Debagoiena zuzenean	10:30 Kantari	11:00 Erreportajea: Lurretik	14:30 Berriak	14:00 Debagoiena zuzenean	14:00 Debagoiena zuzenean	14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak	11:00 Debagoiena zuzenean	11:30 Amaia DJ	15:00 Amaia DJ	14:30 Berriak	14:30 Berriak	14:30 Berriak
15:00 Geure altxorrak	11:55 Astea iruditan	12:00 Harira	15:30 Onein	15:00 Harmailatik	15:00 Atlantikoa helburu	15:00 Jaiak: Bergarako jaiak
15:30 Onein	12:00 Mahai-ingurua: Gemma Zabaleta eta Reyes Prados	13:00 Debagoiena zuzenean	16:00 Debagoiena zuzenean	15:30 Onein	15:25 Hurbilean	16:00 Debagoiena zuzenean
16:00 Debagoiena zuzenean	14:00 Harira	13:55 Astea iruditan	16:30 Berriak	16:00 Debagoiena zuzenean	16:30 Berriak	16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak	15:00 Debagoiena zuzenean	14:00 Mahai-ingurua: Gemma Zabaleta eta Reyes Prados	17:00 Aizank!	16:30 Berriak	17:00 Zaindu zaitetz	16:30 Berriak
17:00 Aizank!	16:00 Astea iruditan	15:00 Aizank!	18:00 Platopic	17:00 Zaindu zaitetz	17:30 Geure altxorrak	17:00 Atlantikoa helburu
18:00 Ur eta lur	16:05 Platopic	16:00 Platopic	18:30 Berriak	17:30 Geure altxorrak	18:00 Ur eta lur	17:30 Harira
18:25 Zorion Agurrak	16:30 Kantari	17:00 Korapilo	19:00 Kantari	18:05 Atlantikoa helburu	18:30 Berriak	18:30 Berriak
18:30 Berriak	17:00 Korapilo	17:30 Debagoiena zuzenean	19:30 Amaia DJ	18:30 Berriak	19:00 Harira	19:00 Jaiak: Bergarako jaiak
19:00 Kantari	17:30 Korapilo	18:25 Astea iruditan	20:00 Debagoiena zuzenean	19:00 Korapilo	20:00 Debagoiena zuzenean	20:00 Debagoiena zuzenean
19:30 Atlantikoa helburu	18:00 Mahai-ingurua: Gemma Zabaleta eta Reyes Prados	18:30 Erreportajea: Lurretik	20:30 Berriak	19:30 Harmailatik	20:30 Berriak	20:30 Berriak
20:00 Debagoiena zuzenean	19:00 Debagoiena zuzenean	19:00 Harira	21:00 Debagoiena zuzenean	20:00 Debagoiena zuzenean	21:00 Debagoiena zuzenean	21:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak	19:55 Astea iruditan	20:00 Kantari	21:30 Berriak	20:30 Berriak	21:30 Berriak	21:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean	20:00 Kantari	20:30 Debagoiena zuzenean	22:00 Harmailatik	21:00 Debagoiena zuzenean	22:00 Jaiak: Bergarako jaiak	22:00 Hurbilean
21:30 Berriak	20:30 Amaia DJ	21:25 Astea iruditan	22:30 Debagoiena zuzenean	21:30 Berriak	23:00 Debagoiena zuzenean	23:00 Debagoiena zuzenean
22:00 Amaia DJ	21:00 Harira	21:30 Mahai-ingurua: Gemma Zabaleta eta Reyes Prados	23:00 Berriak	22:00 Harira	23:30 Berriak	23:30 Berriak
22:30 Debagoiena zuzenean	22:00 Debagoiena zuzenean	23:25 Astea iruditan	23:30 Amaia DJ	23:00 Debagoiena zuzenean	00:00 Harira	00:00 Jaiak: Bergarako jaiak
23:00 Berriak	22:55 Astea iruditan	23:30 Mahai-ingurua: Gemma Zabaleta eta Reyes Prados	00:00 Debagoiena zuzenean	00:00 Harmailatik	01:00 Debagoiena zuzenean	01:00 Debagoiena zuzenean
23:30 Zaindu zaitetz	23:00 Erreportajea: Lurretik	00:00 Harira	00:30 Berriak	00:30 Debagoiena zuzenean	01:30 Berriak	01:30 Berriak
00:00 Debagoiena zuzenean			01:00 Harmailatik	01:30 Harira		
00:30 Berriak						
01:00 Amaia DJ						

ARRASATE IRRATIA

Shake! taldearen kontzerturako sarrerak zozketan

Kooltur Ostegunak barruan, egunean 22:00etan gazte-txean Kataluniako Shake! taldea izango da. Bertara joateko sarrerak lortzeko, deitu 943 25 05 05era edo idatz *irratia@goiena.eus*-era. Gogoratu, bestalde, bide horiek zorion agurrak eta horrelakoak egiteko ere balio dutela. Parte hartu!

Hainbat elkarrizketa entzungai 11:00etan 'Igo autobusera'-n

Asteleheneko irratsaioan, Mondra taldeari buruz jardungo dute elkarrizketaren tartean, 11:00etan, *Igo autobusera*-n. Martitzenean, gazte informazioa izango dute berbeta gai. Eguaztenean, berriz, baserritarren azoka. Beraz, hurrengo astean ere gai interesgarriz josita dator 107.7a.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE			
Egubakoitza, 13	ESPAÑOL MORALES	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
Zapatua, 14	RUIZ	Nafarroa Etorb., 1	943 79 14 09
Domeka, 15	ETXEBERRIA	Zarugalde kalea, 38	943 77 16 30
Astelehena, 16	ALBERTO AZKOAGA	Ferrerias kalea, 1	943 79 15 15
Martitzena, 17	M.FCA. AZKOAGA	Iturriotz 17	943 79 79 99
Eguaztena, 18	FERNANDEZ	Maisu Aranbarri kalea, 1	943 79 22 26
Eguena, 19	IRIZAR	Erguin, 11	943 79 12 39
BERGARA			
Egubakoitza, 13	ESTELLA	Matxiategi 5	943 76 19 63
Zapatua, 14	ALVAREZ MOZOS	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Domeka, 15	ALVAREZ MOZOS	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Astelehena, 16	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza 4	943 76 11 74
Martitzena, 17	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Eguaztena, 18	OIARBIDE	San Antonio, 5	943 76 11 05
Eguena, 19	ESTELLA	Matxiategi 5	943 76 19 63
OÑATI			
Egubakoitza, 13	ANDUAGA	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Zapatua, 14	ANDUAGA	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Domeka, 15	ANDUAGA	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Astelehena, 16	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Martitzena, 17	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Eguaztena, 18	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Eguena, 19	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58

Gipuzkoako farmaziak eskuko telefonoan izateko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, (www.cofgipuzkoa.com).

EGURALDIA ASTEBURUAN

DEBAGOIENA			
	Max. 15°		Max. 17°
	Min. 9°		Min. 11°
ZAPATUA, 14	Euria egingo du, batez ere, goi- zean. Arratsaldean aterrunek luzatuz joango dira eta gauean ateri eutsiko dio.		
DOMEKA, 15	Eguraldiak hobera egingo du zer- txobait; euri askorik ez da espe- ro domekarako eta tarteka ostar- teak zabalduko dira.		
EUSKAL HERRIA			



Fronte batekin giro motela eta bustia izango da, bereziki, ipar partean. Zerua lainotuta egongo da.

GAZTE INFORMAZIOA

LANA Arte udalekuetarako begiraleak Oñatiko Udalean.

Oñatiko Udala. Baldintzak: Arte Ederretako graduaren lehenengo bi ikasturteak (edo baliokidea) gaindituta izatea, gutxienez, eta euskaran EGA edo baliokidea izatea. Aldi baterako kontratazioa izango litzateke: ekainaren 27tik uztailaren 29ra artekoa, hain justu ere. Kontakua: Oñatiko Udala.

Lan-poltsa: euskara itzul-tzaile-interpretea. Nafarroako Gobernua. Baldintzak: eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean, lizen-tziadun, ingeniari, arkitekto edo graduko titulua izatea, edo titulu hori eskuratzeko esku-bideak ordaindu izanaren gor-dekina; EGA titulua edukitzea, Nafarroako Gobernuak emana,

edo ofizialki balio bera duen beste titulua bat. Deialdia egiten da, euskara itzultzaile-interprete lanpostuan aritzeko izan-gaien zerrenda bat hautaproben bidez betetzeko. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan sor-tzen diren beharrak aldi bate-rako betetzeko erabiliko da zerrenda (salbu eta Osasun Departamentuan). Epea: maiat-zak 26.

DIRU LAGUNTZAK Etxebizitzak alokatzeko. Oñatiko Udala. Informazio guztia: Oñatiko udaleko web orrian.

Haur eta Gazteria departa-mendukoak. Haur eta Gaz-teria Departamentuak kudea-tzen dituen programa. Infor-mazio guztia: Oñatiko udaleko web orrian.

INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:

Arrasateko Gazte bulegoa: Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate.eus
Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea: Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net



ZORION AGURRAK



ARETXABALETA
Erik Oribe
Maiatzaren 18an, 25 urte. Zorionak, tio Erik! Zure eguna behar dan bezala ospatuko dou azterketak amaitzian. Patxo eta besarkada potolo bat, Kenarren eta Alainen partetik. Asko maitxe zaitxugu.



ARRASATE
Dunixe Tena Perez
Maiatzaren 17an, 7 urte. Zorionak, Dunixe, maite zaitugun guztion partetik, printzesa! 7 urte egin dituzu jada!



OÑATI
Unai Askasibar Herrera
Maiatzaren 16an, 6 urte. Zorionak, Unai! Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu handi-handi bat, etxeko danen partetik.



BERGARA
Saioa Gallastegi Visitacion
Maiatzaren 16an, 5 urte. Zorionak, polit hori! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzea. Musu handi bat, familia osoaren partetik.



ESKORIATZA
Alazne Urkia Agirregabiria
Maiatzaren 16an, 9 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure eguna etxeko danon partetik. Bederatzi muxu handi.



BERGARA
Martin Plazaola Mayoral
Maiatzaren 16an, 2 urte. Zorionak, Martin! Ondo pasatu, parkeko laguntxuen partetik.



ARRASATE
Sergio Canales Arribas
Maiatzaren 16an, 37 urte. Zorionak, *guapo*! Mila muxu familiako guztion eta, bereziki, Aitorren eta Alazneren partetik!



ANTZUOLA
Nagore Gonzalez
Maiatzaren 16an, 32 urte. Zorionak! Urte berezia da! Zure txikixaren ondoan ospatzeko! Ondo pasatu! Jabiren, Jessiren eta, bereziki, Izadiren partetik.



ARRASATE
Ander Gonzalo eta Isabel Martin
Isak maiatzaren 15ean eta Anderrek maiatzaren 19an, 7 urte. Zorionak, pittin eta amama. Oso ondo pasatu zuen eguna eta musu handi bat, etxeko danon partetik!



BERGARA
Jare Ruiz Jimenez
Maiatzaren 15ean, 2 urte. Zorionak, Jare! Parkeko laguntxo danen partetik, besarkada bat!



OÑATI
Galder Lopez
Maiatzaren 15ean, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure eguna. Ederto ospatuku merendolan familixa eta lagun artian! Txokolatezko muxu erraldoi bat!



BERGARA
Enara Gisasola Sevillano
Maiatzaren 14an, 6 urte! Zorionak, maittia! Aurten gainera Bergarako jaixak! Super-ondo pasatu eta patxo handi bat, etxeko danen partetik.



ARRASATE
Oihan eta Paule Ramirez
Paulek maiatzaren 14an, 3 urte eta Oihane maiatzaren 21ean, 5 urte. Zorionak, maittiak! Ondo-ondo ospatu zuen egunak eta muxu potoloa, familia guztiaren partetik!



OÑATI
Lur Biain Aranburuzabala
Maiatzaren 14an, 8 urte. Zorionak, Lur! Patxo handi bat etxeko danon partetik, eta ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna.



ARRASATE
Ainhua Azurmendi Casas
Maiatzaren 13an, urtebete. Zorionak, bihotza, zure lehen urtebetetzean! Oso ongi pasatu zure eguna. Muxu handi bat: Oxel, amatxo eta aitatxo.



OÑATI
Nahia Aramburu Moreno
Maiatzaren 12an, 2 urte. Zorionak, printzesa! 2 urtetxo, polit hori! Jarrai ezazu oin moduan maitagarria izaten; nahiz eta bihurrikeriak egiten ikasteko beti adi-adi egoten zaren. Ikaragarri maite zaitugu. Haizea, Uxue, aitatxo eta amatxo. Muxutxo goxoak, *guapa*!



ARRASATE
Maria Carrasco Navarro
Maiatzaren 12an, urtebete. Zorionak, printzesa! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Asko maite zaitugu. Amatxo, aitatxo eta Julen. Muxuak.



ESKORIATZA
Irati Gorosarri
Maiatzaren 12an, 5 urte. Zorionak, polit hori! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta txokolatezko muxu goxo pilo bat, familia osoaren eta, bereziki, Oihaneren partetik.



ESKORIATZA
Izadi Benitez Gomez
Maiatzaren 12an, urtebete. Zorionak, *pitxurrita*! Ondo-ondo pasatu zure lehenengo urtebetetzean! Segi gure egunak alaizten zure iribarrearekin. Muxu handi bat, etxeko guztien partetik!



ARETXABALETA
Laida Eraña Larrea
Maiatzaren 11n, 5 urte. Zorionak, printzesa! Bost urte! Muxu erraldoi bat, etxeko danon partetik!



BERGARA
Joanes Jainaga Esposito
Maiatzaren 11n, 2 urte. Zorionak, Joanes! Ondo-ondo ospatu zure bigarren urtebetetze eguna! Parkeko laguntxo danen partetik!



ARETXABALETA
Zaraitzu Bergaretxe Larrinaga
Maiatzaren 11n, 12 urte. Zorionak, neska handi! Egun on-ona pasatu eta patxo handi bana, danon partetik.



OÑATI
Noa Urtaza Hernandez
Maiatzaren 11n, 3 urte. Zorionak eta urte askotarako, Noa! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta muxu potolo bat, etxekoan partetik!



ANTZUOLA
Irati Sudupe Larrea
Maiatzaren 11n, 5 urte. Zorionak, maittia! Ondo-ondo pasatu egun berezi honetan. Segi beti bezalako alaia izaten! Patxo handi bat, aitatxoren, amatxoren eta Izadiren partetik!



BERGARA
Ion Agiriano Larrion
Maiatzaren 11n, 12 urte. Zorionak, ondo pasatu eta segi horrela, etxeko guztien eta bereziki Maitaneren partetik.



DEBAGOIENA
Malen Ugarte Salaberri eta Danel Garcia Salaberri
Malenek maiatzaren 11n, 11urte eta Danelek 12an, 2 urte. Zorionak maiatzeko gure bi loretxoei! Muxu potolo pila, familiako guztion partetik.



OÑATI
Xabat Iturbe
Maiatzaren 11n, 4 urte. Zorionak, Xabat! Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu handi bat, lagunen partetik!



OÑATI
Helene Erle Agirre
Maiatzaren 9an, urtebete. Zorionak, *pototi*! Primeran pasatu zure lehenengo urtebetetze eguna! Alegre-alegre jarraitu, barretxo batekin beti! Patxo handi bat, etxeko danon partetik!



OÑATI
Peru Guenetxea Irizar
Maiatzaren 8an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure eguna. Muxu handi bat etxekoan eta, bereziki, Izarren partetik.



OÑATI
Irati Delgado Agiriano
Maiatzaren 8an, 10 urte. Zorionak, Irati! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Patxo handi-handi bat, etxeko danon partetik, eta jarraitu horrela gure bizitzak alaizten!



ARETXABALETA
Maialen Diez Castro
Maiatzaren 7an, 13 urte. Zorionak, gure! Ondo pasatu eguna, Malenen, Iratiren, Aimarren eta Laiaren partetik.



OÑATI
Aimar Ferreiro Garcia
Maiatzaren 6an, 4 urte. Zorionak, prexioxo! Jada 4 urte. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu erraldoi bat, familiako danon eta, bereziki, Liharren partetik.



ARETXABALETA
Xabat eta Ekaitz Larrinaga
Zorionak, bikote. Xabatek maiatzaren 3an, 6 urte eta Ekaitzek maiatzaren 4an, 37 urte. Muxu handi bat, etxeko guztien partetik. Ondo ospatu!



ANGIOZAR
Nahia Loidi Garrido
Apirilaren 30ean, 12 urte. Zorionak etxekoan partetik!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak.
Hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

- Internet**
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.
- Posta elektronikoa**
Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
- Ordezkaritzak**
Etor zaitez Goienaren ordezkariatzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

ESKER ONA




Fernando Agirre Sanchez

2016ko maiatzaren 7an hil zen, 72 urte zituela.

Gure minak eta negar-zotinak arindu eta azken agurrean lagundu gaituzuen denei, bihotz bihotzez, mila esker.

Antzuolan, 2016ko maiatzaren 13an.

ESKER ONA



Antonio Loiti Gardoki

2016ko maiatzaren 6an hil zen, 85 urte zituela.

Eskerrik asko babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2016ko maiatzaren 13an.

ESKER ONA

Juantxo Murgiondo Iñiguez de Heredia



70 urte zituela hil zen.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

Oñatin, 2016ko maiatzaren 13an.

ESKER ONA

Cecilia Uribeetxeberria Ugarte



Martzelino Moyuaren alarguna

2016ko maiatzaren 5ean hil zen, 89 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

—

Ondra-meza zapatuan izango da, maiatzaren 14an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan. Bertaratuko zaretenoi, aurrez eskerrik asko.

Oñatin, 2016ko maiatzaren 13an.

ESKER ONA



M. Jesus Inza Espinosa

2016ko maiatzaren 9an hil zen, 86 urte zituela.

Familia eta musika izan dira zure bizitzaren euskarriak, orain gure aldetik joan zara baina zure oroimena gure bihotzetan musika bihurtzen da.

—

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.

Bergaran, 2016ko maiatzaren 13an.

ESKER ONA

Jacinta Irisarri Esain



Jose Luis Urbina Lagosen alarguna

2016ko maiatzaren 11n hil zen, 86 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2016ko maiatzaren 13an.

HILDAKOAK

Cecilia Uribeetxeberria Ugarte. Oñatin, maiatzaren 5ean. 89 urte.
Antonio Loiti Gardoki. Arrasaten, maiatzaren 6an. 85 urte.
Iñaki Unamuno Loidi. Arrasaten, maiatzaren 7an. 82 urte.
Fernando Agirre Sanchez. Antzuolan, maiatzaren 7an. 72 urte.
Matias Isasisasmendi Elortza. Arrasaten, maiatzaren 7an. 89 urte.
Maria Angeles De la Cruz Gonzalez. Arrasaten, maiatzaren 8an. 72 urte.
Felisa Torner Gutierrez. Arrasaten, maiatzaren 8an. 93 urte.
Sabina Anton Alvarez. Arrasaten, maiatzaren 8an. 79 urte.
Heraclio Marcebo Chocan. Arrasaten, maiatzaren 8an. 84 urte.
Juana Uribe-Etxebarria Iregi. Arrasaten, maiatzaren 9an. 93 urte.
M. Jesus Inza Espinosa. Bergaran, maiatzaren 9an. 86 urte.
Jacinta Irisarri Esain. Bergaran, maiatzaren 11n. 86 urte.

3. URTEURRENA

Nerea Altube Arrese



2013ko maiatzaren 17an hil zen.

Beti izango zara gure bihotzetan.

Aretxabaletan, 2016ko maiatzaren 13an.

OROIOLORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure ase-guru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.



maribi 617 44 21 55
BERGARA

EZKONTZAK ETA EZTEI-OSPAKIZUNAK



Josefina eta Pablo
Josefina eta Pablo orain dela 50 urte ezkondu ziren, maiatzaren 14an. Ondo pasatu zapatu hone-tan zuen familiarekin. Zorionak, batez ere, Mane-xen, Mattinen, Ainhizeren eta Ganixen partetik.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskelak@goiena.eus

► Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 160 €/ Goiena Klubeko bazkideendako 142 €

► Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 140 €/ Goiena Klubeko bazkideendako 125 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:
ARRASATE Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.
BERGARA Jardun elkarte: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.
OÑATI Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.
ELGETA Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.
ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.



ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Altamira
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Oker (euskaraz)
Domeka: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

El olivo
Egubakoitza eta zapatua:
22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

EIBAR

COLISEO

Espías desde el cielo
Zapatua: 17:00, 19:45.
Domeka: 17:00.

El olivo
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.

Capitan America
Zapatua: 16:30.
Astelehena: 20:30.

La noche que mi madre mató a mi padre
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.

ANTZOKIA

Capitan America
Domeka: 17:00.

Espías desde el cielo
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ

FLORIDA

Andry bird
Egubakoitza: 16:25,

18:15, 20:05, 22:30.
Zapatua eta domeka:
12:00, 16:25, 18:15,
20:05, 22:30.
Astelehenetik eguenera:
17:00, 18:50.

Tini. El gran cambio de Violeta
Egubakoitzetik domekara:
16:20.
Astelehena, eguaztena
eta eguna: 20:40.

Infiltrados en Miami
Egubakoitzetik domekara:
16:20.
Astelehenetik eguenera:
17:00.

La bruja
Egunbakoitzetik
domekara: 18:15, 20:05,
22:30.
Astelehenetik eguenera:
19:00, 20:45.

El libro de la selva
Egubakoitza: 16:30,
18:30.
Zapatua eta domeka:
12:00, 16:30, 18:30.
Astelehenetik eguenera:
17:00.

La noche que mi madre mató a mi padre
Egubakoitzetik domekara:
22:30.
Astelehenetik eguenera:
21:00.

El caso Fritz Bauer
Egubakoitzetik domekara:
20:30.
Astelehenetik eguenera:
19:00.

Corazon gigante
Egubakoitzetik domekara:
16:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera:
19:00, 21:00.

El hombre perfecto
Egubakoitzetik domekara:
18:30, 20:05, 22:30.
Astelehenetik eguenera:
17:99, 20:00.

El hombre que conocía el infinito
Egubakoitzetik domekara:
16:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera:
17:00, 21:00.

La punta del iceberg
Egubakoitzetik domekara:
18:30.
Astelehenetik eguenera:
19:00.

Capitan America
Egubakoitzetik eguenera:
17:15.

Kung Fu Panda 3
Zapatua eta domeka:
12:00.

Zootropolis
Zapatua eta domeka:
12:00.

BOULEVARD

Angry birds
Zapatua: 23:00.
Egubakoitzetik eguenera:
18:00, 19:00, 20:00,
21:00.
Zapatua eta domeka:
16:00, 17:00.

Angry birds 3D
Egubakoitzetik eguenera:
22:00.

La bruja
Zapatua: 00:00.
Egubakoitzetik eguenera:
18:00, 20:00, 22:00.
Zapatua eta domeka:
16:00.

Espías desde el cielo
Zapatua: 00:30.
Egubakoitzetik eguenera:
17:45, 20:00, 22:00.

Capitan America
Zapatua: 23:30.
Egubakoitzetik eguenera:
17:30, 19:00, 20:30,
22:00.

Capitan America 3D
Zapatua eta domeka:
16:00.

El libro de la selva
Egubakoitzetik eguenera:
17:45, 19:00, 20:00.
Zapatua eta domeka:
15:30, 16:45.

El libro de la selva 3D
Egubakoitzetik domekara:
15:45.

Infiltrados en Miami
Egubakoitzetik eguenera:
18:00, 20:20.

Tini. El gran cambio de Violeta
Egubakoitzetik eguenera:
18:10.
Zapatua eta domeka:
16:00.

Nacida para ganar
Egubakoitzetik eguenera:
22:15.

El olivo
Zapatua: 00:20.
Egubakoitzetik eguenera:
20:00, 22:10.

Triple 9
Zapatua: 23:45.
Egubakoitzetik eguenera:
21:15.

Kiki, el amor se hace
Zapatua: 00:40.
Egubakoitzetik eguenera:
20:20, 22:30.

La venganza de Jane
Zapatua: 00:40.
Egubakoitzetik eguenera:
22:30.

Ratchet and Clank
Egubakoitzetik eguenera:
17:50.
Zapatua eta domeka:
15:30.

Kung Fu Panda 3
Zapatua eta domeka:
15:40.

Objetivo: Londres
Zapatua: 00:20.

Toro
Zapatua: 00:00.

MUSIKA

BERGARA The Fridays Crew, Bad Sound System eta Martxanterak

Bergarako jaiak.

Gaur, egubakoitza, txosnagunean, 23:00etan.

BERGARA En Tol Sarmiento

Bergarako jaiak.

Gaur, egubakoitza, San Martin plazan,
23:00etan.

ARETXABALETA Sorkun

Ziklomorphosia diskoa aurkez-
tuko du.

Bihar, zapatua, Arkupen, 20:00etan.

OÑATI Lauroba eta Enkore

Pop-rock doinuak nagusi. Sarre-
rak, bost euro.

Bihar, zapatua, gaztelekuan, 22:30ean.

BERGARA Mconak, Polygorn eta Bet Disko Musika

Bergarako jaiak.

Bihar, zapatua, txosnagunean, 23:00etan.

BERGARA Azkaiter Pelox Trio eta Harresian Zulo

Bergarako jaiak.

Etzi, domeka, txosnagunean, 18:00etan.

OÑATI Ganbara Txiki abesbatza

Bazkideendako kontzertua izan-
go da. Benito Lertxundiren kan-
tuak izango dira emanaldiaren
oinarria.

Etzi, domeka, parrokian, 19:00etan.

ARETXABALETA Trikiti eta pandero emanaldia

Leizarra musika eskolako ikas-
leen kontzertua.

Maiatzaren 16an, Arkupen, 18:00etan.

BERGARA Perlak eta Fiachras

Bergarako jaiak.

Maiatzaren 17an, txosnagunean, 19:00etan.

ANTZERKIA

ARETXABALETA 'Aingeru edo kurriloi?'

Josemari Velez de Mendizabalek
idatzitako lana. Hiru ahizparen
eta iloba baten arteko harrema-
na kontatzen du. Istorioa iragan
mendeko erdialdean kokatzen
da. Mariasun Pagoaga, Arantza
Ezkurra, Maider Alzelai eta Dori-
ta Murgia oholztan.

Gaur, egubakoitza, Arkupen, 20:00etan.

JAIK

OÑATI Kasablankako jaixak

San Isidro jaiak ospatuko dituz-
te. Egubakoitzean, txorimaloak,
pintxo dastatzea eta rock kon-
tzertua egongo dira. Zapatuan,
bazkaria eta umeendako tailerrak,
besteak beste; eta domekan, meza,
Oñatz taldearen erakustaldia eta
auzotarrendako erromeria.

Aste bukaeran, Kasablankan.

OÑATI Murgiaiko jaiak

Asentzio jaiak ospatuko dituzte.
Zapatuan, auzoko produktuen
dastatzea, pailazoak, herri kiro-
lak, auzo afaria eta Kupela tal-
dearekin erromeria; eta domekan,
meza eta luntxa.

Aste bukaeran, Murgia auzoan.

ARRASATE Musakolako jaiak

San Isidro jaiak ospatuko dituz-
te. Askotariko ekintzak egingo
dituzte. Tartean, zapatuko moto-
rren irteera.

Aste bukaeran, Musakolan.

OSPAKIZUNAK

ARRASATE Corazon de Encina

Arrasateko estremaduraren
elkartek askotariko ekintzak
egingo ditu aste bukaeran, kul-
tura astea bukatzeko.

Aste bukaeran, Corazon de Encina elkartearen
egoitzan.

OÑATI 'Ixidro-pote' eta bertso afaria

Nekazarien elkartean San Isidro
eguna ospatuko dute: 19.00etatik
21:00etara, elkarteko ateak ireki-
ko dira herritarrentzat pintxo
-potea egiteko. Euro baten truke
edana eta pintxo eskainiko da.
Ostean, bertso-afaria Zubeldia-
rekin eta Peñagarikanorekin.

Bihar, zapatua, Nekazarien Elkartean, aipatutako
orduan.

ARETXABALETA Otala Zelai eguna

Askotariko ekintzak: umeendako
eta gazteendako lasterketak (10:00),
Otala Zelaiko krosa (11:00), ani-
maliekin jolasak (13:00), paella
txapelketa (13:00) eta sagardo
festa (13:30), bazkaria (14:30), dis-
ko festa (16:00) eta dantza saioa
Leizarra musika eskolakoekin
(18:00).

Etzi, domeka, Otala Zelain, aipatutako orduetan.

ERAKUSKETAK

ARRASATE Beart elkartea

Bergarako Arte Elkarteko kideen
pinturak ikusgai ipini dituzte.

Maiatzaren 28ra arte, Kulturaten.

BERGARA Javier Vicente

Bazen behin herri txiki batean
izeneko erakusketa ipini du argaz-
kilari bergararrak.

Maiatzaren 22ra arte, Aroztegin.

OÑATI 'Frei, Free, Aske'

Xabin Egañaren margolanak.

Maiatzaren 22ra arte, kultura etxea.

HITZALDIAK

OÑATI Bizkarreko osasuna

hobetzeko tailerra

Tailerra egingo dute egokienak
diren posturak zeintzuk diren
azaltzeko.

Gaur, egubakoitza, Zubikoan, 17:00etan.

ESKORIATZA Janari ekologikoak

Janari ekologikoak, elikagai eta
sendagai bizitzan zehar izeneko
berbaldia egingo du Xabier Uriar-
te medikuak.

Bihar, zapatua, Bizi kiropraktikoaren egoitzan,
10:00etan.

OÑATI Garbiñe Biurrun eta Gemma Zabaleta

Herri galdeketa, aldarrikatzetik
*gauzatzer*a izeneko berbaldia
egingo dute, Erain Debagoienak
gonbidatuta.

Maiatzaren 17an, Santa Ana antzokian,
19:30ean.

ARRASATE Ibarretxe berbetan

La cultura es la clave izeneko
berbaldia egingo du lehendakari
ohiak. Irekia izango da herritar
guztiendako.

Maiatzaren 18an, Kulturaten, 10:00etan.

ESKORIATZA Erabakitze

eskubidea

Angel Oiarbidek eta Xabier Ezei-
zabarrenak egingo dute mahai-in-
gurua, Erain Debagoienak gon-
bidatuta.

Maiatzaren 18an, Zaldibarren, 19:00etan.

KRIKITA

Antzekoak eta ezberdinak

O rdu gutxitan gertatzen den istorioa da *Ahora sí, antes no*. Zinema zuzendari ospetsu bat Seuletik beste hiri batera doa bere film bat aurkeztera. Ekitaldia baino egun bat lehenago heltzen da eta denbora tarte horretan margolaria den neska bat ezagutuko du. Hong Sang-sook bi aldiz kontatuko digu istorio bera. Hori bai, batetik bestera pertsonaien harremanetan zerikusi handia izango duten aldaketa batzuk gertatuko dira. Filma bi zatitan banatzen da. Lehenengo zatiak *Ahora no, antes sí* izenburua du eta bigarren zatiak *Ahora sí, antes no*. Bi zatiek egitura eta sekuentzia banaketa parekoak dituzte, baina aldaketak ere bai. Planoak angelu desberdinetatik filmatuak daude, elkarriketa batzuk errepikatzen dira, beste batzuk berriak dira, eta esaten dituzten gauza batzuk beste pertsonaien ahotan entzuten dira. Azken finean, nork, zer, nola eta noiz esaten ditugun gauzak, zerikusi handia izan dezakete pertsonen harremanetan.

Lehen zatian, pertsonaien arteko hurbiltzea askoz zeremoniatsuagoa da.

AHORA SI, ANTES NO ★★★★★

Zuzendaria: Hong Sang-soo.

Herrialdea: Hego Korea.

Aktoreak: Jeong Jae-yeong, Kim Mim-hee.

Distantziak mantentzen dituzte eta poliki-poliki, berba eginez, bien arteko harremanak sendotzen joango dira. Zati honetan heziera ona eta modu egokiak zaintzen dira, baina, zintzo hitz egiterakoan, batez ere, gizonezko pertsonaian, gauzak ez daude ondo. Bigarren zatian, alderantziz, dena zuzenagoa da, momentu batzuetan egoerak kaotikoagoak dira, baina zintzoago hitz egiten dute. Horrela, itxuraz ondo dagoena ez da ondo bukatzen eta gatazkatsuak diruditenak hobeto bukatzen dira. Jatetxeko eszenak eta neskaren pintura estudioan gertatzen diren bi sekuentzien arteko desberdintasunak markatzen dute istorioek hartzen duten norabidea.

Zuzendariak istorioa kontatzeko moduan esperimentatzen du, oso era lirain eta atseginarekin eta pedanteke

ANTONIO ZABALA

NON-ZER

MAIATZA 13
MAIATZA 19

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

ARRASATE Komunikazio alternatiboak
Bertako eta Latinoamerikako komunikatzaileek *Komunikazio alternatiboa eta herri komunikabideak eraldaketa sozialerako* delako mahai-ingurua egingo dute, euskaraz eta gazteleraz. Maiatzaren 18an, Kulturaten, 19:00etan.

DANTZA

ARRASATE 'Aureo'
Dantzaz taldearen lana. Dantza estilo ezberdinen bateraketa izan gura du ikuskizunak. Etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:30ean.

BERGARA 'Fusioak'
Aukeran taldearen lana. Edu Muruamendiaraz da zuzendaria. Etzi, domeka, San Martin plazan, 20:30ean.

LITERATURA

OÑATI Gazteen irakurketa kluba
13-16 urte bitarteko gazteendako. Bihar, zapatua, liburutegian, 11:00etan.

ARRASATE Oihana Etxagibel
Ipuin kontaketa bi egingo ditu: hilaren 17an, 3 urtetik gorakoen-dako, Santa Marinako bibliotekan, eta hilaren 19an, 5 urtetik gorakoendako, Kulturaten. Aipatutako egunetan eta lekuetan, 18:00etan.

OÑATI Tertulixan
Euskarazko irakurketa taldearen tertulia. Eider Gonzalezen *Eta handik gutxira* landuko dute. Maiatzaren 18an, liburutegian, 18:30ean.

GAZTELEKUAK

ARRASATE Musakolako jaiak
San Isidro jaiak ospatuko dituzte: 17:00etan, nerabeendako hiruko txapelketa; ordu berean, haurrendako eta nerabeendako aurregi margotzea; eta 18:00etan, txokolate-jana. Gaur, egubakoitza, gaztetxokoan.

ARRASATE Musakolako jaiak
San Isidro jaiak ospatuko dituzte: 11:00etan *Musatxftxapelketa*, 13:30ean auzo bazkaria eta 16:00etan gazteendako ginkana. Bihar, zapatua, gaztetxokoan.

OÑATI Batzarra
Bosgarren mailako neska-mutikoekin batzarra, udako ekintzak zehazten hasteko. Etzi, domeka, kuboan, 17:00etan.

ARRASATE 'Tropi jaia'
Irabiatuak egiten ikasteko aukera egongo da. Etzi, domeka, erdiguneko gaztegunean, 18:00etan.

IRTEERA

OÑATI Oñatitik Lizarrara oinez
25. aldiz egingo dute 70 kilometroko ibilaldia. 04:00etan irten eta 19:00 aldera helduko dira Lizarrara.. Bihar, zapatua, San Martin zubian, 04:00etan.

ELGETA Mendi irteera
Goizueta-Arriurdin-Goizueta ibilaldia egingo dute Kantsatzeke mendi taldearen eskutik. Lauz-pabost orduko ibilaldia. Etzi, domeka, Mendizaleen plazan, 08:00etan.

OÑATI 'Uraren bidea'
Jaturabetik hasita, Aitzgain, Orkatzategi eta Aitzulo ikusteko aukera, maiatzaren 15ean. Izena emateko: 943-78 28 94. Izen-ematea, aipatutako telefonoan.

ARRASATE Beteranoen mendi martxa
Herran-Ribera-El Cubo-San Lorenzo izango da ekainaren 4an egingo duten ibilbidea. Gesaltza Añan bazkalduko dute. Izena emateko azken eguna maiatzaren 19a izango da. Izen-ematea, Besaideren bulegoan.

BESTELAKOAK

ARETXABALETA Santa Ritaren bederatziurrena
Maiatzaren 16an hasita egingo dituzte mezak, 19:00etan. Santa Rita eguna maiatzaren 22an da, baina Hirutasun Santuaren festa denez aurten, hilaren 23an, astelehenean, ospatzea erabaki dute. Meza bakarra esango dute, 19:00etan –hileta egonez gero, 11:00etan–. Bedeinkatuko diren arrosak norberak eroan beharko ditu. Aipatutako egunetik hasita, parrokian, 19:00etan.

ELGETA Hondakinen karakterizazioa
Zer botatzen dute elgetarrek errefusaren edukiontzira? Edukiontzi horietako bat hustuko dute plazan herritarrek bertatik bertara ikus dezaten. Horrekin batera, konposta banatuko dute herritarren artean. Etzi, domeka, Mendizaleen plazan, 13:00etan.

ELGETA Kantu eta dantza eguna
Hilaren 22an egingo dute kantu eta dantza eguna. Baina Bola Toki tabernan egingo den bazkarirako txartelak aldeztu aurretik erosi behar dira, 15 euroren truke. Maiatzaren 19a izango da txartelak erosteko azken eguna. Etzi, domeka, Mendizaleen plazan, 13:00etan.

OÑATI 'Ostegun kontalariak' saiorako gonbidapenak
Lur Kortak hilaren 26an egingo du saioa 3-5 urte arteko umeendako. Bada, aurretik, gonbidapenak jaso behar dira haur liburutegian. Maiatzaren 16an hasiko dira horiek banatzen. Aipatutako egunetan eta lekuetan.

OÑATI Boxeo jaialdirako sarrerak
Emakume boxeolarien hilaren 22an egingo duten erakustaldirako sarrerak salgai daude Txaketua tabernan eta Indar gimnasioan, 10 eurotan, eta leihatilan, 12 euro ordainduta. Salmenta, aipatutako lekuetan.

DEIA

OÑATI 'Aurrekontuekin Arazerixan!'
2017ko Udal aurrekontuak haur eta gazteekin lantzeko partaide-

tza prozesua martxan ipini dute, *Erabaki dezagun! ametsetatik proposamenak lehenetsi* leloarekin. Gaur, egubakoitza, azokan, 17:00etan.

OÑATI Odol ateratzea
Urteko bosgarrena egingo dute. Gaur, egubakoitza, ikastolan, 17:30ean.

OÑATI 'Berdintxiketan'
Bikote mistoen seigarren lasterketa egingo dute. Gaur, egubakoitza, Enpresagintzan, 18:30ean.

ELGETA Sinadura bilketa
Erabakitzeko eskubidearen aldeko sinadura bilketa. Azken eguna izango da. Gaur, egubakoitza, Mendizaleen plazan, 19:00etan.

TURISMOA

ARETXABALETA Kanpai joleak
Areantzako parrokian, kanpai jole eskolakoekin, kanpaien munda hurbiltzeko aukera egongo da. Izenak: 943-79 64 63 telefonoan. Bihar, zapatua, Areantzako parrokian, 12:00etan.

DEBAGOIENA Ignaziotar bidea
1522. urtean, Ignazio Loiolakoak Azpeititik Manresara egindako bidaiaren hasiera hiru etapatan egiteko proposamena egin du Debagoieneko Mankomunitateko turismo sailak. Bigarren etapa izango da La Antigua-Arantzazu, hemeretzi kilometrokoa. Etzi, domeka, 09:00etan.

IKASTAROAK

BERGARA Larraín dantza
Maiatzaren 24tik ekainaren 28ra arte egingo dute ikastaroa, martitzenetan. Izena emateko epea maiatzaren 10ean bukatzen da: 943-76 57 80 telefonoan edo *idazkaritza@bme.e.telefonica.net* helbidean. Izen-ematea, aipatuko lekuetan.

IZEN-EMATEA

OÑATI Herriko pilota txapelketa
Txapelketa ekainean, uztailean eta irailean jokatu da eta finala, sanmigeletan. Arrano, Ona eta Aloña tabernetan eman daiteke izena, hilaren 22a baino lehen. Bikote bakoitza, hamar euro. Izen-ematea, aipatuko lekuetan

BERGARA Kepa Junkera eta Sorginak

Bergarako jaietan egingo dute emanaldia. *Trikitixaren historia txiki bat* izeneko kontzertua egingo dute. Junkerarekin batera, Leire, Amets, Eneritz Maria, Irati, Alaitz eta Garazi egongo dira ohol-tzan. Bereziki, pieza instrumentalak interpretatuko dituzte. Bihar, zapatua, San Martin plazan, 23:00etan.

KEPA JUNKERA

PAZKOAK 2016

GOIENA TELEBISTA | DEBAGOIENA ZUZENEAN | JAIK: PAZKOAK 2016, BERGARAKO JAIK

MAIATZAK 16, 21:00 ETA 22:00 | MAIATZAK 17, 20:00, 21:00 ETA 22:30 | TXOMIN MADINAK AURKEZTUA

BABESLEA: ARETXARGI

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena



GOIENA TELEBISTA EZIN IKUSI?

Hainbat telebista-markatako modeloeekin arazoak egon dira Goiena telebistako seinalea jasotzeko (Sony eta Panasonic). Arazoa konpondu da; beraz, aipatutako marketako telebistaren bat baduzu eta Goiena telebista ikusten ez baduzu, berriro sintonizatu.

- Sintonizazio automatikoa: telebistak egingo du automatikoki bilaketa eta telebista-seinale guztiak berriro aurkituko ditu.
- Eskuzko sintonizazioa: bilaketa zehatzagoa egin ahal izango du erabiltzaileak, eta norberak eskatutako telebista-seinalea bilatuko du. Goiena telebista 52. kanalean aurkituko du bilaketa egiterakoan.



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA **goiena**

goiena

2016-05-13

BUKATZEKO



Ganix eta Andoitz Gomez anaiak 160 erraldoiekin. | EIDER ITURBE

Erraldoi izan gura duen aretxabaletarra

- Gomaz egindako 30 zentimetro inguruko 160 piezarekin osatutako bilduma dauka etxean
- Lehenengoz jarriko ditu ikusgai jendaurrean bihar, zapatua, Bergarako Munibe plazan

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Erraldoiak ditu gustuko Aretxabaletako Andoitz Gomezek, eta, zortzi urte bakarrik izan arren, bilduma galanta osatu dute hark eta anaia Ganixek: 30 zentimetro inguruko 160 erraldoi. Horiek guztiak Bergarako jaietan erakutsiko ditu bihar, zapatua, Muni-be plazan, goiz osoan.

'Patakon' pirata

"Gurasoek jairik jai eramaten ninduten; batez ere, Nafarroa aldean ibili izan gara herririk herri, eta, guztietan izaten direnez erraldoien kalejirak, han zaletu nintzen", dio. Eta mutikoaren zaletasuna familiaren afizio bihurtu da: "Sanferminetan ikusi zituenean esan zuen Andoitzek erraldoi izan gura zuela. Hura izan zen hasiera eta ondoren geu ere zaletu egin gaituzte



Ganix eta Andoitz erraldoiekin. | M.A.

bi semeek", jakinarazi du Txarli Gomezek.

Iruñeko Txantrea auzoko erraldoiak izan ziren erositako lehenengoak: Mari, Sorgina, Tartalo eta Basajaun. Gero etorri ziren Atarrabiako Santxo eta Santxa, Reusko indiarak, Errenteriako Xanti eta Maialen eta gainerako guztiak: "Nafarroan eta Katalunian tradizio handia dago, Nafarroan izugarritzkoa; Zaragoza aldean, oster, buruhandiak ikusten dira gehiago". Gomazko erraldoiak dira: "Lakarik gabe margotuta daude eta lasaitasun guztiarekin egin dezakete jolas umeek. Marmolezkoak ere baditugu, baina horiek ikusteko", dio. Hango edo hemengo jaietara doazenean mutikoek beti eramaten dute bikoteran bat zorroan sartuta: "Ez zaigu bat ere apurtu. Ondo zaintzen ditugu eta", diote.

Halako bilduma handiak bi eragozpen ditu: batetik, gordetzeko arazoa. "Han eta hemen ditugu; logelan batzuk, kaxetan gordeta beste batzuk... Oraingo, badugu lekua". Eta bestetik, aurrekontua: "Bikotearen prezioa da 25 eta 30 euro artean. Baina gustuko tokian...". Horregatik, oraindik ez dute planto egiteko asmorik: "Dagoeneko berrien zain gaude; badakigu Berriozarko bikotea ateratzekotan direla, ekainean Tuterakoak...".

Andoitz Gomezek, gainera, bere erraldoia dauka: *Patakon* pirata. "Arrasateko eta Bergarako konpartsakoeekin ibili izan naiz, eta dantzan ere ikasi dut", dio. *Patakon*, baina, txiki geratu zaio haziz doan mutikoari, eta berriari begira hasita daude: "Handiagoa behar du; ea datorren urtean edo...".

AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR



Euskararen herria

Eudel da EAEko udalen elkarteak, eta aurten aldaketa nabarmenak ezagutu ditu akordio politiko baten ondorioz. Elkarre berrituak estatutuak aldatu ditu, bazkide berriak onartu eta asteon adostu du bere zuzendaritza, alderdi guztiek aho batez, astelehenean berretsi dezan Elgoibarren bilduko den batzarra.

Estatutu berrietan egin-kizun hartzen du elkarteak euskararen sustapena. Nafarroan aldaketa ez zen soilik gobernuan gertatu, udaletan ere alderdi euskaltzaleak nagusitu ziren. Eta, ondorioz, euskaltzaleak nagusi dira baita ere nafar udalen eta kontzejuen federazioan.

Iparraldean, azkenik, udalek egunotan gainditu dituzte frantziar estatuak jarritako bi langak eta urte hasieran sortuko da guztiak bilduko dituen elkargoa; besteak beste, hizkuntza politikaren ardurare ere izango duena.

Hara non, historikoki hain oparoa izan dugun udalgintza-ren eskutik iristen zaigun euskararen lurraldea antolatze-ko abagunea, udalen eta hauen elkartearen sareak osatuz eta sendotuz; non, lurralde sare horren gainean eraiki daitekeen euskararen herria; eta non, Euskal Herri politikoaren ordua iristen denean euskarak bere tokia hartua izan dezakeen.




JARDUNALDIAK

Herri indigenak - Herri-komunikabideak - Komunikazioa Eraldaketa Sozialerako
Latinoamerikako gonbidatu indigenen eta bertako kazetari eta komunikatzaileen parte-hartzearekin


Antolatzaileak



Laguntzailea



Babeslea



Maiatzak 17 asteartea, 19:00etan Arkupe (ARETXABALETA)

Dokumental emanaldia: "Eutsi edo Hil, herri indigenen salaketa, ikuspuntu eta proposamenak" (Euskaraz) + Solasaldia gonbidatu komunikatzaile indigenekin.

Maiatzak 18 asteazkena, 19:00etan KulturAte (ARRASATE)

Berbaldia mahai-ingurua: komunikazio alternatiboa eta eraldaketa sozialerako herri-komunikabideak (Euskara-Gaztelera).

Maiatzak 24 asteartea, 19:00etan KulturAte (ARRASATE)

Herri indigenek egindako dokumentalen emanaldia.

Maiatzak 26 osteguna, 19:00etan Zinema Aretoa (OÑATI)

Herri indigenek egindako dokumentalen emanaldia.

Informazioa: www.mugarikgabe.org, elkarhezitzen.blogspot.com eta goiena.eus